



Umeendako
kontzertua
Bergarako
gaztetxean
zapatuan | 30

Bergarako
Espoloiko jolas
parkeari
estalkia jarriko
diote | 15

Otsailen abiaraziko dute
etxe tutelatuaren proiektua | 20



Aretxabaletako Txapel Txinen etorrerarekin
hasiko da Aratuste giroa Debagoiengan | 18



Domekan estreinatuko du
Ganbarak ikuskizun berria | 32



Agustindarren ondarea, aretxabaletarrendako

Atzo, eguna, gauzatu zen
jabetza aldaketa | 8

Unai Elkoro,
Aretxabaletako alkatea,
eta Nekane Aginagalde,
agustindar moja, giltzen
entrega egiten.

JAGOBA DOMINGO

Euskara
praktikatzeko
41 talde
abian dira | 3



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Debagoieneko erraldoiak eta buruhandiak
- Almudena Cid gimnastari elkarrizketa

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

Elizak 132 ondasun ditu erregistratuta eskualdean

- ▶ Inmatrikulatutako ondasun kopururik handiena Eskoriatzari dagokio
- ▶ EH Bilduk mozioak aurkeztukok ditu herriz herri jabetzaz eztabaidatzeko | 2

SINADURAK

| | |
|--|--|
| | Titulu guztiak ez dira berdinak 5 JASONE ZABALA |
| | 5 Hondakinak direla eta JULEN IRIONDO |
| | 0 km 15 MAIALEN MADARIAGA |
| | 19 Ondoko bidetik AITOR UGALDE |
| | Erabili gaitzazue! 22 MAIDER OTAMENDI |
| | 40 Elkartasuna eta segurtasuna AGURNE BARRUSO |

Liderra Buesa Arenan!

Laboral Kutxa Baskonia - Valentzia Basket partidurako
4 sarrera bikoitz zozketatzen ditugu.

Otsailaren 7an, Buesa Arenan jokatu den partidurako (19:00).

Animatu eta parte hartu!



PARTE HARTZEKO (OTSAILAREN 3RA ARTE):

WhatsApp: [BASKONIA] [baskidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazleei deitu egingo zaie eta goienakluba.com webgunean agertuko dira euren izen-abizenak.

Indararen dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen fitxategi automatizatuetan baten sartuko direla.

Datu-bilketari honen helburu bakarra da indararen dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzea, haiek zuzentzea edo ezabatzea, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Elizak 132 ondasun ditu erregistratuta Debagoienez

- ▶ Mozioak aurkeztuko ditu eskualdeko udalerrietan
- ▶ Adibidez, jabetzen zilegitasuna du zalantzan

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

132 ondasun ditu erregistratuta Elizak Debagoienez. Hala jasotzen du Eusko Jaurlaritzak EH Bilduren ekimenez eta EAJren eta PSE-EEren onespenerekin eskatu eta eskuratu duen zerrendak. Hain justu ere, 1978tik hona Eliza Katolikoak EAEn egindako ondasunen inmatrikulazioari dagokion zerrendatik ateratako kopurua da Debagoienari dagokiona.

Orokorrean, berriz, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 525 ondasun erregistratu ditu Elizak, eta Gipuzkoari dagokio zerrendarik luzeena: 388. —Debagoienekoa beheko taulan, herriz herri—.

Eskoriatzan gehien

Elizak eskualdean erregistratutako 132 ondasunetatik gehienak Eskoriatzakoak dira: 45. Horren arrazoia udalerrri horren egitura-

ketan dagoela uste du Mainer Otamendik, EH Bilduko legebiltzarkideak: "Eskoriatza zazpi elizatez osatuta dagoenez, elizate bakoitzak du bere eliza, abade-etxea, ermita ere bai kasu batzuetan, eskola zaharra zena, baratzea... ondasun asko izan ditu, eta horre-

gatik uste dut horren deigarria dela Eskoriatzako kasua".

Zilegitasuna zalantzan

Zerrenda esku artean, txosten juridikoa egingo du Eusko Jaurlaritzak. Elizak erregistrok legearen barruan egin dituen arren,



Apotzagako jolasparkea bertako elizaren aurrean dago. | IMANOL BELOKI

jardunbide horren zilegitasunak eta bidezkoitasunak zalantzak eragiten dituelako. Bi zentzutan eragin ere: batetik, Eliza Katoliko historian izan dituen lege pribilegio batzuek baliatu delako hainbat ondasun bere izenean jartzeko: "Edozein partikularrek erregistratu behar badu ondasun bat bere izenean, frogatu behar du horren jabetza duela. Guk jaso dugun dokumentazioan, hainbat eta hainbat kasutan, Elizak eman duen justifikazioa izan da *desde tiempos inmemoriales* hori bere jabetzakoa izan dela. Horiak lege barruan egin ditu. Kontua da lege hori bidezkoa izan den edo ez". esplikatu du Otamendik.

Eta bestetik, Elizak bere izenean erregistratutako hainbat eta hainbat ondasunen urtetako mantenua edo berritze lanak diru publikoekin egin direlako.

Hala, Legebiltzarrean aurkeztutako lege besteko proposamena baliatuta, Elizak inmatrikulaturako ondasunak 1978ko Konstituzioa baino lehenagoko egoerara itzul daitezke egingo dute lan: "Eskatzen dugu ondasun guztiak zeinenak izan beharko liratekeen aztertzea eta ondasun hauek 1978ko Konstituzioaren aurreko egoerara bueltatzea eta Hipoteka Legearen 206. artikuluearen antikonstituzionalitatea eskatzea, kontuan izanik lege horrek, bidezkoak iruditzen ez zaizkigun hainbat pribilegio eskaintzen zizkiola Elizari berari", esan du Otamendik. Horrekin batera, Debagoieneko udalerrietan mozioak aurkeztuko dituzte, informazioa eman eta "eztabaidatzeko ondasun horiek zeinenak izan beharko liratekeen".

MAIDER OTAMENDI
LEGE BILTZARKIDEA

"Diru publikoz berritutakoa Elizarena izan beharko litzateke?"



Eskoriatzarra da Mainer Otamendi, EH Bilduren ordezkarietako bat Legebiltzarrean.

Apotzagako futbol zelaia eta jolas-parkea Elizarenak dira?

Jolas-parkeari dagokionez, 1999-2003 legealdian osorik berritu zen. Hori diru publikoz berritutako parkea da. Zalantza da erabilera herritarrena izanik eta diru publikoz berritutako parkea izanik Elizarena izan beharko litzatekeen horren jabetza. Futbol-zelaiari dagokionez, Apotzagako hainbatek komentatu dute kanposantua zegoela bere garaian han; baina aldamenenean dagoen Apotzagako auzo lokalak bere eginkizunen barruan du futbol zelai horren mantenua; eta hor ere zalantza sortzen da hori Elizaren ondasun bat izan beharko litzatekeen edo Apotzagako auzoarena.

EH Bilduk bideratutako ekimen honen arrazoia zein da?

Garbi utzi nahi duguna da hau ez dela Elizaren aurkako ekimen bat, ezta gutxiago ere. Gure interes bakarra da herritarren interesak defendatzea, eta aztertzea kasuan kasu Elizak bere izenean jarri dituen ondasun horiek benetan herriarenak diren edo izan beharko liratekeen edo Elizarenak diren. Egokiena litzateke Elizak egindako inmatrikulazioak balio gabe geratzea, eta ondoren, prozesu bati ekitea kasuan kasu jabetza publikoa edo Elizarena den zehazteko.

ELIZAREN INMATRIKULAZIOAK DEBAGOIENEAN

Antzuola (6 ondasun): Bi eliza (1985) eta lau ermita (1985).

Aretxabaleta (16 ondasun): Bi ermita (1981), baratza bat (1981), bost eliza (1986), lau hilerrri (1986), bi ermita (1986), aretoa (1986) eta etxea (1989).

Arrasate (21 ondasun): Eliza (1983), bost eliza (1986), bederatzi lursail (1986), bi hilerrri (1986), etxea (1986), baratza (1986) eta bi ermita (1986).

Bergara (18 ondasun): Bi eliza (1981), plaza txikia (1981), etxea (1981), ermita (1981), bi lursail (1981), eliza (1986), ermita (1984), hilerrria (1984), eliza (1985), bi ermita (1985), eliza (1987), hiru ermita (1993) eta ermita (2007).

Elgeta (1 ondasun): Eliza (1983).

Eskoriatza (45 ondasun): Etxea (1981), bi eliza (1981), ermita (1981), etxea (1982), bi baratza (1982), etxea (1988), bi baratza (1982), plaza (1984), futbol zelaia (1984),

ermita (1984), bi lursail (1984), bost eliza (1986), bi etxe (1986), baratza (1986), bi lursail (1986), bost ermita (1986), bi hilerrri (1986), hiru baso (1986), eliza (1988) bi baratza (1988), bi etxe (1988), lursaila (1988), hilerrria (1988) eta hiru ermita (1988).

Leintz Gatzaga (4 ondasun): Eliza (1986), bi ermita (1986) eta santutegia (1986).

Oñati (21 ondasun): Lau eliza (1986), 11 ermita (1986) eta sei santutxo (1986).

Datorren astean hasiko dira Miguel Altuna eraikitzen

Gaur egun erdigunean dagoen Bergarako Lanbide Heziketako zentroa Candyren ondora pasako da



Obretan erabiliko dituzten etxetxoak jarrita daude. | UBANE MADERA

U.M. | BERGARA

Datorren astean hasiko dira Bergarako Miguel Altuna institutu berriaren eraikitze obrak. 9.700 metro karratutan bi eraikin egingo ditu Ferrovial Agroman enpresak; eta bi eraikinok zubi batez lotuko dituzte, gaur egun institutuak Bergara erdigunean dituen eraikinen moduan.

20 hilabete

Candy parean, Surraga azpian egokitutako dagoen orube batean jarri dituzte obrei dagozkien etxolatxoak; hain zuzen ere, Artabla inguruko orube hori 2008az geroztik dago urbanizatuta proiektu horretarako.

Institutu berriari dagozkien obrak 7,3 milioi euroko aurrekontuarekin egingo dituzte eta 20 hilabete izango dituzte lanak bukatzeko.

Ezezagunen proposamenik ez onartzeko gomendioa

GOIATZ ARANA | DEBAGOIENA

Sare sozialetan zabaldu zen, atzo arratsaldean —eguna—, Bergaran, haur bat "bahitzen" ahalegindu direla.

Bada Ertzaintzari galdetuta, azaldu dute ustezko biktimaren gurasoak ertzain etxera joan zirela esanez gizonezko ezezagun bat gerturatu zitzaioela euren 10 urteko semeari, berarekin joan nahi zuen galdezka.

Hori horrela, Ertzaintzatik adierazi dute, datu horiekin, esan dezaketela "gonbidapen" bat egon dela, baina ez "bahiketara ahalegin" bat.

Poliziak Goienari emandako informazioaren arabera, Bergarako Ibargarai kalean izan zen gertaera, eta "haurra kale horretan dagoen ingeles akademia batera sartu zen, ezezagunak esandakoarekin beldurtuta".

Salaketa barik

Era berean, poliziak jakinarazi du salaketarik ez dagoela; hori bai, edozein kasutan, Ertzaintzak gomendatu du ezezagunen proposamenik ez onartzeko mezua helarazteko adin txikikoei.

Aritz Kanpandegi | Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegiko kidea

"Kapitalismoaren testuinguruan, bada ekonomia soziala lantzeko markoa"

- ▶ Prestakuntza eskainiko diete debagoiendarrei
- ▶ Enpresa-proiektu berriak garatzea da helburua

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Garapen ekonomikoa eta justizia soziala bateragarri egiten dituzten proiektuak sortzen laguntzeko helburua du *Berrekín. Berregín* programak. Ekintzailetasun soziala sustatzeko formazioa eskainiko dute zentzu horretan, eta enpresa ideia berrien sorrera eta garapena landuko dute bertan, Aritz Kanpandegi (Hondarribia, 1980) Lanki kidea esplikaturako moduan. Bergarako Udalak eta MUko Lanki ikertegiak antolatuta dute, Olatukoop eta Bagararen lankidetzarekin eta Diputazioaren Ikasmina programak finantzatuta.

Ekonomia soziala landu eta bultzatu gura duzue; zehazki, zelako proiektuak txertatzen dira marko horretan? Eskualdean baditugu kooperatibak hamarkadak daramatzatela garapen ekonomikoa balio demokratikoekin lotzen eta gure erreferente naturalak dira kooperatiba hauek: gizarte eraldaketa proiektu bat abian jartzeko bokazioz sortu ziren, demokrazia ekonomikoa praktikan jartzen dute

eta lankidetzaren balioan oinarritutako proiektu sozio-enpresarialak dira. Ikusten duguna da gizartean hasi direla beste premia batzuk ere markatzen (erronka energetiko-ambientala adibidez) eta badagoela beste molde bateko ekonomia soziala martxan jartzeko aukera. Inguruan gazte asko ikusten ditugu gizarte justuago eta ekonomia humanoago batekin amets egin eta hori errealtate bihurtzeko prest.

Hori bateragarria da kapitalismoarekin? Eta bideragarri ekonomikoki? Kapitalismoan bizi gara, baina aukera dago merkatu logikak aztertzeke beste irizpide batzuekin; kooperatiben modura: kapitalismoan bizi diren egiturak dira, baina demokrazia ekono-

mikoa praktikara eta egunerokotasunera ekartzen duten esperientziak dira. Bideragarritasunari dagokionez, berriz, eskatzen duguna da proiektu errentagarriak izatea, eta bideragarritasun ekonomikoa lantzen dugu. Motibazioa ere lantzen dugu, eta motibazio hori ez da bakarrik mozkinak lortzea, baizik eta behar sozial batzuk asetzerara doan ekonomia proiektuak sortzeko motibazioa ere bada.

lazko edizioan landutako adibiderik? Kolektiboki hainbat enpresa-idea berri sortu ziren eta hiru proiektu jarraitzen dute aurrera: 1) *Haurretik*, Francesco Tonucci-ren *haurren hiria*-ren paradigmaren oinarrituz, espazio publikoa haurren beharretara moldatzeko aholkularitza enpresa bat. 2) *Eguzkibegi*, Bergarako ondare kultural eta naturala balioan jartzeko ekimena; eta 3) *Iruten*, Bergara aniztasunetik elkarrekin eraikitzeke helburua duena, besteak beste ortu komunalak, jantoki sozialak, aholkularitza zerbitzua eta bigarren eskuko dendaren

"Ekonomia solidarioan, erronka energetiko-ambientalak ere baditugu"



Enparantza, Lafuente, Iruretagoiena eta Serrano. | MONDRAGON

Enpresa Osasungarri ziurtagiria Osarten enpresari

Arrasateko enpresa agiri hori jasotzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko lehena da

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA

Mondragon Korporazioko Prebentzio Zerbitzu Mankomunitateko Osartenek Enpresa Osasungarri ziurtagiria jaso du AENOR-enganetik. Ziurtagiri hori jasotzen duen Euskadiko lehen enpresa da.

Ziurtagiria eguaztenezan entregatu zuten, *Enpresa osasungarria* izeneko dibulgazio jardunaldi baten barruan, Osartenek instalazioetan, eta bertan parte hartu zuten, besteak beste, AENOR-eko Sanitateko gerente Marta Serranok,

batetik, eta Cristina Iruretagoienak eta Jose Luis Lafuente, bestetik, Osartenek medikuntza saileko zuzendaria eta zuzendari nagusia, hurrenez hurren.

Faktoreak lau multzotan

Osartenek, 2013an, langileen osasuna ebaluatzeko eta kudeatzeko berak sortutako metodologia garatu zuen. Enpresako estrategiarekin eta kudeaketa planekin uztartuta dago. Zerbitzu hori bezeroei aurkeztu aurretik, enpresan bertan proba pilotua egin zuen, eta, ondorioz, denboran iraun eta erakundeko ohiko kudeaketan integratutako Enpresa Osasungarri plana sortu zen, bertako langileen osasunaren gaineko begirada espezifikoa emanda. Ziurtagiria lortzeko, AENOR-en Enpresa Osasungarria ereduak dituen baldintzak bete behar dituzte enpresek eta laneko giroan eragina izan dezaketen arrisku faktoreak identifikatu, berauek kontrolatu, gutxitu eta ezabatzeke helburuarekin. Faktore hauek lau multzotan kokatzen dira: giro fisikoa, giro psikosoziala, osasun baliabideak eta enpresaren parte hartzea komunitatean.



Aritz Kanpandegi. | UBANE MADERA

bidez. Orain proiektu hauek garatzen dabilta. *Berrekín.Berregín* programaren barruan proiektu hauen garapena landuko da eta horretarako *coaching* modura adituak izango dituzte bidelagun, Olatukoop eta Bagaratik.

Prestakuntza baliagarria iragarri duzue...

Praktikara bideratutako formazioa izango da, lau espazio konbinatuta: 1- Hazitegia: motibazio pertsonaletatik eta eskualdeko beharretatik abiatuta, enpresa eredu berriak sortzeko. 2- Formazio teorikoa jasotzeko: ekintzailetasun sozialaren oinarriak, tokiko garapena, ekonomia soziala, parte-hartzearen paradigma, jasagarritasunaren erronka, gizarte kapitala... kontzeptuak

"Kooperatibek demokrazia ekonomikoa praktikara daramate"

garatzeko. 3- Ekintzailetasun sozialerako erremintak ezagutu eta praktikan jartzeko: bideragarritasun plana, *Design Thinking*-a, marketing-a, kudeaketa ekonomiko-finantzarioa... erreminta oinarritukoak dira, ekintzailetasun sozialaren beharretara eta prismetara moldatuta. Eta 4- Martxan dauden esperientzia arrakastatsuak bisitatu. Iaz 18 bisita izan ziren: Landare, Fiare, Goiener, Euskoa, Reas... Debagoiengan, Bagara, Ereindajan...

Prestakuntza zelan landuko da?

Eskolak Bergaran izango dira, 09:00etik 14:00etara, otsailaren 29tik maiatzaren 31ra. Astelehenera eguenera, formazio espazioak tartekatuko dira: formazio teorikorako aditua etorriko da, hurrengoan negozio ideiak sortzeko dinamika saioa egingo da, gero, bisita eta azkenik erreminta konkretu baten azalpena: branding-a, marketing-a... Eta barikuetan izango da bateratze saioa. Astero dinamika bera errepikatuko da. Irakasle batzuk unibertsitate esparrutik etorriko dira, baina izango ditugu ekonomia sozialetatik eta mugimendu sozialetatik datozenak ere, ezagutza teorikoa eta bizipen praktikoak ezagutzeko aukera eskainiko digute.

Zeinek eta zelan eman dezake izena?

Lanbide Heziketako goi mailakoendako eta unibertsitateko lizentziadunendako da, kontzeptu batzuek jakintza minimo bat eskatzen dute-eta. Izen-ematea *-berrekínberregín.com-* otsailaren 15ean bukatuko da eta onartutako zerrenda publiko egingo dugu otsailaren 19an. Doakoa da. Baina trukean auzolana eskatuko da. Herriz herri gabilta aurkezpenak egiten: otsailaren 1ean Arrasaten (Kulturate), 2an Aretxabaletan (Arkupe) eta 4an Oñatin (Udal Euskaltegian). 18:30ean.

Bideocurriculum lehiaketa, otsailaren 22ra arte

Nineu izena du eta hirugarren urtez antolatu du Debagoieneko Mankomunitateak

GOIATZ ARANA | DEBAGOIENA

Lana bilatzeko orduan curriculum izan ohi da aurkezpen karta, eta garrantzitsuenak, noski, jasotzen duen edukia izan arren, aurkezteko moduan ere informazio asko ematen du. Paperezko formatuan egindako curriculum bideocurriculumarekin laguntzea da aurkezpena erakargarriago egiteko moduetako bat, eta, aukera hori sustatzeko, hain justu, Nineu izeneko bideocurriculum lehiaketa jarri du martxan Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziak, hirugarren urtez.

16 urtetik gorakoak

Bi maila izango ditu lehiaketak: ikasleena eta langile edo langabeena. Eta 16 urte baino gehiago izatea da parte hartu ahal

izateko baldintza bakarra. Epaimahaiak, berriz, lau aspektu baloratuko ditu: sormena eta originaltasuna, edukia, IKTen erabilera eta komunikatzeko gaitasuna.

Aurreko edizioetan 20 lan aurkeztu zituzte, batez beste, eta kopuru hori gaitziteza espero dute oraingoan. Izan ere, ikastetxeekin izandako hartu-emanei esker, ikasgelan bertan landu dute askok gaia.

Bideocurriculumak otsailaren 22ra arte aurkez daitezke. Sariak, berriz, Goiaz izeneko Lanbide Heziketa azokan banatuko dituzte. Azoka hori martxoaren 15ean eta 16an egingo dute, Kulturaten. Informazio gehiago: *debagoiena.eus*; Facebooken: *Goiaz*; eta Twitterren: *@GoiazDebagoiena*.

ZABALIK

JASONE ZABALA
goiena.eus/komunitatea/



Titulu guztiak ez dira berdinak

Gaur egun asko kostatzen da titulu bat lortzea; modu askotako tituluak lor daitezke bizitzan zehar, baina denoi etortzen zaizkigunak ikasketei loturikoak dira, eta, *titulu* hitza entzuteko orduan, urte askotan zehar ikasten egindako ahaleginarekin lortutakoak dira; badira beste modu batekoak ere: idazleek beraien eleberrien azalerako pentsatu behar dituztenak; edo kazetariak egunkarietan, albistegietan... esaten dituztenak.

Titulu horietaz denok badakigu zerbait, egunerokotasunean agertzen dira eta denok erreparatzen ditugu; baina badago titulu bat, goian aipatutako guztien gaintetik dagoena eta gutxitan erreparatzen dioguna, ohikoa ez delako; bizitzaren edertasuna erakusten duena eta sentimenduetan zirrara sortzen duena, eta, bide batez, alaitasuna dakarrena.

Titulu honen protagonistei, askotan, nahiz eta jakin horren jabe direla, disfrutatzeko aukera gutxi uzten die bizitzak, eta ez pentsa gutxi ikasi dutenik bizitzan zehar esku artean duten altxor preziatua lortzeko... Gaztetasunean lortzen ez den *titulua* da: gutxi gorabehera, 80-90 urte inguruko pertsonen esku dago... Baina nola izan liteke titulu bat adin horrekin lortzea? Prozesu luze baten ondorioa delako: jaio, ama izan, amona bihurtu, eta azkenik birramona izatea lortzera arteko prozesua, alegia.

Bai, birramonaz hitz egiten ari naiz; lortzeko zaila, baina lortu eta gero izugarritzko poztasuna ematen duena, bai *titulu* hori esku artean duen pertsonarengan eta baita bere alboan daudenengan.

Nik ondo ezagutzen dut titulu horren jabea den pertsona bat, gertuko; bizitzan lan asko egindako emakume indartsua; bereztat poztasun dena guretzat poztasun bikoitza da, eta berea den *titulua*-ri izena ematea ahalbidetu duten bi pertsonatxo txikiak pozarren, bizitzan titulu guztiak ez baitira berdinak... Eskerrik asko, amama Asun.

Bizitzaren edertasuna erakusten du eta alaitasuna dakar

USTEAK USTE

JULEN IRIONDO | jiriondo@goiena.eus

Hondakinak direla eta

Gipuzkoako errefusarekin zer egin albiste den egunotan, abenduko kontuekin nator. Parisen isurketen murrizte adostea helburu zuen goi-bilera notizia zen egun beretan, jertse *inteligente* bati buruzko elkarrizketa entzun nuen irrartian –arropa gehiagoren beharrik baduen adierazten dio daramanari-. Muturreko adibidea izango da, baina zaila dirudi kontsumo eredu batzuk bultzatzen diren bitartean ekoizpen ereduak beste norabide baten joatea. Entzun nuen, baita ere, itsasoaren mailaren igoeratik desagertzeko aurreikuspena duen irlarena. Haiei ez die balio errefusarentzako ezin zabortegik, ezta beste edozein azpiegiturak. Beste zerbait pentsatu behar da.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Liskarbidearen zubia

Aritz Galarraga
http://goo.gl/placWZ

Hainbeste hitz egin da Donostia 2016 kultur hiriburutzaren hasiera ekitaldiko ikuskizunaz, eta hain gaizki, ezen, kontxo, integratzeko, nik ere ikustea beste erremediorik ez dudala izan. Noski, ikustaldia kasu honetan hasieratik zen tranpatia, banekielako dagoeneko ikusiko nuena ez zitzaidala gustatuko, edo ez zitzaidala gustatu behar behintzat, hain izan da ikuskizunaren inguruko iritzia kontrakoa. Perspektiba horretatik, "inaugurazio ekitaldi handia", "ekitaldi bakar eta paregabea", "ikusgarria izango den zeremonia" eta antzerako oharra, ETB2ko iruzkinlariek egindakoak [...] bada, irrigarri xamarrak suertatzen dira gaurko egunetik. Gauza batean asmatu zuten: "Donostiaren oroimenean geratuko da". Ez, agian, espero zuten bezala, baina tira, geratuko da.

[...] Tabakalerako VIP terrazako autoritate askok, ETBko kazetariaren arabera,

telebista bitartez jarraitu zuten, terrazak eskaintzen omen zuen ikusmira paregabea gutxietsita. [...] Eta ikuskizunarekin asko-asko gozatu ez bagenuen ere, autoritateen adierazpenak jaso ahal izan genituen behintzat: Urkullu lehendakariarenak, adibidez, gaztelaniaz eta Basque Country etengabe aipatzen; edota Espainiako Kultura ministroarenak, zeinak hitz egin zuen euskaraz beste inork –aurkezle, elkarrizketatu, Urkullu berak– baino gehiago. Halaxe pasa genuen *Bizikidetzaren zubia* ikuskizunaren telebista emanaldia. Bukatu eta liskarbidearena bilakatu zena. Gaurko egunetik, irrigarri xamarrak suertatzen dira halaber, azkenerako, halako ikuskizun baten aurrean, elkarbizitza, aniztasuna, elkarrizketa, multikulturalitatea, pluraltasuna, errespetua, tolerantzia eta emankizunaren errepikatu ziren hitz horiek guztiak. Eta galdera bat planteatu dezakegu, larunbateko ikuskizunaren inguruan pertinentea izan daitekeena, baina baita orokorrago ere, Donostia 2016 edo auskalo kultura beraren inguruan: hau dena zertarako? [...]

Paradoxak

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://goo.gl/ND33Z0

Wroclaw eta Donostia hiriak hasi berri dira 2016ko Europako Kultura Hiriburutza ospatzen. Wroclawiarrek Chillida-Lekuko 39 eskultuz ekin diote urteko egitarauari, gurean Chillida-Leku irekitzeko gauza izan ez garen artean. Paradoxa. Segurutzat zentzuzko hainbat arrazoi izango da paradoxa hau ulertarazteko baina, aitortu dezagun, lotsa sentitzeko ere ez da arrazoirik falta.

Jarri gaitetzen, bestela, edozein europar arrunt senean eta galdetu diezaiozun geure buruari: "Fidagarri edo sinesgarri al da, Europako Kultura Hiriburuarenak ospatzen ari den urte berean, Chillidaren museorik garrantzitsuenaren atean irekitzeko ere gai ez den hiria?".

[...] Chillida familiak lauzpabost eskaintza omen ditu mahai gainean, munduan zeharreko beste horrenbeste lekutara eramateko Zabalaga baserri inguruko museo osoa.

Ez nuke gaiztoegia izan nahi baina, nago, Zabalaga, Miramon inguruan egon beharrean, Artxandan-edo balego, ez lukeela luzaro itxita iraungo.

goiena⁴
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Maketazioa Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundinano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Difusioa: 18.507 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK / HANDIK ETA HEMENDIK

Kale garbiketaren
publifikazioa
Oñatin

Joseba Beñat Elortondo
(Oñatiko LAB)
Oñati

2015eko abenduaren 17an, Oñatiko Udalak, osoko bilkuran, onartu zuen 2016ko urriaren lehenetik aurrera Udalak bere gain hartuko duela kale garbiketa zerbitzua.

Udal Gobernuak FCCrekin zuen kontratua hautsi zuen, enpresa honek kontratuan jasotakoa ez zuela betetzen argudiatuta:

1. Lan tresnak hondatzen direnean ez dituztelako berehala konpontzen.
 2. Bajak, jaiegunak eta oporrak ez direlako ondo kubritu izan; egun askotan 4 edo 5 langile egon direlako soilik lanean, kontratuak 7 langile egon behar dutela dioenean.
 3. Lan antolakuntza penagarria delako.
- LAB sindikatua beti defendatu izan du Udalak zuzenean kudeatu beharko lukeela zerbitzua.

Gaur egun, FCCn 10 langile daude Oñatin lanean, hauetako zazpik egun osoko kontratuarekin lan egiten dute astean zehar eta beste hirurak, ordea, aste bukaeran eta oso baldintza prekarioetan daude lanean.

1. Astean 14 orduko lanaldi partzialez egiten dute lan.
2. Euren nomina hobetzeko, aste barruan zehar izaten diren *bajak* eta oporrak kubritzen dituzte eta, gainera, egun hauek kobratzeko arazoak edukitzen dituzte.
3. Lan karga astunegia dute.

FCCn bi langile mota daude: batzuk egun osoko lanarekin eta soldatarekin eta beste batzuk lanaldi partzialekin.

Udalak dio 10 lanpostu publiko aterako dituela, eta denak jardun osoan. Honek gaur egungo lan baldintzak hobetu beharko lituzke orokorrean eta zerbitzua bera ere hobetzea ekarri beharko luke.

Gure kezka nagusietako bat da FCCko langileak nola geratuko diren. Argi dago Udalak ezin dituela plantilan zuzenean sartu. Legez ezinezkoa izatea ez ezik,

zuzena ere ez litzateke izango lanpostu publikoetara oposiziorik gabe sartzera. Hala ere, gure ustez, Udalak ahalegin berezia egin beharko luke FCCko langileak prozesu honetatik kanpo ez geratzeko. Hau da, gure iritziz, Udalak kontuan izan beharko lituzke langile hauek guztiek kale garbiketara egin dituzten urte guztiak.

CUPeko emakumeek irainak eta arbuio matxistak salatu dituzte

Onintza Irureta Azkune
<http://goo.gl/wp2yBS>

Hainbat hedabidetan eta sare sozialetan haien ideologiak alboratu eta itxuragatik eta jantzeko moduagatik haien izenak zikindu dituztela adierazi dute.

Laidoak eta gutxiespenak Junts pel Si-rekin inbestidurarako izan dituzten negoziazio garaian gertatu

dira, CUPeko hainbat emakumek eremu publikoan indarra hartu dutenean. Urtarrilaren 27an, Bartzelonan egindako agerraldian CUPeko militanteek adierazi zuten irainen eta gutxiespen matxisten helburua haien izenak zikintzea eta baliogabetzea zela, "eraso nazkagarri, matxista eta bortitz baten" testuinguruan. Alabaina, azaldu zuten, "bat erasotzen dutenean denok erasotzen gaituzte, eta erasotzaileen aurkako bumeran efektua eragin dezake".

Agerraldi publikoan militante bakoitzak berari esandako irainak azaldu zituen:

"Gabriela Serra naiz, eta zaharra, zatarra eta gizena naiz, baina 64 urteetara borrokatzen iritsi naizelako epaitzea nahiko nuke". Irainak ez dituzte anonimoengandik jaso. "Zatar amorratua" Barça futbol taldeko Alfons Godall presidenteorde ohiak deitu zion.

"Anna Gabriel naiz, traidore puta bat, ozipindua eta larrua gaizki jotakoa naiz, eta egin dudana gauza bakarra Herrialde Katalan askeak, sozialistak eta feministak

defendatzea izan da". "Traidore puta" Joan Guirado kazetari, sindikalista eta idazleak deitu zion txio bidez. Sindikalista gisa dimititu egin du.

"Mireia Boya naiz, eta zakur sarnaduna naizela esan didate lurraldea defendatzeagatik eta erakundeetan okzitanieraz hitz egiteagatik".

"Eulalia Reguant naiz, eta atzeratua, tuntuna eta ergela naiz, osasun sistema ehuneko ehun publikoa eta kalitatezko hezkuntza defendatzeagatik".

"Mireia Vehi naiz, eta nik oraindik ez dut ezer jaso, baina giza eskubideen urraketak salatzeagatik epaitzea nahiko nuke eta ez nire galtzen neurriagatik".

Ciudadans alderdi politikoko lider Ines Arrimadasi esandakoak ere salatu zituzten agerraldian: "Arrimadasi egindako deskalifikazioak ere emakumeen aurkako erasoak dira".

CUPeko ordezkariak ez dute epaitegietara joko, ez baitute konfiantzarik justiziaren sentsibilitate feminista urrian. Otsailaren 11n beste ekintza bat antolatuko dute Bartzelonan.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otolara Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Rosa Sarabia | Medikuntzan eta Kirurgian lizentziaduna

"Pronokalek pisu galera bizkorra eta epe luzekoa bermatzen du"

Obesitateari aurre egiteko merkatuan dagoen irtenbide mediko eraginkor eta seguru batean espezialista da Arrasateko Udalaiz Zentro Medikoan kontsulta duen Rosa Sarabia doktorea: Pronokal –PnK–

Gehiegizko pisua eta obesitatea ez direla gauza bera jakinekoda; baina noiz bilakatzzen da arazo gehiegizko pisu hori?

Gehiegizko pisua beti da osasun-arazo, bereziki koipea sabaldean pilatzen bada. Gorputz masaren indizea 25 baino handiagoa bada, zerbait egiten hasi beharra dago. Eta ez dugu ahaztu behar sabalaldeko koipea lotuta dagoela arrisku kardiobaskularrekin.

Urte batzuk badaramatzazue Pronokal –PnK– tratamendua aplikatzen halako kasuetan; benetan da horren eraginkorra? Zergatik?

Bai. Urteotako emaitzek eraginkortasun hori berretsi dute, eta, gainera, pisu galera hori epe luzean mantentzen dela erakutsi dute. Izan ere, medikalizatutako metodo pertsonalizatua da Pronokal. Proteina oinarri duen dieta bat, hain justu, koipeak eta azukrea murriztu egiten ditugu, baina, gorputzeko masa muskularra gal ez dadin, proteina nahikoak mantentzen ditugu. Gainera, segituan hasten da pisu galera antzematen.

Edozeinek erabil dezake PnK?

Pisua galtzeko beharra duen edozeinek erabil dezake, bai, eta, bereziki, gizentasun maila altua dutenek eta pisua galtzeaz gainera horri lotutako patologiak hobetu nahi dituztenek: bigarren

mailako diabetesa, arterietako hipertentsioa, kolesterola... betiere, protokoloaren deskribapenean kontraindikaziorik ez dutenek, jakina.

Pronokal zertan desberdintzen da bestelako dieta edo tratamenduekiko?

Desberdintasun nagusia da egiten den mediku kontrola, paziente bakoitzaren segurtasuna eta osasun egoera ona bermatzeko. Hori lortzeko, beti, mediku analisian eta pazienteen azterketa fisikoan oinarritzen gara. Etengabeko jarraipena egiten diogu, eta, pazientearen dietan gabeziarik egon ez dadin, beharrezko osagaiak errezetatzen dizkiogu. Horrez gainera, Pronokalen bitartez lortzen den pisu galera beste edozein dietarekin baino askoz bizkorrago gertatzen da, eta, esan bezala, lortutako pisu galera hori epe luzera ere mantendu egiten da. Are gehiago, nire lanbideak eman dizkidan poztasunik handienak proteina oinarri duen dieta honek eman dizkit. Metodo horri esker 80, 40, 20 kilo... galdu dituzten pazienteak ikusteak, insulina injektatzeari utzi diotela ikusteak edo metodo horri

"Pisua bizkor galdu eta mantentzen da epe luzera"



Rosa Sarabia doktorea kontsultan.

esker gazteek hondartzara joateari, dantza egiteari berrirori ekin diotela ikusteak profesionalki bete eta konpentsatu egiten nau. **Zu zeu Pronokal tratamenduan espezialista izateaz gainera, beste mediku batzuk ere hezten dituzu tratamendu horren baitan; zer dela eta?**

Mediku batek Pronokal metodoa errezetzeko oso ikastaro zehatza egin beharra dauka. Eta, neurre kasuan, oso harro nago nire

lagun eta lankide diren medikuei pisua galtzeko aparteko tresna bat emateaz.

Non eskura daiteke Pronokalen erabileraren gaineko aholkularitza? Sarabia klinikak lehen kontsul-

ta doan eskaintzen du. Eta, gainera, oso modu pertsonalizatuan. Izan ere, gure klinikan ez dugu obesitatea bera lantzen, baizik eta obesitatea duen pertsonarekin egiten dugu lan, badakigulako daudela obesitatea duten pazienteak bezain beste obesitate mota. Eta badakigu, baita ere, emozioek zeresan handia dutela elikagaiekiko dugun portaeran edo jarrean. Horregatik esan ohi dugu: "Emozioak jan egiten ditugu".

"Facebooken ere informazio eguneratua ematen dugu"

Arrasaten

Benetan **pisua galdu** nahi duzu?

Esan baietz betiko



Rosa Sarabia doktorea

Pronokal[®] metodoa

Zientzia eta zorrotasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gose gabezia

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA
BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastikoa

HERRIAK

ARETXABALETA

Agustindar elkartearen eraikina eta lurrak, aretxabaletarrendako

- Atzo sinatu zuen salerosketa Udalak eta balioaren %40 dohaintzan eman dute mojek
- Udal ordezkariak ez dute erabaki zer egingo duten han; oraingoz, lorategia zabaldu

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Errenterian bizi dira azaroaz geroztik Aretxabaletako agustindar elkarteko bost kideak. Eta atzo, urtarrilak 28, bisitan izan ziren elkarteko buru Nekane Aginagalde eta Arantxa Jaka. Udalarekin akordioa lortu ondoren salerosketa sinatzera etorri ziren, eta, bidez batez, azken agurra esatera.

Hiru baldintza bete behar

Irailean iragarri zuten mojek Aretxabaletatik alde egingo zutela, eta herritarrek urriaren 25ean agurtu zituzten. Ordutik hona negoziazioetan ibili dira Udalarekin eraikinaren kontura, herriaren erdi-erdian egonda eraikin ezin "gozoagoa" delako. Atzo sinatu zuten salerosketa, eta Unai Elkoro alkatea oso pozik agertu da: "Guk proposatutako kopurua baino gutxiago ordainduko dugu, %40 dohaintzan ematea erabaki dutelako". Elkarteak 1.100.000 euroko balioa eman die eraikinari eta inguruko lursaili, eta dohaintzari esker 660.000 euro ordainduko ditu Udalak, zazpi urtetan banatuta.

Hori sinatzeko, baina, hiru baldintza jarri dizkiete agustindarrek: lursaila eta eraikina banatzea, hau da, bi zati ezberdin lez hartzea; dohaintzan emandakoak beti erabilpen publikoa izatea; eta inoiz ez eraikitzea orain eraikitakoa baino gehiago. Azken hori gertatuz gero agustindarrendako izango litzateke berriro eraikina. "Ez dago inolako eragozpenik horiek betetzeko, batetik, gure asmoa %100 publikoa izatea delako, eta bestetik, espekulatzerik ez dugulako gura geuk ere", jakinarazi du Elkoro.

Aurrera begira zer

Lursailak 2.900 metro karratu inguru ditu eta eraikinak ia 2.000 hiru solairutan banatuta. Udalak oraindik ez dauka erabakita zer egingo duen han: "Batzuek galdetu didate: 'Zertarako erosi zer egin jakin barik?'. Hemengo elkar- tea desegin egingo da orain, eta gero hauen gainera daudenekin negoziatu beharko genuke. Eta hori beste kontu bat izango da...", argitu du alkateak.

Herrian hainbat eraikin dau- de hutsik; Errekabarren kalean agustindar komentutik pauso batera dagoen zaharren egoitza izandako etxea, esaterako. Eta azterketa sakona egiteko asmoa dute: "Udaletxearekin ere zerbait pentsatu beharrean gaude... Agin- taldi honetan ez da egongo inber- tsio handitarako dirurik, baina aurrera begirako plana egitea da asmoa, eraikin bakoitzean zer jarri adostuz gero poliki-poliki egokitzen joateko".

Bien bitartean, lorategia zabaltzeko asmoa dauka Elkoro, herritarrek "hurbiletik ezagutu" eta "goza" dezaten. Eliza ere laster zabal dezaketela adierazi du: "Ekitaldietarako aproposa da lekua, eta, segurtasun neurriak betez gero, han egin daitezke".

Agustindarren azken agurra

Aretxabaletan ia 112 urte egin dituen agustindarren elkarteak herriari ondarea utzita esan dio azken agurra: "Asmoa zen gure presentziaren seinale bat, ukitu bat, uztea hainbeste urteren ostean, eta dohaintza egitea erabaki du elkarteak", adierazi du Arantxa Jaka kideak, eta gaineratu du: "Herriarengandik asko jaso dugu, herriaren erdian sentitu gara, eta guretako hainbeste



Unai Elkoro alkatea eta agustindar elkarteko buru Nekane Aginagalde salerosketa dokumentuarekin. | JAGOBA DOMINGO

urtetan leku berezia izan den egoitza, orain, leku berezia izan dadila hainbeste eman digun eta hainbeste maitatu izan dugun herriarentzat".

Badakite, gainera, barruan zer dagoen jakiteko gogoz dueda aretxabaletarrak: "Lorategiko atea zabaltzen genuen bakoitzean, parean pasatzen zirenak segituan hurbiltzen ziren begiratzen... Eta beti ikusi dute leku zoragarria. Ba, leku zoragarri hori eurendako izan dadila".

Agustindarrendako ez zen samurra izan Aretxabaletatik Errenteriarra joateko erabakia hartzea. Eta bizitzaren urte erdiak baino gehiago Aretxabaletan pasatu ondoren, nekez ahaztuko dituzte bertan bizitakoak. Orain, "pozik" doaz, ondarea herriari utzita.



Aginagalde eta Elkoro komentuar duen lorategian, eguenean. | J.D.

DATUA

660.000
EURO

Udalak 660.000 euro ordainduko ditu, haren balio osoa 1.100.000 euro izan arren.

ESANAK

"Gure ondarea utzi gura izan diogu herriari dohaintzarekin"

ARANTXA JAKA | AGUSTINDAR MOJA

"Ekitaldietarako oso aproposa da eliza eta laster zabalduko dugu"

UNAI ELKORO | ALKATEA

Ia 112 urte ostean agur Aretxabaletari

Aretxabaletatik ez ezik Debagoienetik ere joan da agustindarren elkarte. Lehenengo Arrasaten egin zituzten ia 400 urte eta hango monasterioa egoera txarrean geratu zenean Aretxabaletara joan ziren bizileku bila; 1904ko otsailaren 4a zen.

Errekabarren kalean kokatutako bainuetxea erosi zuten, eta konpondu ostean han sartu ziren. Egun erretiratuaren elkartearen egoitza dagoen lekuan egon zen monasterioa, eta orain dela 37 urte eraiki zuten gaur egungo egoitza. Ia 50 urtean eman zituzten eskolak eta 2004an itxi zituzten horien ateak. Elkarteko kideen kopuruak behera egin du azken urteotan —bost geratu arte— eta gora adinean; horregatik, Errenterikoekin elkartearen erabaki zuten ia.

Kiroldegiko bazkideen eta ikastaroetako partaideen kopuruak gora egin du

Kirol zerbitzuaren eta instalazioen kalitatea hobetzea izango da aurrera begirako Udalaren helburu nagusia

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Kiroldegiko erabiltzaileen eta zerbitzuaren 2015eko balorazioaren berri eman du asteon Udalak. Azaldu dutenez, abonatu eta ikastaroetako parte hartzaileen kopuruak gora egin zuen iaz. Aurtengo ikasturte hasieran, iazkoan baino 250 lagun gehiago daude izenpetuta eta gaur egun 4.950 bazkide ditu kiroldegia. Ikastaroetako dagokien, partaide kopuruak ere gora egin du; 810 pertsonak hartu dute parte kirol zerbitzuek antolatutako ikastaroetan, iaz garai honetan baino 120 pertsona gehiagok, eta spinning jarduerak jarraitzen du ikastarorik arrakastatsuen izaten.

Datu horiek guztiak aintzat hartuta balorazio positiboa egin du Udalak, eta, aurrera begira, kirol zerbitzuaren eta instalazioen kalitatea hobetzea izango da Udalaren helburu nagusia.

Bestalde, 2016ko ikasturtean ikastaro berri ugari eskainiko dira. Horien artean bi nabarmendu ditu Udaleko Kirol Zerbitzuak: krosfit eta matrogym; azken hori haurdun daudenendako uretako gimnasia ariketak dira. Bestalde, hilabeteko abonua modalitatea sortu da eta maiatzera bitarte, berriro ere, bazkide direnek kirol aholkulari baten zerbitzuak jaso ahal izango dituzte, doan, kiroldegiko gimnasioan.

Kuota bera arrasatearrentzat
Udalak aditzera eman duenez, Debagoieneko Kirol Txartela kendu dute zenbait herritan abonua



Musakolako kiroldegiko sarrera, artxiboko argazki baten. | JOKIN BEREZIARTUA

aldaketak izan direlako. Eta, balarako beste herriek duten irizpideari eutsiz, Arrasaten erroldatuta ez daudenek %20 gehiago

DATUA
4.950
BAZKIDE DITU KIROLDEGIAK

Udalaren arabera, Musakolako kiroldegia 4.950 bazkide ditu gaur egun, iaz garai honetan baino 250 bazkide gehiago.

ordaindu beharko dute kiroldegiko kuotan: "Bertakoei lehentasuna ematea da helburua, arrasatearrak direlako eta euren zergen bidez kirol instalazioak eta horien mantenua ordaintzen dituztelako". Beraz, arrasatearrentzat, azken urteetako prezio bera izango dute abonuek.

Amaitzeko, hobariak mantenduko dira ikasle arrasatearrendako eta diru sarrera baxuak dituzten herritarrendako; horiek bete beharreko baldintzen berri jasotzeko, kiroldegiko harreraren galdetu edo 943 77 16 77 telefono zenbakira deitu.



Parrokian elkartuko dira, goizeko zortzietan. | GOIENA

Ohitura zaharrari eutsiz, behartsuenei laguntzera

Otsailaren 4ko Santa Ageda batzea prestatzeko, astelehenean bilera egingo dute EAren egoitzan

J.B. | ARRASATE

Adinean aurrera egin arren ezta ezta sano dabilela erakutsiko du, beste behin, Santa Ageda koruak otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan. Ohitura zaharrari eusteko ordua heldu da, eta abesbatzako arduradunek egin diete deialdia kantari, poltsero eta laguntzaileei eguna antolatzeko batzarreko; otsailaren 1ean Amaiur elkartean -Eusko Alkartasunaren egoitzan- elkartuko dira, 21:00etan.

Urteroko plan berbera

San Juan Bataiatzailearen parrokian elkartuko dira, 08:00etako mezan. Ondoren, ohiko talde argazkia atera eta bi taldetan banatuko dira: batzuek Bedoña aldera egingo dute eta besteek Musakolara. Eguerdian, 14:00 aldera, udaletxeko eskaileretan abestuko dute, eta, udaletxeko emanaldiaren ostean, Leize elkartean bazkalduko dute. Arratsaldean ere kantuan aritu ostean, Herriko Plazan borobilduko dute eguna, 21:00etan. Egun berezia izaten da Santa Ageda abesbatzakoendako: "Luze egiten da, baina egun ederra da

guretako. Hori bai, jende gaztea falta zaigu", adierazi dute.

Behartsuenei laguntza

Ohitura zaharrari eustez gain, eguneko helburu nagusia da behartsuenei laguntzea, Caritasen bidez. Iaz 4.719 euro bildu ziren eta honela banatu zuen Caritasen: seme-alabak dituzten familia langabeei 2.000 euro, etxe-alokairuen laguntzarako 1.519 euro eta eskola jangeletarako 1.200 euro. Denda eta enpresei begira honako kontu korronte zenbaki hau dute: 2095 5055 56 1066568303 (Kutxabank). Honako hau gaineratu dute: "Zuen laguntza dagoen artean guk jarraituko dugu lanean".

DATUA
4.719
EURO EMAN ZIOTEN IAZ CARITASI

2.000 euro lanik ez duten familiei, 1.200 euro eskola jangelei eta 1.519 euro etxe alokairuei, hain zuzen.

Musikenetik ikasi, musika eskola berria eraikitzeko

Udaleko, Arrasate Musikaleko eta Goikobaluko ordezkariak Euskal Herriko Goi Mailako musika ikastegia bisitatu zuten hilaren 22an: Musikene. Aprendices eraikina Musika Eskola bihurtzeko asmoaren barruan, gai teknikoaren gainean egin zuten berba: aspektu teknikoak, materialak eta isolamendua aztertu zituzten.



ARRASATEKO UDALA

Herri Batzarra deitu du EH Bilduk otsailaren 3rako, Kulturategi gelan, 18:30ean hasita

EH Bilduk Herri Batzarra egingo du otsailaren 3an Kulturategi gelan, 18:30ean. Honako egiteko hauek izango dituzte mahai gainean: hauteskunde eta EH Bilduren lanaren balorazioa osatzea, Arrasateren eta EH Bilduren lanerako lehentasunak adostea, EAJk eta PSE-EEk onartutako garbiketa ordenantza aztertzea -"Mozal lege municipala" deitzen diotena- eta Epeleko zabortegia Gipuzkoako errefusaren zabortegia bilakatzeko dagoen arriskuaren gaineko informazioa ematea.

Zuzendaritza taldea aldatuko du San Felipe Apostol elkartek domekako batzarrean, Kulturaten, 12:15ean

San Felipe Apostol Elkarlaguntzarako Elkartek batzar nagusia egingo du domekan Kulturategi areto nagusian (12:15). Urteko alden eta baje eta diru kontuen berri ematez gain, zuzendaritza taldea aldatu egingo da: Antonio Murillo presidenteordearen lekua Isabel Manganak hartuko du. Bokaletan, Jon Arsuagaren ordez Olatz Arkauz sartuko da; Eduardo Celeminen ordez Juan Ignacio Gruzeta eta Alberto Laskurainen ordez, azkenik, Felisa Biteri. Joxe Elortzak segituko du idazkari, azken 30 urteetan legez.

Rafa Ugarte | Ingurumen Saileko teknikariburua

"Obrek eta zirkulazioak eragin zuzena dute airearen kalitatean"

Duela hamarkada bat alarmak piztu ziren, herri barruko zein kanpoko lanek eraginda; 2010ean Olandixoko tunela irekitzeak hobekuntza ekarri du

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasatearrek arnasten duten airearen kalitatea ona da; hala berretsi du Udaleko Ingurumen Saileko teknikariburua Rafa Ugarte. Laubide plazan dago gaur egun neurgailua; funtzionamenduaz eta orain dela hamarkada inguru izandako arazoez dihar du Ugarte.

Hasteko: nolako da arnasten dugun airearen kalitatea?

Azken urteetako neurketen arabera, esan daiteke ona dela.

Nola neurtzen da airearen kalitatea?

Hemen [Laubide plazan] duguna Jaurlaritzako airearen kalitatea neurtzeko kabina bat da, duela 20 bat urte jarri zena. Hemen barruan dauden aparailuek airea xurgatzen dute, iragazki batzuetatik pasatu ostean. Parametro ezberdinen arabera neurtzen da, teknika ezberdinak erabilita, eta parametro horiek esango digute zenbatekoa den airean dagoen kutsadura. Eta horren arabera zehazten da muga batzuk gainditzen diren edo ez.

Zeintzuk dira kontuan hartzen diren parametro nagusiak?

Azken boladan neurtzen direnak dira karbono monoxidoa, karbono dioxidoa, nitrogenoa eta partikulak; PM10 izenekoak, bereziki.

PM10 partikulek eragiten dute buruhauste handiena, ezta?

Azken boladan ez du arazorik eman, baina duela ez asko eman zituen arazoak, 2003an, 2006an eta 2007an. Urte haietan, legeak ezarritako parametroak gainditu ziren; ikerketa bat egin zen zehazteko non egon zitekeen arazoaren jatorria eta ondorioztatu zen partikula horiek inguruko jardure-



Rafa Ugarte, Laubide plazako neurgailua atzean duela. | JOKIN BEREZIARTUA

"2003an, 2006an eta 2007an, legeak ezarritako mugak gainditu ziren"

tatik zetozela, baina zirkulazioak ere eragin zuzena zuela.

Eta zeintzuk ziren jarduera horiek? Batetik, herri barruan egin ziren obrek kutsadura handitu zuten, eta sasoi hartan makina bat izan ziren. Bestalde, Mendebaldeko sailhesbidea [Olandixoko tunela] ere ezin da ahaztu; 2010ean ireki zen eta ordutik hobekuntza igarri da airearen kalitatean.

Laubideko neurgailuak uanean uneko datuak ematen ditu, maiz eguneratzen dira. Zergatik?

Eusko Jaurlaritzaren webgune

baten eguneko datuak kontsulta daitezke. Hori bai, datu horiek okerrak izan daitezke, eta, horregatik, Eusko Jaurlaritzak gainbegiratu egiten ditu urte amaieran baleko moduan hartzeko.

Eta Udaleko Ingurumen Sailetik nolako jarraipena egiten diozue?

2003an, 2006an eta 2007an, alarmak piztu ziren urteetan, jarraipen zehatza egin genuen gure kabuz eta neurriak ere hartu genituen bere garaian. Gaur egun ere egiten dugu jarraipena eta urte amaieran txostena aurkezten dugu Udaleko Ingurumen batzordean. Orain, baina, ez dago larritzeko arrazoirik. Astelehenean bertan jaso genituen 2015eko datu guztiak, eta Arrasateko airearen kalitatea ona da. Hori bai, gai hauetan ez dago erlaxatzerik, kontrolerako baliabideak mantendu egin behar dira.



Txakurrak solte eramateko hiru guneetako bat, ospitale atzean. | UDALA

Txakur jabeak kontzientziazeko lanean jarraituko du Udalak, helburuak bete arte

J.B. | ARRASATE

Udalak duela lau hilabete abiatu zuen txakur jabeak kontzientziazeko kanpaina: "Gure helburua da txakur guztiak lotuta joatea eta txakur kakarik ez egotea, eta argi dago hori ez dugula bete. Hala ere, gure sentsazioa da kalean gero eta txakur gehiago lotuta doazela eta kaka gutxiago dagoela. Egingdako esfortzua eskertu gura diet jabe horiei, horrela jarrai dezatela; gainerakoei gogoratu nahi diet herria guztiona dela eta arauak errespetatu ditzatela", dio Obrak, Zerbitzua, Mantenua

eta Auzoak batzordeko ardura-dun Oscar Garciak.

Oraingo, isunik ez

Txakurrak solte eramane edo kakak ez jasotzearen ez da isunik jarri; txakurrak ihes egin izanagatik edota kontrol gabe izateagatik sei zigor espediente ireki dira. Kanpainak ez du amaiera datarik. "Jabeek kontzientzia hartzea da helburua, behin betiko. Horretarako jarraituko dugu lanean", dio Garciak. Bestalde, txakurrak solte eramateko beste hiru gune irekitzea aurreikusten dute.

Arrasaten bizi diren oñatiarrak martxoaren 5ean elkartuko dira: "Eman izena lehenbailehen", diote

200 oñatiar inguru bizi dira Arrasaten, eta, azken urteetako ohiturari eutsiz, aurten ere elkartuko dira. Martxoaren 5erako egin dute hitzordua; Ederra tabernan elkartuko dira, 13:30ean, eta 14:00etan talde argazkia aterako dute Herriko Plazan. Bazkaria Aldape (Batzokia) jatetxean egingo dute, 14:30ean, eta gero, DJ batek girotuko du bazkalostea. "Parte hartu gura duenak eman dezala izena lehenbailehen", adierazi dute. Interesatuak Ederra tabernan eman beharko dute izena.



Iazko ospakizunean ateratako talde argazkia. | ANTONIO MURILLO

Martxoaren 8ko kartel lehiaketan parte hartzeko azken eguna otsailaren 19a izango da

Emakume Txokoak eman du Martxoaren 8ari begira antolatutako kartel lehiaketako oinarrien berri. Angela Davis aktibista eta idazle estatubatuarra aukeratu dute aurten gai bezala: "Feminismo beltzaren erreferente nagusienetakoa den Angela Davis-en figura nabarmendu nahi izan dugu aurten", diote. Kartelak *Martxoak 8* testua izan beharko du eta otsailaren 19a baino lehen entregatu beharko dira lanak, BAZen. Saria 450 euro da.

Balkoietan eta fatxadetan antena parabolikoak jartzea debekatuta dagoela gogora ekarri du Udalak

Udalaren arabera, ugaltu egin dira azken urteetan balkoietan eta fatxadetan jarritako antena parabolikoak. Telekomunikazioen legediaren eta Hiri Antolamenduaren Plan Orokorren (HAPO) arabera, antena parabolikoak jar daitezke, bakarrik, eraikinen estalkietan edo teilatuetan. Udalaren baimena behar da, gainera: "Herriarrei dei egiten diegu antenak jarri aurretik baimena eska dezaten eta, era berean, ez dezaten balkoietan eta leihoetan jarri".

Asfaltatze planean 15 gune aurreikusten dira aurten



Gipuzkoa etorbideko asfaltatze lanak, eguzten eguerdian. | JOKIN BEREZIARTUA

J.B. | ARRASATE

Udalak joan den asten ekin zion 2016ko asfaltatze planari. Lehen-tasunen arabera zehaztuta, 15 gune asfaltatuko dira aurten; batzuk gauzatu dira eta beste batzuk datozen egunotan gauzatu nahi ditu Udalak, betiere, eguraldiak uzten badu. Honako hauek dira aurten lehenetsitako guneak: Eroskiko biribilgunea, Gelma, Kontzezino kaleko biribilgunea, Kataide industrialdea, San Andres kaleko pabiloietarako sarbidea, Hondarribia kalea, Obenerreka kalea, Zarugade kalea, Udalpe kalea, Azeri kalea, Gipuzkoa etorbideko gasolindegia, Bidekurtzeta ingurua -argazkian-, Erguin-Uriburu, Antso Abarka kalea eta Anboto kalea.

Yarritu enpresari esleitu zaizkio lanak eta 205.000 euroko kostua izango dute. Guztira, 12.400 metro koadro asfaltatuko dira.

San Baleixo jaiak ospatuko dituzte asteburuan Meatzerrekan

Gaurko mus txapelketarako izena eman behar da elkarteetan, 18:30etik 22:30era

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Gaur hasi eta domekara bitartean San Baleixo jaiak ospatuko dituzte Meatzerrekan: "Egitarauan ez dago nobedade handirik. Mus txapelketa izaten da jende gehien erakarri ohi duen ekintza, baina adin guztiendako egitaraua dugu aurten ere", adierazi du auzoko alkate Inazio Zuazubiskarrek. Izan ere, aurten 35 urte beteko dituen mus txapelketan 30 bat bikote izan ohi dira; zortzi erregetara jokatzeko da, bikoteko 30 euro ordaindu behar da eta elkarteetan eman behar da izena gaur bertan, 18:30etik 22:30era (943 79 97 37).

Hitzaldirik ere ez da faltako: Iraganeko Oinatzak taldeko Ugutz Basauri geologoak hitzaldia eskainiko du, Arantza Otaduirekin batera: "Gure paisaiaren jatorriaz eta garapenez izugarri ikasiko duzue Meatzerrekarekin", diote.

Gorriti eta Lore Gazteak

Umeek ere ez dute aspertzeko astirik izango, bereziki bihar. Izan ere, urtero moduan, Gorritiren animaliekin jolasteko aukera izango dute, txokolate-jan eta guzti. Jaiak borobiltzeko, Lore Gazteak taldeak ohiko emanaldia eskainiko du domekan.

SAN BALEIXO EGITARAUA

EGUBAKOITZA 29

18:00 Jaiei hasiera emateko, suziri jaurtiketa.

19:00 Meatzerrekarekin harritzen hitzaldia.

22:30 35. Mus Txapelketa.

ZAPATUA 30

16:00 Umeendako jolasak.

17:00 Gorriti eta bere animaliak. Ondoren, txokolate-jana.

21:00 Auzotarrendako afaria.

23:30 Erromeria Orots taldearekin.

DOMEKA 31

11:00 San Baleixo ermitan meza, Gesalibarko eta Garagartzako abesbatzekin.

11:30 Lore Gazteak taldearen dantza emanaldia.



Mus txapelketak harrera ona izan ohi du; irudian, 2013ko jaietakoa. | UBANE MADERA



ARRASATEKO UDALA

Harresia gogoratzeko eskultura

Herriko "ondarea balioan jartzeko" asmoz, Udalak eskultura bat jarriko du Portaloian, garai bateko harresia gogoratzeko. Iñigo Arregi eskultore ezagunaren obra da, *Harresi ezkutua*. 5 metro luze eta 1,9 metro garai izango da, herdoildua eta patinatua. Eskulturaren kostua 10.850 euro da –BEZa kontuan hartu barik–.

Argentinako euskal diasporaren gaineko hitzaldia gaur Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:30ean

Alkartasuna Fundazioak antolatuta, *Argentinako euskal diaspora. Jatorria, bilakaera eta gaurkotasuna* izeneko hitzaldia eskainiko du gaur Cesar Arrondo adituak Kulturateko Jokin Zaitegi gelan (18:30). Argentinako La Plata hiriko unibertsitateko Historia irakaslea da Arrondo eta Argentinako Alkartasuna Fundazioaren ordezkari moduan ere etorriko da Arrasatera. Beraz, Arrondok ondo baino hobeto ezagutzen ditu Euskal Herria eta Argentinako euskal komunitatearen ezaugarriak.



Matrikulazio epea zabalik
haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan
urtarrilaren 25etik otsailaren 5era


Gurasoen Elkarte
Arrasate Herri Eskola


goieskola
www.goieskola.hezkuntza.net


baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

**Guk bezala,
egin apustu, egin kiñu
Euskal Eskola
Publikoaren alde!**



BEDOÑABE • Tel.: 943 79 20 69



MUSAKOLA • Tel.: 943 79 04 49



ERGUIN • Tel.: 943 79 77 74

Ingurumenaren zaintza eta aisia, Besaideren 2016ko lehentasunak

- ▶ Herriko bide publikoen inbentarioa onartu izana da iazko "lorpen handiena"
- ▶ San Baleixoko lanak eta Udalatxen diagnostikoa, 2016ko asmoen artean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

1.623 bazkide eta 860 federatu ditu Besaide Mendizale Elkartek. Kopuruan behera egin dute, baina elkarte osasuntsu dago. 2015a, gainera, oso emankorra izan zen: Aiba! mendi martxa oso modu arrakastatsuan berreskuratu zuten, herritar askok erabiltzen duten Kurtzetxikirako bide homologatua ireki zen... Hala ere, herriko bide publikoen inbentarioa behin betiko onartu izana da, Aitor Zubiaga presidentearen arabera, 2015eko "lorpenik handiena". Lan "potoloa, nekeza eta korapilatsua" da halako inbentario bat egitea: "Herri gutxi egin dute, eta asko trabatuta dabilta. Tentsio asko eragiten ditu; joan zaitez baserritar batengana bide hori berea ez dela esatera..."

Besaideren akuilu lana ezinbestekoa izan da Arrasaten, eta, gainera, elkarte moduan ere baliatuko dute: "Bide zahar horiek, herri-bideak direnak, herria egiteko bidea ere emango digute. Bertako ondare kulturala, etnografikoa eta naturala ezagutzera emateko bitarteko ere izango dira".



Zuzendaritzako Bergaretxe, Urrutia, Nuño, Aranburuzabala eta Zubiaga. | BESAIDE

Aisialditik harago

Joan den asteko batzar orokorrean onartu zuten 2016rako plana; urteroko klasikoak mantendu egingo dituzte. Mendi Film jaialdia, Mondran Bike, hileroko mendi irteerak -Ibon Irastortzak Sergio Serranori pasatu dio lekukoa antolakuntzan-, "sendo eta ilusioz" diharduen asteburuetarako irteeren lantaldearen eskaintza... Baina aisial-

dira begirako ekintzez harago, Besaidek oso presente dauka Arrasateko inguruen zaintza eta zabal-kundea. Horren adibide dira Naturtzaingandiarrekin eta Udalarekin elkarlanean San Baleixon egindako herrilanak; iaz 400 zuhaitz lantatu zituzten 50 lagun artean, adibidez. Aurten ere jarraituko dute San Baleixo inguruan lanean; izan ere, mahaiak, panela eta bes-

ESANAK

"Inbentarioari esker bide zaharrek, herri-bideak direnek, herria egiteko bidea ere emango digute"

AITOR ZUBIAGA | BESAIDEKO PRESIDENTEA

te ekipamendu batzuk jartzea da asmoa: "Gainera, Gipuzkoako Bira bertatik pasatzen da eta dagoeneko errekuperatu dugu Errege Bidea. Galduta zegoen, eta lortu dugu Elorrio eta Arrasate berriro ere lotzea". Aurten bide hori osatu nahi dute ibilbide berri batekin: institutu atzean dagoen Hidalgo-baso eta Anporreta San Baleixorekin lotzea, Monterron ardatz hartuta.

Beste proiektu bat da Udalatz naturgunea: "Gure naturgune baliotsuena da, duda barik. Baina diagnostiko bat egin nahi dugu, beharren bat duen jakiteko". Gainera, Udala eta Besaide artean "ganorazko" beste bide homologatu bat (PRGI-96) gertu izango dute udaberritik aurrera.

Ingurumen Mahaia

Esku artean dituzten asmo horiei lehentasunak markatuz eta epeak zehaztuz heltzeko, Ingurumen Mahaia osatzea nahi du mendizale elkarteak: "Ondo legoke interesa duten beste eragileekin batera eskutik helduta joatea".

ZALDIBAR

EMAITZAK (7. JARDUNALDIA)

| | |
|--------------------------------|------|
| Abokajarro - Elorra JMA | 8-3 |
| Olympiakojos FC - Lasagabaster | 1-8 |
| Aldatz - Monte Taberna | 2-3 |
| Rayo Makabro - Betrayr | 1-10 |

SAILKAPENA

| TALDEA | P | J |
|-------------------|----|---|
| 1 Aldatz | 16 | 7 |
| 2 Dribling | 15 | 6 |
| 3 Monte Taberna | 15 | 7 |
| 4 Lasagabaster | 13 | 7 |
| 5 Abokajarro | 12 | 7 |
| 6 Sonografos | 10 | 6 |
| 7 Betrayr | 9 | 7 |
| 8 Elorra JMA | 7 | 7 |
| 9 Olympiakojos FC | 3 | 7 |
| 10 Rayo Makabro | 0 | 7 |

PARTIDUAK (8. JARDUNALDIA)

| | |
|------------------------|--|
| URTARRILAK 30, ZAPATUA | |
| 10:00 | Aldatz-Lasagabaster / Olympiakojos FC |
| 11:00 | Olympiakojos FC - Betrayr / Lasagabaster |
| 12:00 | Rayo Makabro - Sonografos / Betrayr |
| 13:00 | Elorra JMA - Dribling / Rayo Makabro |

| | |
|-----------------------|---|
| URTARRILAK 31, DOMEKA | |
| 11:00 | Monte Taberna - Abokajarro / Sonografos |
| 12:00 | Sonografos - Dribling / Abokajarro |

Zigorrak Elorra JMA eta 'Aboka'-ri

Bi taldeetako jokalariek banari bi partidutako zigorra ezarri zaie "istituak" direla-eta. Gainera, Elorra JMak abisua jaso du lehian zehar erakutsitako "jarrera desegokiagatik".

ARRASATEKO UDAL HAUR ESKOLA

matrikula epea zabalik

urtarrilaren 25etik otsailaren 5era



UMEZAINNTZA

0-3 URTE

San Andres, 8

URIBARRI

JOKIN ZAITEGI 0-3 URTE

Uribarri etorbidea, z/g.

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abisatu

943 77 20 25 www.arizmendi.eus



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua

arizmendi
ikastola

Venezuelako istorioak kontatzen Mundutik Arrasatera ekimenean

MAITE TXINTXURRETA | ARRASATE

Venezuelako ipuinak izan ziren entzungai martitzen arratsaldean Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan. Mundutik Arrasatera ekimeneko ipuin kontaketak neska-mutiko eta guraso asko bildu zituen, berrogeita hamar inguru. Guztiek adi-adi entzun zituzten istorioak.

Marisol Abreu venezuelarrak gaztelaniaz egin zuen kontaketa eta Vanessa Gonzalezek, berriz, euskaraz.

Bigarren saioa izan zen martitzeneko; lehenengoa azaroan egin zuten, eta Saharako tradiziozko ipuinak kontatu zituzten orduan. Bi hilabetean behin izango dira saioak.

Kulturartekotasuna

Mundutik Arrasatera ekimenearen helburua da herrian bizi diren jatorri eta kultura askotariko pertsonen arteko harremana eta ezagutza bultzatzea, baita etxeko txikienei kultura aniztasun hori aberasgarria dela erakustea ere.

Hurrengo saioa.

Mundutik Arrasatera egitasmoaren hurrengo ipuin kontaketa martxoan egingo dute. Orduan, Nepalgo istorioak kontatuko dituzte. Ikasturtea bukatzeko, berriz, azken saioa maiztzean egingo dute, eta Pakistango ipuinak izango dira protagonista.



Arrasaten bizi bada ere, gorliztarra da Bedialauneta. | LEIRE KORTABARRIA

Bedialaunetak Gorlizi buruzko lana kaleratu du

'Gorliz nire herria, Gorliz nire jendea' izeneko liburua osatzeko zazpi urtez aritu da lanean

M.T. | ARRASATE

Andoni Kepa Bedialaunetak bere jaioterriko etxean eta basetxeen genealogia biltzen duen liburua argitaratu du: *Gorliz, nire herria, Gorliz nire jendea*. Badira berrogei urte Arrasaten bizi dela, baina ez du bere jatorria ahaztu. Liburu horretan, Gorlizko berrogeita hamar urtetik gorako etxeei buruzko informazioa eta argazkiak eta bertako familien zuhaitz genealogikoak ageri dira.

Lan handia egin du Bedialaunetak; izan ere, zazpi urte baino gehiago behar izan ditu liburua gutziz bukatutzat emateko. "Etxe

bat edo izen bat falta bada, ezin da liburua atera", dio egileak.

Arazoren bat edo beste ere izan du: "Anekdotak modura, base-ri batera 69 bider deitu behar izan nuen datu bat lortzeko". Hain zuzen, datuak eta argazkiak biltzea izan da lanik "gogorrena".

Etxeei buruzko informazioa biltzeaz gainera, herriko hainbat pasadizo ere kontatzen ditu egileak liburuan, mamuren bat ere tarteko...

Liburua eskuratzeko interesadunak Bedialaunetari berrari dei egin diezaiokete: 943 79 77 22 edo 670 22 89 05.

Ken Zazpi taldearen kontzerturako sarrerak, agortzeak

Apirilaren 16an Ken Zazpi talde ezagunak kontzertua eskainiko du Amaia antzokian. Hiru hilabete baino gehiago geratzen diren arren, sarrerak azkar saltzen ari dira, eta jada agortzeak daude. Oraindik eskuragarri daudenak 15 eurotan daude salgai.

Hasier Larreak girotuko du gaurko gaua Jai Zale tabernan

Hasier Larrea bakarlarri arrasatearrak itxiko du gaur gauean Jai Zale tabernan urtarilerako prestatu duten kultura egitaraua. 22:30ean hasiko da kontzertua. Beti bezala, kontzerturako sarrera doan izango da.

Jorge Reboaredoren kontzertu akustikoa Iluntz tabernan

Jorge Reboaredo musikariak kontzertu akustikoa eskainiko du gaur gauean, urtarrilak 29, Olarte kaleko Iluntz tabernan. 23:00etan hasiko da emanaldia, eta sarrera doan izango da. NCC, Snobs, Why Not?, Los Padrinos eta Gramones taldeetan ibilitakoa da.



Vanessa Gonzalez martitzeneko saioan. | M.T.

0-18 urte

Elkarezagutzatik elkarbizitzara, guztiok ahalduzko bidea

Helburua:

Arrasaten bizi diren jatorri eta kultura ezberdinetako gurasoak elkartzeko eta aniztasunean hezteak dakartzen onuren inguruan hausnartzea.

Edukiak:

Komunikazioa, entzute aktiboa · Gurasotasuna · Kulturartekotasuna, gizarteratzea · Gure akatsen bitartez ikastea · Elkartzasuna, partehartzea, adostasuna esperimendatzea

Egutegia: Otsailak 17 eta 24, martxoak 2, 9 eta 16 eta apirilak 6

Ordua eta lekua: 18:00 - 20:00, Kulturateko Lora-mendi gelan

Dinamizatzaileak: Marisol Abreu eta Alberto Iñurieta psikologoak

Hizkuntza: gaztelera.

0-5 urte

Hazkuntza - Hezkuntza tailerra

Edukiak:

- Atxikimendu segurua garatzeko oinarriak
- Portaera ulertu eta eguneroko gatazkak ekidin zigorra erabili gabe
- Haurraren autoestimua sustatu
- Haserrealdia eta beste emozioak ulertzen eta kudeatzen lagundu
- Haurraren autonomia
- Anai arreben arteko gatazkak eta jeloskortasuna

Egutegia: Otsailak 18, 25, martxoak 10, 17 eta apirilak 7 eta 14

Ordua eta lekua: 18:00-19:30, Kulturateko Biteri gelan

Dinamizatzailea: HEZIBIDE elkarteak, Mireia Centeno, psikologa eta psikopedagoga.

Hizkuntza: izena emandakoen arabera

6-12 urte

Berbaz konpondu: seme-alabekin komunikatzeko trebetasunak garatzen

Edukiak:

- Hitzeko hizkuntza modu eraginkoragoan erabiltzen ikastea, geure buruari zein gainerakoei buruz esan nahi duguna era argiaren adierazteko, eta berbazko ez den hizkuntzak duen garrantziaz jabetzea.
- Inguruan ditugun pertsonen gaineko ikuspuntua zabaltzea, eta komunikazio enpatikoa eta ez bortitzaren oinarriak ezartzea.
- Mugatzen gaituzten barne-mezuak berriz formulatzeko adierazpen molde berriak eskuratzeko.

Egutegia: Otsailak 22 eta 29, martxoak 7 eta 14 eta apirilak 4 eta 11

Ordua eta lekua: 18:00 - 20:00, Kulturateko Lora-mendi gelan.

Dinamizatzailea: ERAIN elkarteak, Virginia Belategi

Hizkuntza: izena emandakoen arabera

13-19 urte

Zer egingo dut nik orain?

Edukiak:

- Coaching-a
- Entzute aktiboa eta asertibitatea · Helburuen formulazioa · Inteligentzia emozionala · Estrategia berrien formulazioa
- Programazio NeuroLinguistikoa
- Arazoen birplanteatzea · Posizio pertzertiboak · Gatazkak aukera moduan

Egutegia: Otsailak 22 eta 29, martxoak 7 eta 14 eta apirilak 4 eta 11

Ordua eta lekua: 18:00-20:00, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan

Dinamizatzailea: Ardatz Ikasketa Zentroa, Esmerralda Fontan, coach-a

Hizkuntza: Gaztelera

gurasoentzako tailerrak



hobeto sentitzeko

hobeto egin ahal izateko

irtenbideak aurkitzeko

elkarbanatzeko

hausnartzeko



ANTOLATZAILEA:



ARRASATEKO UDALA

IZEN EMATEA:
OTSAILAK 1 OERA ARTE

- BAZ - 943.25.20.00
- GIZARTE ZERBITZUAK - 943.25.20.07
- <http://www.arrasate.eus/izen-ematea>

Musika eta Dantza Eskolak egingo du aurten lehenengoz sorgin dantza

Aratusteetan mozorrotzeko gonbidapena egin die Udalak taberna, komertzio eta herritar guztiei

JULEN IRIONDO | BERGARA

Egitarauari dagokionez, Eguen Gizeneko sorgin dantza egiteko ohitura duela hiruzpalau urte berreskuratu zuten; Xamatx dantza taldekoek egin izan dute, baina aurten aurrenekoz Musika eta Dantza Eskolakoek egingo dute: 24 dantzari, bost txistulari, eta hamabost bat trikitilari eta pandero-jole irtengo dira. Eta Bergaran tradizionalki egiten zen moduan, hartza ere aterako dute, domadorearekin. Herriko hainbat gunetan egingo dituzte geldialdiak. Aratuste hasiera egun honetan txerri belarri eta hankak izango dira tabernetan.

Egubakoitzeko *The love boat* kontzertuari dagokionez, 8 euro

balio dute sarrerek. *www.bergara.eus*-en eros daitezke, otsailaren 4ko 19:00ak arte, eta Zabalotegin, epe berean, astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:00etara. Gehienez pertsonako sei sarrera erosi ahalko dira. Egunean, leihaita saioa baino ordubete lehenago irekiko dute, sarrerarik egonez gero [sarreraren informazioak berdin balio du Amalur ikuskizunerako; prezioa, 6 euro].

Zapatuko mozorro bazkariko menua, berriz, izango da: patatak errioxar erara, biribilkia saltsan eta tarta –Bergarako produktuekin eginak–. Otsailaren 3a da txartela erosteko azken eguna –16 eurotan–, Pol-Polen, Arranon edo Ariznoan.

ARATUSTEETAKO EGITARAUA

OTSAILAK 4

19:00 Sorgin dantza, Musika eta Dantza Eskolaren eskutik.

OTSAILAK 5

22:30 *The love boat* kontzertua Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren eskutik, frontoian.

OTSAILAK 6

14:00 Mozorro bazkaria Aranzadiko gimnasioan, Alaitasuna errondailak girotuta.

15:30 eta 18:00 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Amalur* ikuskizuna, frontoian.

18:30

Erraldoi, kiliki eta buruhandien kalejira, eta mozorro desfilea, San Martin plazan hasi eta amaituta.

20:00 eta 23:00

Kontzertua: Obaneuke, San Martin plazan.

OTSAILAK 9

16:30 Musika Eskolako gazteen bandaren kalejira.

18:30 Batukada herrikoa, San Martin plazatik irtenda.

19:30 DJ Amaia Txintxurreta, San Martin plazan.



Aratusteetako kartela. | SARA MARTINEZ

Azkenik, Aratuste-martitzeko batukada herrikoirako entseguak astelehen eta eguaztenetan dira, 19:30ean, azokan.

Aratusteetako kartel lehiaketa Hiru lan aurkeztu dira, eta herritarren botoekin eta Kultura Zerbitzuko kideen iritzia irarriki, Sara Martinezena aukeratu dute –iaz bezala–.

Bergarako Udalak mozorrotzeko gonbidapena luzatu die "tabernari, komertzio eta, oro har, herritar guztiei".

Ate irekiak egingo dituzte bihar San Martin Agirren

J.I. | BERGARA

San Martin Agirre eskolan, Haur Hezkuntzako eraikinean, ate irekiak izango dituzte bihar –zapatua–, 11:45ean hasita.

EAEko irakasleen bisita

Bestetik, ikasketa proiektu baten barruan, *Gure bizitza kalitatea hobetzeko jangelaren autokudeaketaren bila* izeneko bideoa aurkeztu dute 6. mailako ikasleek Jaurlaritzaren Gazte Irekia lehiaketan.

Azkenik, beste eskola batzuetatik euren metodologiak ezagutzera etorritako 35 irakasleren bisita jaso dute San Martin Agirren –Jaurlaritzaren bi programa tarteko–.

Aranzadi ikastola: matrikulazioa eta kilometroak

J.I. | BERGARA

Ate irekiak egingo dituzte domekan ikastolan, 11:30ean hasita. Otsailaren lein, berriz, 18:30ean, konfiantzaren pedagogiaren gaineko hitzaldia emango du Rafael Cristobalek.

Bestetik, Kilometroak 2016ko koordinatzaileek herriko gazteak bilerara deitu dituzte biharko –zapatua–, 11:00etan, ikastolako areto nagusian, urriaren 2ko ekin-tzak eta ordura artekoak prestatzen joateko: "Gazteentzat gauzak antolatu beharrean, gazteek eurek gustuko dutena antolatzea da asmoa", diote.

Azkenik, santa eskean irteko deialdi irekia ere egin diete herritarrei: hilaren 4an, 19:00etan, plazan,

Oihana Kortazarren hitzaldia antolatu du Hotzek, dirua biltzeko

J.I. | BERGARA

Errefuxiatuen aldeko elkarteak antolatuta, egunean –hilak 4– emango du hitzaldia Elgetako mendi lasterkariak, 19:00etan Irizar jauregian. 5 euro kostako da sarrera, eta zozketa bat ere izango da: lau pertsonarentzako entrenamendu saio bat, Kortazarrek antolatuta. Halakoekin batuko duten dirua orain arte pila-

tutako materialaren bidalketa ordaintzeko da. Hain justu ere, egun hauetan ari dira mantak, kanpin dendak eta lo zakuak Siriara bidaltzen, Siriako Herriarekiko Laguntza Elkartearen (AAPS) bitartez. Materiala sailkatzea eta bidaltzea da orain lehentasuna –kaxak eta boluntarioak behar dituzte–, eta jaso ez dute gehiago egingo oraingoz.



Batutako materiala antolatzen. | HOTZ BERGARA

San Juango ermitako margoa dela-eta, bisita gidatua etzi

J.I. | BERGARA

Obieta elkarteak antolatuta, Udalaren eta Aldundiaren laguntzarekin, San Juan auzoko ermitan agertu zen horma-margoa ikusteko bisita gidatua egingo dute domekan, 12:00etan. Artez zaharberitze enpresako Aida Paya eta Maite Fernandez izango dira gidariak.

Aurkikuntza garrantzitsua

Iaz azaldu zen ustez XVI. mendekoa –ermita jaso zen garai-koa– den horma-margo berezia, hitzez osatutakoa eta hosto formadun greka batez hornitua. Aurkikuntza garrantzitsu jo zuten adituek, halakoak galdutako izan direlako.



Horman lanean. | MONIKA BELASTEGI



IMANOL BELOKI

Lanbide Heziketa Duala aztergai

Oso gustura geratu ziren Miguel Altuna Institutuko arduradunak atzo Lanbide Heziketa Dualari buruzko jardunaldiak emandakoarekin. Bete egin zen aretoa, ikasketa modu horretan ibilitako eta dabilzan pertsonak eta Goizper, Ulma Forja eta Ekide enpresetako kideak entzuteko. Azaldu zuten ikasleentzat garrantzitsua dela enpresen beharrak ezagutzeko.

Mariaren Lagundia bisitatzeko aukera egingo da bihar

J.I. | BERGARA

Matrikulazio garaia dela-eta –otsailaren 5era arte–, Mariaren Lagundia ikastola ezagutzeko aukera izango da zapatuan. 10:00etatik 13:30era egingo dituzte ate irekiak, eta tartean ibilbide gidatuak, 10:30ean eta 12:00etan.

Hainbat tailer

0 eta 6 urte bitarteko guraso eta umeentzako da deia. Zerbait tailer egingo dituzte –psikomotrizitatea, ipuin kontaketa, sukaldaritza, euskal kirolak eta aurpegi margotzea–, ortua eta beste gune batzuk ezagutzeko aukera egingo da, eta baita zuzendaritzako kideekin egoteko ere.

Fraisko zurin jolas parkerik egin ez, eta Espoloikoak estalkia izango du

- ▶ Asteleheneko osoko bilkuran jorratutako gaietako bat izan zen, EH Bilduk galdera egin eta gero
- ▶ Gipuzkoako errefusa Epelera, Bergarako lurretara, ekartzeko aukeraz ere jardun zuen udalbatzak

JULEN IRIONDO | BERGARA

Gai-zerrendako bozkatu beharreko puntuetan ia erabateko adostasunez jardun zuten udalbatzako kideek. Ernai kalean etxebizitzak egingo dituen Urartetxe enpresarekin bere garaian egin dako hitzarmena aldatzea –aldaketa txikiak– onartu zuten, adibidez. Aldaketak inguruko bizilagunen zenbait kezkatzen du jatorria, eta hitzarmen berriarekin bizilagunen kezkei erantzun zaiela azaldu zuen alkateak. Bestetik, aldaketarekin, han egitekoak diren eguneko zentroak azalera apur bat galduko duen arren, trukean Udalak Urartetxeren partetik beste lokal bat jasoko duela jakinarazi zuen Elena Letek.

Gai-zerrendako beste puntu bati dagokionez, Miguel Altuna Institutuaren eraikin berria joango den kaleari Berrabe eta Candy lantegiaren eta Antoliña erreka-txoaren artekoari Agirrebidea izenak jartzea ere erabaki zuen udalbatzak. Euskara Zerbitzuak Udaleko toponimiako datu-basea kontsultatuta aukeratu dute aurrenekoa, eta Agirre auzora doan bidea delako bigarrena.

Bestalde, Sañudo-Lasagabaster familiak Udal Artxiborako egindako Lasagabaster enpresako artxiboaren dohaintza ere



Espoloiko jolas parkea. | JULEN IRIONDO

onartu zuten. Herriko ehungintza industriaren adierazgarrietako bat izan zen enpresa, eta, jasota dauden beste lantegi batzuetakoarekin batera, XIX. eta XX. mendeetan sektoreak Bergaran izandako garrantziaren lekuko izango da Lasagabasterren funtsa.

EH Bilduren galderak

Galde-erreguen tartean, hainbat galdera egin zituen EH Bilduk. Galdetu zuen, adibidez, San Joxepeko ortu urbanoen gainean. Aurreko Gobernuaren asmoa zen egitea, aurrekontuetan ere jaso zuten aurreko agintaldian, baina oraingoak ez du aurreikusi; alkateak iragarri zuen ez dutela aurrekontuetan jasoko, eta EH Bilduri erantzun zion aukera izan

daitekeela koalizioak emendakinetan sartu eta aztertzeke.

Bestetik, eta EH Bilduren beste galdera bat tarteko, jolas parkeen gainean ere jardun zuten osoko bilkuran. Kontua da aurreko Gobernuak Fraisko zurri plazan estalitako jolas parkea egiteko prozedura jarri zuela martxan. Letek azaldu zuen, baina, Gobernu berriak asmo horren gaineko zenbait kezka jaso zituela bizilagunen partetik, eta erabaki dutela hura bertan behera utzi eta haren proiektu teknikoaren esleipeneko kopuru beragatik –11.495 euro– Espoloiko jolas eremuaren eta inguruko urbanizazioaren aurreproiektua abiarazteko agintzea enpresa berari –BEB Arkitectoak–. Horrekin bi helburu

lortuko dituztela azaldu zuen alkateak: estalkidun jolas parkea edukitzea eta kioskoa konpontzea eta inguru berriro urbanizatea.

Azkenik, Gipuzkoako errefusa jasoko lukeen zaborteia Epelen kokatzeko aukeraz ere galdetu zuen EH Bilduk. Mankomunitatean Ingurumen batzordeko buru ere baden Lander Arregiri aukera horren gaineko informazioa eskatu zion Agurte Barrusok, eta aukera horren gainean beste alderdiek ze iritzi duten ere galdetu zuen, argi utziz eurak kontra daudela –Irabazi ere kontra agertu zen–, gaikako bilketa tasa onena duen eskualdea "zigortuko litzatekeelako" zaborteia Bergarako lurretan jarrita.

Arregik eta alkateak azaldu zuten asmo horren jakinarazpenik ez dutela jaso, eta Urola Erdiko Mankomunitateak iragarritakoa gauzatzen duen ikusi behar dela aurrea –esana du otsailaren 3tik aurrera ez duela Gipuzkoako errefusik jasoko, baina GHK-k epea luzatzeko eskatu dio Lapatz kudeatzen duen mankomunitateari–. EH Bilduk "erantzukizun faltaz jokatzeko" iritzi zion, otsailaren 3rako hain gutxi falta izanda, EAJK gaiaren gaineko iritzirik ez izateari edo emateari. [Informazio gehiago 3. orrian]

EH Bilduren ustez, "iluna" da Udalaren jarduna

J.I. | BERGARA

"Iluna, itxia eta inprobisatua" deritza EH Bilduk Udalaren jardunari. Kexu azaldu dira, prentsurrekoan, "oraindik" ez dutelako ezagutzen EAJren eta PSE-EEren gobernu akordioaren edukia –asteleheneko osoko bilkuran ere galdetu zuten; 2016ko aurrekontuarekin batera aurkeztuko dutela erantzun zuen alkateak–.

"Aurreikusita eta aurrekontuetan jasota" zeuden hainbat proiektu gauzatzen ari ez direla eta zergatien informazio ez dutela ere salatu zuten, "alokairuko etxebizitzaren programa, Uemaren hainbat ekimen..." aipatu. Batzordeetara gaiak erabakita iristen direla diote, eta Udala inprobisazioz ari dela: "Ez dago inolako ekimen berririk".

Eguenean geratuko da libre Mikel Askasibar

J.I. | BERGARA

Mikel Askasibarrek 25 urte daramatza preso. Arranon egingo diote harrera, otsailaren 4an, 19:30ean. Bertan bitzeko deia egin die ezker abertzaleak herritarrei. Bidalitako oharrean diote, baita ere, "azken euskal preso politikoa etxean izan arte" borrokan jarraitzeko konpromisoa hartzen dutela.

Hain justu ere, *Aska* libre geratu eta gero, Joxe Migel Gaztelu izango da kartzelan –Algecirasen– geratuko den preso bergarar bakarra. Ezker abertzaleak "besarkada beroena" bidali die berari eta bere senideei.

Mikel Askasibar ETAKo kide izateagatik zigortu zuten, 1991n poliziarekin enfrentamendu bat izan eta gero.

NIRE USTEZ

MAIALEN MADARIAGA



0 Km

Kanpora irteteak beraien proiektu berrietan pentsatzeko denbora, perspektiba eta inspirazioa ematen omen die artistei. Kanpora irteten dira, ondoren herrira itzuli eta esku artean dutenari etekin handiena ateratzeko. Hala behar luke guztiak. Irten, berriz itzultzeko.

Inspirazioak, ordea, ez du baliorik gurean, eta are gutxiago jaten ematen. Hargatik egiten du alde inspiraziodun gazte askok atzerri-

ra. Irudipena dut hemengoak ez ote gauden hara, norabait begira. Barrutik, kanpokoari so. Batzuk Europara begira, eta Europa, nora begiratu ere ez dakiela.

Horregatik miresten ditut hainbeste bertan gelditu eta bertakoa garatzeko apustua egiten dutenak. Proiektu berritzaile eta jasangarrien protagonistak. Eta bultzatzaileak. Asko baitira oraindik protagonistok kanporantz bultzatzen dituztenak. Onartu behar dut azken

hauetako bat baino gehiago bidaliko nukeela atzerrira, perspektiba aldatu eta proiektu berritzaile hauengan inspirazioa aurkitu dezan. Ea bueltan zer dakarten. Izango da handik itzuliko ez denik ere.

Ba al dago gurea baino leku hoberik herritar ekologista, iraultzaile, jasangarri (bere adiera guztietan) eta modernoak izaten hasteko? Has gaitezen etxetik. Txukundu dezagun sukualdea, ataria txukuntzeari ekin aurretik.

DRAGON ORIENTAL

Janaria ere etxera eramaten dugu

Plater gustukoena:

- Xia-Jiao (ganba-enpanadillak)
- Curry triangeluak okelaz beteta
- Langostino frijituak almendrekin

Etor zaitez!

☎ 943 25 06 77 • Fraisko zurri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...

Fraisko zurri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

AITONAK

TABERNA
(Jubilatuena etxea)

Bazkariak
• Afariak
• Ospakizunak
• Kintadak

ETOR ZAITEZ!
08:00etatik 21:00etara zabalik!

Tel.: 628 443486
Boni laskurain, 9 behea
BERGARA

Ekainean jarriko dituzte edukiontziak kaleetan

Oraindik ez dute erabaki zelakoak izango diren eta horien kokalekuak ere zehazteko dauzkate

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Hondakinen bilketa sistema aukeratzeko domekan egindako herri galdeketa bosgarren edukiontzi bidezko sistemaren alde egin zuten herritarrek, 2.600 botoarekin. Atez atekoak, osterara, 801 boto jaso zituen. Herritarren %59,9 joan ziren bozkatzera: 3.406 lagun, hain zuzen ere.

Udal ordezkariak "gustura" agertu ziren galdeketa emanda-koarekin. Jeltzaleak eta sozialistak pozik zeuden herritarrek bosgarren edukiontzia babestu izanagatik. EH Bilduko kideek eta Irabaziko ordezkariak ere begi onez hartu zuten emaitza, eta "birziklatze-tasei eustea" dela kontua adierazi: "Orain arte izandako emaitzei eutsiko diegu seguru, eta hobetzeko bidea ere badugu sistemaz aldatu arren", zioen EH Bilduko Xabier Igartuak.

Aurreko kokapenak oinarri

Sistema aldaketa "presa gabe" egingo dela aurreratu du Unai Elkoro alkateak, eta, ondo bidean,



Botoak kontatzen domekan egindako herri galdeketa. | MIRARI ALTUBE

ekainerako izango direla edukiontziak kaleetan. Lehenengo, zehaztu gura dute non kokatu horiek: "Aurreko kokapenak hartuko ditugu oinarri, baina aldaketak egongo dira, seguru asko", jakinarazi du. Ostalaritza zerbitzuetako eta komertzioetako ugazabekin ere egon gura dute kokalekuok adosteko. Auzoetako bilketa sisteman, osterara, ez dute

aldaketarik espero, eta orain arte legez jarraitzea da asmoa.

Edukiontzien itxurari dagokionez oraindik ez dutela zehaztuta zelakoak izango diren argitu du: "Arrasatekoek legez, txipa izango dute organikoarenak eta errefusarenak, baina lehaketa deitu beharko da horiek erosteko, eta itxura ezberdina izan dezakete".

Fiare bankuko bazkide egin dira herriko hainbat elkarte

M.A. | ARETXABALETAKO

Bilbon egoitza duen Fiare banku etikoko ordezkari Itziar Sobrino izan da zen eguaztenean Debagoienean. Herriko hainbat elkarterekin elkartu zen, Hiruatz hirugarren munduko elkarteko eta parrokiako kideekin, besteak beste, eta bankuko bazkide egin ziren.

"Ekonomia berri bat"

Orain dela bi urte pasatxo erabaki zuen parrokiak Fiareko kolaboratzaile egitea, eta partizipazio bat erosi zuen orduan: "Partizipazio horrekin bankuko akzioak erosi ditugu orain eta bazkide egin gara; hala, zati txiki bat geurea dela esan genezake", jakinarazi du Oier Etxe-

barriak, parrokiako batzordeko kideak.

Banku "ezberdina" delako erabaki dute parrokiako kideek horrekin lan egitea: "Dirua beste era batera erabili gura duen bankua da", dio, eta gaineratu du beste batzuek ematen ez duten "bermea" ematen duela: "Ekonomia berri bat, mundu berri baterako hazitxo bat da Fiare. Eta gustuko ez ditugun kontuetan gure dirurik erabiltzeko ez dute zurtasuna dugu".

Elkartek ez ezik norbana-koak ere egin daitezke bazkide, Internet bidez, eta horretara animatu ditu Etxebarriak: "Gizarte berri baterako aukera bat da Fiare eta gardentasun osoz egiten du lan".



Parrokiako ordezkariak Fiare bankuko langilearekin eguaztenean. | M.A.



Pausoka
haur eskola

0-3
urte

943 77 03 77
pausoka@euskalnet.net
www.pausoka.eu

Belorrieta 8
20550 Aretxabaleta

Etorri eta ezagutu!

Izen-emate epea: **Urtarrilaren 25etik otsailaren 5era**

Bulego ordutegia: **09:00-14:00 / 16:00-18:00**

zeuria
zeuena
geuria

Aratusteen berri ematera dator Txapel Txin bihar

Ikastetxeetako umeezin izan da asteen, eta esan die txapela jantzita joateko Herriko Plazara

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Urduri dabil azken asteotan Txapel Txin, Aratusteen noiz iritsiko zain. Asteen ikastetxeetako neska-mutikoekin izan da, zapatuko egunaren berri eman eta Aratusteen giroten hasteko. Eta harre-
ra ezin hobea egin diete umeei.

"Txapela jantzita etorri guztiok, zapatuan, Herriko Plazara, eta elkarrekin ospatuko dugu", esan gura izan die herritarrei. Aratusteei begira, oster, "gaztetxoak finago" dabilzala mozo-
rroak gertatzen konturatu da, eta helduei dei berezia egin die, anima daitezten.



Txapel Txin, martitzenean, Kurtzebarri eskolako kideekin. | MIRARI ALTUBE

EGITARAUA

12:30 Kalejira trikilariekin eta Txapel Txinekin.

17:00 Lindy hop saioa, plazan.

17:30 Zinema umeendako.

18:30 Torrada lehiaketa.

18:30 Kale animazioa La Troupe de la Rue taldearekin.

19:30 Txinpregoia eta sari banaketa.

19:45 Txistor eta sagardo dastatzea.

20:00 Avitxin Dja.



Basabeazpiko neska-mutikoak Txapel Txinekin pozik. | M.A.



Abian da umeen irakurketa kluba

Bularretik mintzora egitasmoaren bueltan, irakurketa kluba jarri dute abian liburutegian, 5 urte bitarteko umeendako. Martitzenean izan zuten lehen saioa eta sei bat guraso eta beste horrenbeste ume elkartu ziren Galtzagorri elkarteko dinamizatzailearen inguruan. Ipuinak entzun, kontatu, abestu eta beste ekintza batzuk egitea da asmoa, betiere, giro goxoan. Irakurketa giroa sortzea eta kalitatezko euskal bibliografia ezagutzea helburu dituen klubaren hurrengo saioa otsailaren 16an da, 17:00etan.

OHARRAK

MUS TXAPELKETA

Euskal Herriko VIII. mus txapelketako kanporaketa jokatuko dute urtarrilaren 31n, domeka, Urbaltz elkartean, 16:00etan. Izena bertan emango da, eta hogei euro ordaindu bikoteko.

ODOL ATERATZEAK

Arabako odol bankuko kideak odola ateratzera etorriko dira datorren otsailaren lehen, astelehena, eta 9an, martitzena. Osasun etxean izango dira, 16:30etik 20:00etara.

SAN BLAS EGUNA

Apotzagaetxebarri auzoko Salluente ermitan meza esan eta jakiak bedeinkatuko dituzte eguaztenean, otsailak 3, 10:30ean.

'BERREGIN. BERREKIN' PROGRAMA AURKEZPENA

Ekintzailtasun soziala sustatzeko abian jarri gura duten programa aurkeztuko dute datorren martitzenean, otsailak 2, 18:30ean, Arkupen.

EMAKUMEEN FRONTENIS TXAPELKETA

Sekula baino bikote gehiago

Bihar hasiko da UDAk antolatutako hiru garren frontenis txapelketa eta hamazazpi bikote izango da nor baino nor gehiago.

LEHEN JARDUNALDIKO PARTIDUAK-ZAPATUA

9:00 Amaia Gastañaga - Jasone Garzia-Etxabe / Marina Retolaza - Elena Egino
9:30 Anabel Aranzadi - Marijo Bastardo / Agurtzane Elkorro - Ainhoa Galfarsoro
10:00 Lore Martinez - Rosa Ojuel / Leire Valle - Maite Fraile
10:30 Larraitz Iñurrategi - Aitziber Kintanilla / Eli Berridi - Ane Aspe
11:00 Anabel Aranzadi - Marijo Bastardo / Naiara Alonso - Maite Otxoa
11:30 Naiara Amezcua - Anais Fernandez / Lur Delgado - Dorleta Elkorobarrutia
12:00 Ariane Unanue - Ibone Arrieta / Eneritz Ollobarren - Yaiza Cid
12:30 Agurtzane Elkorro - Ainhoa Galfarsoro / Eneritz Ollobarren - Yaiza Cid

LEHEN JARDUNALDIKO PARTIDUAK-DOMEKA

8:30 Rebeka Ubera - Miren Argi Zeziaga / Amaia Gastañaga - Jasone Garzia-Etxabe
9:00 Idoia Elkorro - Iratxe Bravo / Ainara Muga - Amaia Retolaza
9:30 Rebeka Ubera - Miren Argi Zeziaga / Amaia Bolinaga - Maite Txintxurreta
10:00 Lore Martinez - Rosa Ojuel / Idoia Elkorro - Iratxe Bravo
10:30 Amaia Bolinaga - Maite Txintxurreta / Marina Retolaza - Elena Egino
11:00 Leire Valle - Maite Fraile / Ainara Muga - Amaia Retolaza
11:30 Larraitz Iñurrategi - Aitziber Kintanilla / Naiara Amezcua - Anais Fernandez
12:00 Anabel Aranzadi - Marijo Bastardo / Ariane Unanue - Ibone Arrieta
12:30 Eli Berridi - Ane Aspe / Lur Delgado - Dorleta Elkorobarrutia
13:00 Naiara Alonso - Maite Otxoa / Eneritz Ollobarren - Yaiza Cid
13:30 Agurtzane Elkorro - Ainhoa Galfarsoro / Ariane Unanue - Ibone Arrieta

Gu Haziak Gara elkarteak erakusketa bidez emango du egindako lanaren berri

M.A. | ARETXABALETAKO

Gizarteratzearen alde egiten du lan Aretxabaletako Gu Haziak Gara laguntza elkarteak, eta hainbat jarduerak jarri ditu abian 2013tik hona: ortu lanketa, jostintza eta eskulanak, besteak beste. "Formazioa jasotzeaz gain,

elkarrekin gabiltza ikasten eta lantzen berdintasuna, ohiturak, errespetua eta konpromisoa, esaterako", dio kideetako batek.

Horren guztiaren berri emateko erakusketa jarriko dute Arkupen; otsailaren 2an inauguratu, eta hilabete osoan egongo da.

Lindy hop tailerra dago bihar goizean Jaiki elkarteak antolatuta eta erakustaldia arratsaldean plazan

Swing doinetan oinarritutako lindy hop dantza ikastaroa egingo dute Jaiki elkarteko kideek bihar, zapatua, 09:30etik 13:00etara, Arkupen. Izena emateko bideak honako hauek dira: 688 86 21 87; jaikielkartea@yahoo.es; eta Facebook bidez. Arratsaldean, 17:00etatik 18:30era, oster, saio irekia egingo dute Herriko Plazan.

Lantaldeak osatzen joateko bilera egingo du Gure Esku Dagok martitzenean, otsailak 2, Arkupen

Herri galdeketa egingo dituela aurten iragarri du Gure Esku Dago dinamika, eta Aretxabaletako taldeak "erronka horri eusteko" behar diren lantaldeak sortu gura ditu. Horretarako, batzorra egingo dute martitzenean, otsailaren 2an, 18:30ean, Arkupen. "Parte hartu, denon artean lortuko dugu-eta", esan dute.

Makillaje ikastaroa antolatu du Loramendik Gemesekin batera, Aratusteei begira

Aratusteetan zelan makillatu irakatsiko dute Gemes irudi aholkulariek otsailaren 2an, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Loramendik antolatu du eta udaletxe zaharrean izango da. Izena aurrez eman beharra dago, eta gaur, hilak 29, da azken eguna; bideak: loramendielkartea@gmail.com edo 943 77 09 70 edo 685 75 67 29.

Hezkuntza sortzailean oinarritutako jolasteko saioak egingo dituzte otsailan, Amaia Otadui gidatuta

"Ikertzen, eraikitzen, ikasten... azken finean, jolasten jardutea", dio Amaia Otadui, eta, otsailatik aurrera, jolasteko tailerrak egingo ditu Aozaratza auzoko abade-etxean. Astelehen edo egubakoitzetan izango dira (zapatu goizak aukeran). Interesa dutenek hemen dituzte harremanetarako bideak: 943 79 06 03 edo izaditamaia@gmail.com.



Eguazten iluntzean egindako prentsaurrekoa. | MIREIA BIKUÑA

157 ekintza jaso ditu Udal Gobernuak agintaldirako

2016-2019 epealdirako plangintza orokorra aurkeztu du herritarren aurrean

O.E. / M.B. | OÑATI

Oñatiko Udal Gobernuak agintaldirako duen plangintza aurkeztu du astean publikoki. "Hauteskundeetarako aurkeztutako gobernu programak oinarri hartuta, baina EAJren eta bestelako herritarrek eta eragileek egindako ekarpenak aintzat hartuta" egindako plangintza dela aipatu zuen Mikel Biain alkateak eguazten iluntzean udaletxean egindako prentsa agerraldian. Laster ipiniko dute ikusgai Udalaren webgunean, edozein herritarrek eskura izateko moduan.

Lau oinarri

Plangintza egiteko, lau oinarri ideologikotatik abiatu dira EH Bilduko hautetsiak: "Ama lurra-ekin bat egingo duen jendartea, pertsona lehenetsiko duen jendartea, askatasuna ardatz izango duen jendartea eta bere kultura sustatuko duen jendartea". Oinarri orokor horietatik hemezortzi helburu orokor finkatu dituzte, eta 2016-2019 agintaldirako 157 ekintza planifikatu.

Ekintza aipagarrienetakoak dira: etxebizitza hutsen azterketa egitea, egungo egoera ikuspegi estatistikotik ikusi ordez, bilakaera demografikoarekin gurutzatu eta etorkizun hurbilerako egoera aurreikusteko (2016an); egungo hondakin bilteta sistemaren ebaluazio eta hobekuntza prozesua burutuko dute. Helburua da gaikako bilketan atzerapausorik eman gabe Oñatirako egokiena den eredia zehaztea (2017an); enpleguari dagokionez, sormen eta ekintzailetasun bidean dauden herritarren topagune

baten egokitzapena (2017an); herriko emakumeen historia berreskuratzeko ikerketa beka (2016-2018); etorkinendako harrera plan integrala. Harrera instituzional egokia eta Oñatiko errealitatearen gertuko azalpena hizkuntza ezberdinetan (2016-2019); 2016ko lehen hiruhilekoan kiroldegia eraberritze proiektua batzordean landu ostean, herritarrekin partekatuko da. Egin beharreko lanak adosten badira, 2017-2019 artean garatuko dira.

Udal Gobernuak aurkeztutako plangintzan, datozen lau urteetan gauzatuko diren proiektu-leerro eta ekintza nagusiak daude finkatuta. Zehaztasun maila handiagoa izango lukeen dokumentua, urteko kronograma, otsaileko lehen asterako izango dute prest talde guztiek.

Udal Gobernuak aurkeztutako plangintzan, datozen lau urteetan gauzatuko diren proiektu-leerro eta ekintza nagusiak daude finkatuta. Zehaztasun maila handiagoa izango lukeen dokumentua, urteko kronograma, otsaileko lehen asterako izango dute prest talde guztiek.

Osakidetzan arreta euskaraz jasotzeko eskaerak batuko dituzte

Aplikazio informatikoak erabiliz egingo dute ekimena otsailaren 17an erabilera anitzeko gelan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Euskarazko osasungintzaren aldeko ekintza berezia egingo dute otsailaren 17an Oñatin. Osakidetzak euskaraz erantzuteko eskaerak jaso gura dituzte herritarrengandik. "Altaren txostenak, historia klinikoa, arreta espezializatua, pediatria, larrialdiak... dena jasotzen dugu gazteleraz. Euskaraz jasotzeko eskatu egin behar dugu. Osasun arreta euskaraz eskatzen badugu, orduan ikusiko dute horren beharra, eta hasiko dira eskaintzen. Zenbat eta gehiago eskatu, orduan eta gehiago eskainiko dute, eta horrek eskaera gehiago ekarriko du ezinbestean", dio Aitor Montes medikuak eta ekimen honen bultzatzaileak.

Testuak prest

Osakidetzan arreta euskaraz jasotzeko eskaerak aplikazio informatikoak erabiliz helaraziko dizkiote EAEko osasun zerbitzuari. Eusko Jaurlaritzaren Elebide edo Behatokiaren *Akulu* aplikazioa erabilita bida-

liko dituzte eskaerak. "Bospasei ordenagailu ekarriko ditugu erabilera anitzeko gelara. Dokumentazio klinikoa, ekografiak, pediatria, ginekologia eta traumatologia zerbitzuak eta erresonantzien emaitzak euskaraz jasotzeko eskaria jasotzen dituzten idatziak prest ditugu eta helburua da herritarrek euren izenean bidaltzea eskaera hauek Osakidetzara", dio Kepa Elortza oñatiarrak.

Montesek adierazi duenez, eskaera kopurua handitzea da ekimen honen helburua: "Datu bat ematearren, 2013an, Elebiden, osasun arloan hizkuntza urraketatengatik 20 kexa jaso ziren urte osoan. Joan den urtean Arrasateko Jai Zale tabernan egin genuen ekimenean, berriz, 78 kexa eta iradokizun batu genituen; arratsalde baten kopurua lauokiztu egin zen. Orain, Oñatin egingo dugu, eta, bailarako beste herrietan egingez gero, arreta euskaraz jasotzeko eskaeren kopurua nabarmen igoko litzateke".



Aitor Montes, Arrasateko Jai Zale tabernan, 2015ean. | IMANOL SORIANO

NIRE USTEZ

AITOR UGALDE



Ondoko bidetik

Hiriburuko sarreran autoak pilotzen diren orduan irten da etxetik. Goizero ordu berean eta leku berean pilotzen diren autoak eta gidariak egunero berak direla pentsatu du. Irratian trafikoari buruzko informazioa entzuterakoan zortedun sentitu da berak horrelako pila-ketarik jasan behar ez duelako, nahiz eta ordu horretan ohikoa

baino jende eta auto gehiago topatzen dituen bere bidean. Baina konturatu da, hiriburuko sarreran bezala, bere bidean ere errepikatu egiten direla egunero ordu eta leku berean gurutzatzen dituen pertsonak eta horien norabideak.

Goizetan ikusten dituenak bezala, egunak ere errepikatu egiten direla irudituko zaio. Zeregin berak ordu bertsuetan. Konturatu da urtea hasi berria bada ere akor-

"Egunak ere errepikatu egiten direla irudituko zaio"

dazterako ia-ia hilabete pasatu dela. Saiatzen da bera aktiboa izaten, bizitza aberasgarria eta atsegina bihurtuko dioten gauzak egiten, batzuetan egin nahi dituen gauza guztiak egiteko filigranak egiten baditu ere. Baina hala ere denbora azkar pasatzen zaio, ihes egiten dio. Egutegia betez antolatu nahi izaten du bere denbora, baina denbora horretan bizi duenak ez duela nahi bezala betetzen sentitu du.

Okerragoa ere izan zitekeela koan etsipenez onartu du bere bizimodua. Hori bai, gaur aldatu egin du bere ohiko ibilbidea, denbora gehixeago beharko badu ere ondoko bidetik joan da eta goizero kafea ohikoa tabernaren alboan hartu du.

Oñatiko curriculum a oinarri duen ginkana berezia antolatu dute gaztelekuak eta Topaguneak

DBHko ikasketak egiten ari diren herriko gaztelekuak eta Topaguneak: Araxerixan. Taldeka, bost proba egin beharko dituzte gaztetxoek, otsailaren 5ean hasita. Proba guztiek herriko curriculum a izango dute oinarrian, eta, hala, Oñatiko historia, kultura edo ondarea aztertu beharko dute gaztetxoek. Lanak entregatzeko, bideo eta argazki formatuak asko erabiliko dituztela aurreratu dute antolatzaileek. Izena gaztelekuan eman behar da otsailaren 3a aurretik.

Torturaren ikerketa proiektuaren gaineko hitzaldia egingo du Pako Etxeberria forentseak otsailan

Oñatiko Euskal Memoriak antolatuta, torturaren ikerketa proiektuaren gaineko hitzaldia egingo du Pako Etxeberria auzitegi medikuak. Otsailaren 18an izango da, Santa Anan. Ikerketa gaur egun zein egoeratan dagoen, datuak jasotzeko zer metodologia erabiltzen ari diren, zer arlotako ikerlariak ari diren lanetan, zenbat testigantza jaso dituzten, nola egiaztatzen dituzten eta ikerketaren helburu nagusiak azalduko ditu Aranzadi zientzia elkarte kide den mediku forentseak.

Etxe tutelatuak egiteko deialdia otsailean izango da

- ▶ Aldundiko teknikariek ari dira lanean Udalekoak
- ▶ Mugikortasun planak jarraipena izango du aurten
- ▶ Ia 20 milioiko aurrekontua du Oñatik 2016rako

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatik ia 20 milioi euroko aurrekontua izango du 2016an (19.759.809 euro), joan den urtean baino %19 handiagoa. Gainera, 2015arekiko %118ko igoera izango dute inbertsioek, ia lau milioi eta erdi euro. EH Bilduko zinegotzien botoekin onartu zuen udalbatzak abenduan aurtengo aurrekontua. EAJk kontrako botoa eman zuen; jeltzaleak ez daude ados "Udal Gobernuaren kudeaketa ereduarekin".

Hiru eredu

Aurtengo urterako inbertsioak gorakada nabarmena izan du eta bi proiektu aipatu ditu Udal Gobernuak igoera hori arrazoitzeko: Eltzia proiektua eta San Martinen egingo dituzten etxe tutelatuak. "Aurreko urteetan landu den proiektua aurten gauzatuko da eta milioi bat euro hartuko du", azaldu du EH Bilduko bozeramaileak, Mikel Biainek.

San Martingo aprobetxamendutik eratorritako diru kopuru bat ekipamendu sozialetarako gordetzea erabaki zuen Udal Gobernuak, eta partida hori, milioi bat euro gutxi gorabehera, inbertsio partida propio baterako erreserbatu du, etxe tutelatuaren proiektua gauzatzeko, hain zuzen ere. "Zarautzen, Donostian eta Astigarragan izan ginen esperientzia ezberdinak ikusten, eta, horren ondoren, ED Fundazioko aholkularien laguntzarekin, Oñatirako proiektua diseinatu zen; 2015ean aurkeztu genuen Jauriaritzan eta Gipuzkoako Foru Aldundian. Bietan begi onez ikusi zuten proiektua, eta 2016ko otsailean hirigintza proiektua egiteko deialdi publikoa egingo dugu. Apartamentu tutelatuaren dekretu bat badago bete beharreko ezaugarri orokorrak zehazten dituen", zehaztu du Biainek.

Apartamentu bakoitzak 40 metro koadro inguru izango ditu. Horiek egiteko harremanetan dago orain Oñatiko Hirigintza Saila Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuarekin, hango teknikarien gomendioak kontuan izateko asmoz. "Orain arte lantzen dihardugun proiektuan hamasei apartamentu aurreikusten ditugu. Batez ere dependentsia maila baxuko eta auto-

MIKEL BIAIN | ALKATEA

"Inbertsio esanguratsuak arlo kulturean eta sozialean egingo ditugu"

Beste behin, urte zaharra bukatu baino lehen onartu ditu berriko aurrekontuak Oñatiko Udalak. Inbertsio handiko urtea izango da 2016a.

Iaz baino hiru milioi pasatxo gehiago izango ditu Oñatik aurten. Zertan nabaritu da hori?

Hortik milioi bat San Martingo apartamentuetarako gordetako partidatik dator. Bestalde, Eltzia fase berri bat ere burutuko da, eta mugikortasun planean jasotako Atzeko Kalea oinezkoendako egokitzea eta erdiguneko piboteak kentzea ahalbide tuko duen sistema jartzeko inbertsioak dira partida esanguratsuenak. Batez ere, aurrekontuetako igoera inbertsioen atalean izandako %118ko gorakadak eragin du.

EAJk dio horiek gauzatzeko zailtasunak ikusten dituela, joan den urteko denak ez zirela exekutatu esanaz.

Ez dugu ezkutatu onartu diren aurrekontuen exekuzioak lan handia eskatuko digula. Lantalde oso onak ditugu Udalean eta teknikari nahiz hautetsiok elkarlanean, kronogrametan planifikatu eta gertuko jarraipen batekin exekuzio maila on bat lortuko dugula argi dut nik. 2015eko aurrekontuaren exekuzio maila ona izatea aurreikusten dut. Oraindik ez dut datua eskuan, baina exekuzio maila orokorra %70 gainetik ibiliko da seguru.

Sailez sail begiratura, kultura izango da jaitsiera izango duen arlo bakarra; %28 gutxiago izango du aurten. Zergatik?

Jaitsiera hori ez da erreala. Lehen, Kultura jasotzen ziren Eltzia-ekin lotutako partida guztiak, baina, Partaidetzak sail propioa duenetik, bertan jasotzearen ondorioz trasbase bat egon da.

Diozu aurrekontuak sozialak eta konprometituak direla. Zer esan gura du horrek?

Baliabide sozialean inbertsio esanguratsua burutuko da eta aurreko urteetan gastu sozialekiko harturiko konpromisoari ere irimo eusten dio Udal honek.

Zeintzuk izango dira ildo nagusiak?

Arlo sozial eta kulturalera bideraturiko inbertsio esanguratsuen gauzapean urtea izango dela 2016a.

EAJrekin elkarlanean landutako aurrekontuak dira?

Aurrekontuak lantzeko prozesua eta egutegia EAJrekin adostu genuen, Partaidetzako nahiz Ogasuneko batzordeetan, eta adosturiko epeak ondo bete dira prozesuan. Bestalde, eurek egindako proposamenen gehiago handi bat txertatu da aurrekontuetan. Alde horretatik ez genuen ulertu kontra bozkatu izana.

Kontu-hartzaileak dio sarrera arruntak eta gastu arruntak parean daudela aurten ere. Hori ona da, ezta?

Bizi dugun egoera sozioekonomiko orokorra gogorra izanagatik ere, presio fiskala mantenduz, aurrekontu orekatuak onartu ditugu.

Zenbateko zorpetze maila dauka orain Oñatiko Udalak?

2015 itxieran zorpetze maila bi milioi ingurukoa izan da; azken hamarkadetako baxuena.



"Aurrekontu orekatuak onartu ditugu 2016rako"



San Martin egoitzaren ondoan eraikiko dituzte. | O.E.

Hamasei etxe tutelatu San Martinen

Batez ere dependentsia maila baxuko eta autonomoak diren adineko pertsonen zuzenduriko etxebizitzak izango dira, irisgarritasun, segurtasun eta zaintza egokiarekin. San Martin egoitzaren ondoan kokatuko dira etxebizitzak horiek eta egun bertan dauden beste baliabide sozialekin sinergiak aprobetxatuko dituzte. Hala, gune sozio-sanitario integrala izango da San Martin

nomoak diren adineko pertsonen zuzenduriko baliabidea izango da. Irisgarritasun, segurtasun eta zaintza egoki batekin, era autonomoan bizitzea da helburua. San Martin egoitza ondoan kokatuko da baliabide hau eta gaur egun bertan dauden beste baliabide sozialekin sinergiak aprobetxatuko ditu. Gune sozio-sanitario integral bat izango da San Martin", gaineratu du alkateak.

Urritik

EAJk, baina, kezka agertu du. "Aurreko urteetako inbertsioen gauzatzea ez da bi herenera hel-

du, eta ez dakigu aurtengoak ere gauzatu diren. Bestalde, inbertsioa handitzeko mailegu eskaera egin beharko da eta horrek esan gura du defizita sortuko dela. Atez ateko sistemak urte urte sortzen duen defizitari, gainera, kale garbiketa zerbitzua Udalaren eskura pasatzeak sortuko duena gehituko zaio gero, pertsonaleko gastua handitzea ekarriko du horrek-eta", adierazi zuen Miren Elgarrestak, jeltzaleen bozeramaileak. EH Bilduren ustez, baina, aukera ona da zerbitzu hori Udalak ematea. "Kalitatezko hamar lanpostu eskai-

MIREN ELGARRESTA | EAJ

"Planifikaziorik eza udal jardunera ere hedatzen da"



"Pozik gaude EAJk aurkeztutako proposamen multzo handi bat onartua izan delako. Horiek herritarren eskaerei eta beharrei erantzuteko xedez landu ditugu, eta, horregatik, benetan uste dugu oñatiarren bizi kalitatea hobetuko dutela", dio jeltzaleen udal bozeramaileak. Proposamenak lau lan ildo nagusiren baitan jorratu dituztela azaldu du Elgarrestak: "Garapen sozioekonomikoa, herri atsegina eta osasuntsuagoa eraikitzea, pertsona behartsuenak babestea eta Oñati herri hezitzaile bilakatzea. Bestek beste, onartuak izan dira gaztedi, berdintasun, euskara eta kultura alorretan egin ditugun proposamenak, hala nola emakumeen kontseilua sortzea, Oñatiko historian eta garapenean aitzindari izan diren emakumeen biografiak berreskuratzeko ikasketa-beka eskaintzea eta euskarri digitalen bitartez 13-18 bitarteko gazteentzat irakurketa-taldea eratzea. Baita Oñatiko basoen ustiapen ahalmena aztertzeke ikerlana egitea, Herribusa eta Landabusa ezartzea, tokiko merkataritza eta turismoa sustatzeko ibilbide gidatuak diseinatzea eta San Martin eremuari kirol erabilera emateko azterketa lana egitea".

Zeintzuk ez diren onartu aipatu ditu Elgarrestak: "Gure lan ildoei helduta, ekonomiaren, gizarte ongizatearen eta ingurumenaren ikuspuntutik guretzat oso garrantzitsuak diren ekimen batzuek ezetza jaso dute. Horien artean ditugu herriko dendetan kontsumitzeko gizarte egoera ahulean dauden pertsonentzako "gizarte bonuak", energia eraginkorren plan jasagarria diseinatzea edota udal zerbitzu gisa "leihatilak bakarra" sortzea herritarren eta administrazioaren arteko harremanak estuagoak eta eraginkoragoak izan daitezten, bereziki ekintzaile, enpresa eta autonomoen dagokionez".

Hori azalduta, jeltzaleek uste dute "planifikaziorik eza" nagusitzen dela. "Bereziki, inbertsioen ataleko hirigintza ekimenei dagokionez. Gastu eta diru sarreren artean ere desorekak sor daitezke, gastuen igoerari aurre egiteko nahikoa diru-sarrera jasoko ez direla aurreikusten delako; beraz, Udalak beste finantzaketa bide batzuk erabili beharko ditu gastuei aurre egiteko. Zoritxarrez, planifikaziorik eza udal jardunera ere hedatzen da, gobernu eratu eta sei hilabetera, oraindik, kudeaketa planik ez eta legegintzaldi planik aurkeztu ez dugutelako, eta horiek ezinbesteko tresna dira gure udal jarduna behar bezala aurrera eramateko", azaldu du Miren Elgarrestak.

Hiru proiektu herribuserako

Herri barruko mugikortasunerako samurtasunak ematea da herribusak duen helburua. Erdigunetik urruti bizi diren horiek herrigunera gerturatzeko, baina baita alderantziz ere. Hiru proiektuetan geldituak eta ibilbideak zehaztuta daude. Aukera ezberdinen arteko diferentzia nabarmena da lantokietara joateko zerbitzua barne sartzen den edo ez. Otsailean du bilera Udalak ULMA taldeko ordezkariekin, eta gaiaz berba egingo dute. Aurreko bilera batean, elkarlanerako jarrera ona ikusi dute udal ordezkariak.



Olabarrieta eta Zubillaga lotuko lituzke herribusak. | O.E.

niko dira, horietako bat urritasunak dituen pertsona batendako. Gai delikatuak izango da, baina saiaturako gara prozesua malgutasun osoz bideratzen", zioen Mikel Biainek.

Urrian geratuko da kale garbiketaren zerbitzua Udalaren esku. Orain zerbitzu hori zuzentzen duen FCC enpresarekin kontratua etetea eta zerbitzua Udalak zuzenean kudeatzea atzo egindako urtarileko osoko bilkura gai zerrandan zuten zinegotziak.

Kale garbiketaren zerbitzuak hartu du, hain zuzen ere, datorren urteko aurrekontuen zati handi bat, 500.000 euro. Inbertsioak, baina, beste esparru askotan ere egingo dira, hala nola Herribus proiektua martxan jartzeko (150.000 euro), bidegorriaren azken zatia egiteko (230.000 euro), Santa Ana-ko teilatua konpontzeko, Zubillaga auzoa eraberritzeko (250.000 euro), Foruen plazako kioskoari estaldura jartzeko, argiteria publikoa aldatzeko efizientzia energetikoa optimizatzeko aldera (110.000 euro) diru laguntza gazteendako alokairurako (50.000 euro) eta gaztelekuaren ekipamendua segurtasun neurrietara egokitzeko lanak egiteko (45.000 euro).

Adostasuna

Alderdi jeltzaleak egindako ekarpenak ere aurrekontuen txostenean jaso ditu EH Bilduk, oposizioak proposatutakoari erantzuna emanda. Ekarpenteko batzuk ondo ikusi ditu Udal Gobernuak eta horiek gauzatzeko diru partida



Eraikinaren aurrean dagoen belargunea. | O.E.

Ariketak egiteko gailuak Eltzia parean

Postetxearen aurrean dauden ariketak egiteko antzerako gailuak jarriko dituzte Eltzia eraikinaren parean. Bestalde, San Martin auzoko parkea handitu egingo dute; otsailean jasoko du Udalak lan horien proposamena. Olakuako dorre aurreko kirolgunea ere eraberrituko da aurten. Udalak egoki ikusten du proiektu horretan Olakua taberna inguruko irisgarritasun lanak ere sartzea.

ere zehaztu du kasu batzuetan. Esaterako, gaztetxoendako irakurketa taldeak sortzea proposatu du EAJk. "Bularretik Mintzora bezalako programak badaude umeendako eta nagusien Tertulixan irakurketa taldeak ere bai, baina hutsune bat ikusten dugu 13 eta 18 urte arteko gaztetxoendako eskaintzan. Adin tarte hori da, gainera, irakurtzeko ohiturari eustea gehien kostatzen den sasoi eta gaztetxoendako irakurketa klubak sortzea ondo ikusiko genuke, euskarri digitalak erabiliz, adibidez", aipatu zuen Amaia Erostarbe jeltzaleak. Udal Gober-

nua ados dago ideia horrekin eta 5.000 euro gorde ditu hori gauzatzeko. San Martin parkea kanpoko ekintzetarako egokitzea ere proposatu du EAJk, eta aurrekontuetan 15.000 euro gorde dira hango bide zidorra hormigoia edo bestelako elementu gogorrik gabe sendotu eta egonkortzeko. Energia berriztagarrien erabilera handitzeko plana egitearekin ere ados agertu da EH Bildu.

Aldiz, Udal Gobernuak baztertu egin ditu, oraingoz, txirrindularitza entrenamenduetarako indoor leku bat eta Urrutxu egokitzeko proiektua.

Kontzertua eta trekkinga Nepal diruz laguntzen jarraitzeko

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Joan den urteko maiatzean Nepalen gertatu zen lurrikararen ondorioz sortu zen Oñatiko Nepal Lagunduz taldea. Hara bidaltzeko dirua batzeko lanean hasi zen orduan, eta, ia urtebete pasata, lanean jarraitzeko borondate osoa duela adierazi dute taldeko kideek. Hala, Jean Mixel Bedaxagarren kontzertua antolatu dute otsailerako edo martxorako. Iraile-rako, berriz, Everest aurrez aurre ikusiko den hiru asteko elkartasun trekking bat.

Horrekin batera, denbora honetan herritarrek laguntzeko izan duten prestutasuna eta herriko talde ezberdinen artean sortu den elkarlana azpimarra-

tu gura izan dituzte kideek. "Jaso dugun babesa nabarmena izan da eta eskertzekoa herritarrek izan duten jarrera ona", aipatu du Urko Egañak.

Taldea sortu zenetik hona 6.000 euro batu dituzte eta bi proiektu babesteko erabiliko dute. "2.500 euro bidali ditugu Chaurikharka herriko etxeak konpontzeko. Bi nafar ari dira horretan lanean eta badakigu bidalitako diru guztia helduko dela", azaldu du Felipe Uriartek. "Beste 2.500 euro Eduarne Pasaban buru den elkarte batek duen Dhola proiektura bidaliko ditugu", jarraitu du Gaizka Galfasorok.

Nepalerako dirua biltzen jarraituko dute



Nepal laguntzaileak eguazteneko prentsaurrekoan. | M.B.

Herriko 192 gaztetxok hartuko dute parte Kantari saioan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Herriko 7 eta 11 urte arteko 192 gaztetxok hartuko dute parte Goienaren Kantari karaoke saioan. Asteburu honetan dituzte entsegu orokorrak, zapatuan eta domekan, gaztelekuan.

Izena eman duten 192 gaztetxoak 45 taldetan daude banatuta eta talde bakoitzari kanta bat egokitu zaio, zozketa bidez. "Entsegu hauek ez dira abestia eta dantza ikasteko. Ikasita

ekarri behar dituzte bata zein bestea. Grabazio egunean bezala, tokatu zaien kantua era instrumentalean entzungo dute entseguan, letrarik gabe. Entseguen helburua da agertokia ezagutzea eta beldurra uxatzea", dio saioaren arkezleak, Amaia Txintxurretak. Aitor Agiriano-ren eta Unai Legardaren laguntza izango dute gaztetxoek bihar eta etzi. Grabazioak otsailaren 13an eta 14an izango dira.

50 urte hauetako pasarte, argazki eta ekarpenak jaso gura ditu Txantxiku Ikastolak liburu batean

Txantxiku Ikastolak 50 urte beteko ditu datorren ikasturtean eta urte hauetako bizipenak liburu batean jaso gura ditu. Horregatik, guraso, ikasle zein langile ohien pasarte eta ekarpenak jaso gura ditu. Baita argazki zaharrak ere; lehen urteetakoak, batez ere. Ikastolako idazkaritzara eramanda, telefonoz (943 78 12 04) edo posta elektronikoz (txantxiku@ikastola.eus) helaraz daiteke materiala.

Mozorroak jantzita, dantzan eta kantuan ospatu gura dute Pake Lekun Egun Gizen eguna

Aratusteen atarian, Pake Leku erretiratuen elkartearen egin dute plana Egun Gizen egunerako: txorizo ogitartekoak, edaria eta dantzaldia egongo da gura duen guztiendako. Zuzendaritzako kideek mozzorrotuta joateko gomendioa luzatu diete elkarteko kideei. Ogitartekoendako eta edariarendako txartelak gaur, egubakoitza, eros daitezke Pake Lekun, 18:30etik 20:00etara.

AURTENGO AURREKONTUAK SAILKA

| SAILAK | GASTUAK 2015 | GASTUAK 2016 | ALDEA 2016-2015 | % 2016/2015 |
|---------------------------------------|----------------------|-------------------|------------------|---------------|
| Komunikazioa eta parte-hartzea | 151.580,00 | 842.658,55 | 691.078,55 | %455,92 |
| Gizartea zerbitzuak | 1.922.881,17 | 2.642.701,81 | 719.820,64 | %37,43 |
| Kirola | 1.060.990,34 | 1.228.331,42 | 167.341,08 | %15,77 |
| Kultura | 1.516.833,55 | 1.081.984,55 | -434.849,00 | -%28,67 |
| Barne antolaketa | 6.384.098,80 | 6.613.565,36 | 229.466,56 | %3,59 |
| Sozioekonomia | 514.872,81 | 529.005,27 | 14.132,46 | %2,74 |
| Lurralde antolaketa | 4.416.822,24 | 5.929.412,00 | 1.512.590,00 | %34,25 |
| Aisialdi hezitzailea | 774.589,88 | 892.149,88 | 117.560,00 | %15,18 |
| GUZTIRA | 16.742.668,79 | 19.759.809 | 3.017.140 | %18,02 |

Urdelardero egunarekin hasiko dira Eskoriatzako Inauteriak

- ▶ Baserritar jantzita eta ziria janariz beteta, kantuan ibiliko dira gaztetxoak
- ▶ Mozorro desfile-lehiaketa otsailaren 6an izango da, 13:30ean

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Eguen Gizenean, otsailaren 4an, ospatuko da Urdelardero, eta egun horretan hasiko dira Inauteriak Eskoriatzan. Umeak, goizean, baserritar jantzita irtengo dira kalera, ziria eskuan dutela; sagarra, txorizoa... askotariko jakiak barruan sartuta eroango dituzte. Kantuan ere arituko dira etxez etxe, eta, trukean, gozokiak botako dizkiete herritarrek leiho eta balkoietatik.

Arratsaldean, Korri eta Salto pailazoak izango dira, 17:00etan, Zaldibar antzokian, eta, hauen ikuskizuna amaitzean, 18:15 aldera, txokolatea bizkotxoekin jateko aukera izango da plazan. Horretarako, nor bere edalontzia eraman behar du. Txokolatearekin indarrak hartu ondoren, Inauterietako dantza egingo dute herritarrek plazan. Dantza egiteko entseguak urtarilaren 24an egin zituzten frontoian, eta domeka honetan, hilaren 31n, 18:00etan batuko dira entseatzeko.

Zapatuan, otsailaren 6an, mozorroen eguna izango da, eta 13:30ean desfilea izango da herrian zehar. Hain zuzen ere,



Urdelardero egunerako dantzak entseatzeko. | IMANOL SORIANO

Huheziko aparkalekura edo kultura etxera joanda eman behar da izena, alde zuzenetik. Talde bakoitzak zenbaki bat eroango du, desfilean noren atzetik joan behar duen jakiteko. Desfilea bera lehiaketa ere izango da, eta egiten ari diren bitartean erakustaldi bat egingo dute parte-hartzaileek. Sari banaketa, berriz, arratsaldeko zazpietan izango da, herriko plazan.

Herri bazkarirako txartelak

Urtero moduan, herri bazkaria Joseba Inurrategi frontoian izango da, 14:30ean. Makarroiak bolognesa erara, oilasko-bularkiak saltsan eta txokolate-tarta izango da menua. Txartelak salgai daude dagoeneko Goxo Txikin eta Inkernu tabernan; helduek 15 euro ordaindu beharko dute eta 14 urtera arteko gaztetxoek, berriz, 10 euro. Txartelak erosteko azken

eguna otsailaren 2a izango da. Bestalde, mahaia erreserbatzeko aukera egongo da. 943 71 46 88 telefonora deituta, *kultura@eskoriatza.eus* helbidera idatzita edo Whatsapp bidez, 650 49 51 66 zenbakira mezua bidalita.

Bazkaldu ostean, 16:00etan, zezentxoak eta txikienentzako poneyak egongo dira Gorosarri plazan, eta, ordu berean, Egan taldearen dantzaldia hasiko da plazan.

Ikastxeetakoen jaialdia

Inauteri-martitzenean, hilak 9, umeen jaialdia egongo da frontoian, 10:30ean hasita. Arizmendi Ikastolako eta Luis Ezeiza herri eskolako ikasleek hartuko dute parte, eta azken asteotan entseatzeko ibili diren abestiak eta dantzak eskainiko dituzte. Amaitzeko, txistorra izango da parte-hartzaile guztientzat.

Kukumarroak eta DJak

Eskoriatzako pertsonaia nagusiak diren kukumarroak izango dira arratsaldean. Jendea zirikatzen eta beldurtzena irtengo dira, eskuan puxika dutela. 17:00etan irtengo dira kultura etxetik, eta, ohiturak dioen moduan, umeen irainak entzun beharko dituzte. Esate baterako: "Kukumarro, txorimalo!".

Eguna amaitzeko, berriz, DJak izango dira herriko plazan, 18:00etan. Josu Rodríguez eta Jon Tirapu ETBleko *Gu ta gutarrak* programako bi protagonista izango dira 20:00ak arte askotariko musika estiloak jartzen.

NIRE USTEZ



MAIDER OTAMENDI

Erabili gaitzazue!

Nire bizitzara aldaketak iritsi dira, espero ez nuen eginkizun berrietan hasia bainago!

Espainiako hauteskundeetarako EH Bilduk herriz herri eginiko batzarretan, Madrilen gure ordezkariak izango zirenak aukeratu ziren, eta, ondorioz, Eusko Legebiltzarrean gipuzkoarren ordezkarietako bat zen Marian Beitialarrangoitiak legebiltzarkide eserlekua utzi du; bere hutsunea nik bete dut. Lan bikaina egin du, eta langa oso altu utzi dit, baina ahalik eta ondoen egiten saiatuko naiz. Hasiera beti izaten da gogorra, baina ilusioz eta gogoz hartzen denean, errazagoa izaten da beti. Ilusioa soberan dut; beraz, ez dut uste egokitzea asko kostako zaidanik.

Lerro hauek aprobetxatu nahi ditut legebiltzarkideon papera zein den irakurleari azaltzeko, irudipena baitaukat ez dela oso ondo ezagutzen, edo ez dugula ondo azaltzen.

Gobernuaren kontrola egiteaz gain, gu herriaren ahotsa izan beharko ginateke, bere bozgorailua, egunerokotasunean herritarrok kezkatzen gaituzten gaien inguruko iritziak pentsaera ezberdinekoen artean eztabaidatu eta gobernuari ezaugarazteko ardura dugunak.

Beraz, erabili gaitzazue zuen kezka helarazteko. Jarri zaitezte gurekin harremanetan. Denon zerbitzura gaude, edo egun beharko ginateke, behintzat; bestela, oker gabiltza!

"Ilusioz eta gogoz hartzen denean, errazagoa izaten da beti"



INKERNU

Mus txapelketa arrakastatsua

Inkernu tabernan jokaturako mus txapelketan bost bikotek hartu zuten parte, eta Jose Juan Zubizarreta eta Felix Berasaluze izan ziren txapeldunak. Bigarrenak *Patás* eta *Txapel* izan ziren eta hirugarrenak, berriz, Larra eta Oiarzabal.

Dorleta elkarteko bazkideak lokal berri baten bila ari dira

I.B | ESKORIATZA

Santa Marina plazan dagoen Dorleta elkarteko kideek, urtero moduan, batzarra egin zuten irailean. Bertan azaldu zen lokalaren egoera oso txarra dela; izan ere, datorren urtean 60 urte beteko ditu, eta mantentze-lanik ezak itogin ugari eragin ditu.

Horren harira, Josu Barandiaran Dorleta elkarteko presidentearen arabera: "Alokairuan gaude, eta etorkizun gutxi duen obra egiteko, lokal berria erostea pentsatu dugu, etorkizunera begira hobe dugulako".

Hainbat aukera dituzte esku artean elkarteko kideek, eta proposena elkarte aurrean dagoen lokala dela uste dute. Hala ere, lokal bat erostea kostu bat dakar, eta horretarako bazkide bakoitzak 4.000 euro jartzea erabaki dute.

Bazkide bila

Josu Barandiaranen arabera: "Batzuek dena kolpean jarri dezakete, baina zortzi urtera ordaintzeko aukera ere jarriko dugu". Bestalde, proiektu berria martxan jartzeko bazkide berriak egin gura dituzte.

Jon Basaguren musikariak emanaldi akustikoa egingo du

Jon Basaguren musikariak emanaldi akustikoa eskainiko du gaur Inkernu tabernan. Atxorrotx kultur elkarteak antolatutako kontzertua 22:30ean izango da. Izaki Gardenak taldeko kidea bakarlarri moduan izango da oholtza gainean, folk eta amerikar doinuak dituzten abestietan sakontzen.

Umeentzako 'Pim eta Pom' filma izango da ikusgai domekan

Marrakzi bidadun filmaren proiektioa 17:00etan izango da, domekan, Zaldibarren. Pim eta Pom katu bihurriak dira eta euren jabearen bi ilobak, Tracey eta Stacy, bisitan joango zaizkie. Katuek parkera eramateko baimena eskatuko dute, baina neskatila maltzurrek nahi dutena da katuak lapurtu eta eurekin beste hiri batera eramatea.

Kinttada Egunerako prest daude eskoriatzarrak

Zapatu honetan, urtarilaren 30ean, ospatuko da bosgarren aldiz Kinttada Eguna Eskoriatzan, eta jai handia egotea espero dute herritarrek. Hainbat kinttada batuko dira eguerdi aldera, eta giro onean poteoa egingo dute. Ondoren, bazkaria egingo du nor bere adinekoekin, eta, horren ondoren, lagun artean festa egingo dute.

Aingeru Guarda ibilbidea, 23

627 140 961 | furgo@ibiltariak.com

20540 Eskoriatza, Gipuzkoa

IBILTARIAK
CAMPER EKIPAMENDUAK

www.ibiltariak.com

Ion Lizarazu | Sistema Informatikan ingeniari teknikoa

"Sarean sentimenduak euskaraz azaltzea ere interesgarria da"

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Sticker-ak (emotikonoak) eguneroko komunikazioaren parte bilakatu dira. Ion Lizarazu antzuolarrak *eusticker*-ak sortu ditu Telegram aplikaziorako, euskal pertsonaien aurpegiekin.

Nola sortu zen ideia?

Memelariak euskarazko kanpainaren berri izan nuen. Eta konturatu nintzen memeak sortzeko orduan ez daukagula euskal erreferenterik, ez baitugu hauek erabiltzeko ohiturarik izaten. Hala, Telegram ematen duen askatasunaz baliatuta, pentsatu nuen gure sentimenduak azaltzeko garaian interesgarria izango zela gure egunerokoan euskal erreferenteak edukitzea.

Izan ere, garrantzitsua da euskarak presentzia izatea sarean.

Ez dago inongo dudarik. Twitterren sortu den euskal komunitateak, esaterako, euskarari laguntzen dio euskal transmisioan eta baita hedapenean ere.

Zein pertsonaia sortu dituzu?

Googlen bilatutako argazkiak dira. Pertsonaia ezberdinen emozioak aurkezten dituzten irudiak hartzen saiatu naiz ondoren emotikonoekin lotzeko. Porrotx pozik,



Lizarazu, *eusticker*-en egilea. | MAIDER ARREGI

Korta haserre, Pello Zabala eguzkitako betaurrekoekin, Kike Amorriz, Irujo...

Oihartzunik izan dute *eusticker*-ek?

Hasieran zaila da ezagutzera ematea, baina Twitter bidez hedapena izan dute eta joan dira zabalitzen. Paketea azaroan sortu nuen. Twitterren zabaldu nuenean jendeak gustura hartu zuen. Batzuek proposamenak ere egin dizkirate eta erabiltzen dituztela esan didate.

Eta protagonistek zer esan dizute? Haserriker eragin du?

Andoni Agirregomezkortak Twitterren aipamena egin zuen eta jakinaren gainean dagoela badaikit. Ez zuen ezer onik ez txarrik esan. Oraingoz, haserrikerik ez du eragin; hala balitz, ez legoke irudi horiek kentzeko arazorik.

Nola eskuratu daitezke?

Nahikoa da norbaitek *sticker* bat Telegrameko mezu bidez bidaltzea eta ondoren *eusticker*-aren gainean zapaltzea. Twitterren ere *link*-a botata daukat; beraz, norbaitek interesik badu, hortxe aukera!

649 kilo elikagai Saharako errefuxiatuei laguntzeko

M.A. | ANTZUOLA

Anelkarko kideak pozik azaldu dira herritarrek aurten ere Saharako errefuxiatuekiko erakutsi duten elkartasunagatik, iazko elikagai bilketa kanpainako datuak gaintu egin ituzte-eta antzuolarrak. Aurten 52 kaxa eta 649 kilo elikagai batu dituzte; iaz 40 kaxa eta 612 kilo elikagai batu ziren. "Herritarrei gure esker ona adierazi gura diegu aurten ere ahalegina egin

izanagatik", adierazi dute Anelkarko kideek.

Laguntza ekonomikoa

Baina aurten laguntza ekonomikoa ere eskatu dute Saharako bidaltzeko: "Urriko uholdeek dena suntsituta utzi dute. Aurten premiazko laguntzaren beharra dute, eta dirua batzen gabilta. Diruz lagundu gura duenak banketxeetan ditu kontu korrontek zabalik".



Astelehen arratsaldean bildu zituzten elikagaiak kaxatan. | MAIDER ARREGI

Mikel Larrea eta Andoni Rodriguez musean txapeladun

M.A. | ANTZUOLA

Giro ezin hobean jokatu da aurtengo herriko mus txapelketako finala Arin jatetxean. Parte-hartze handia eta herriko zaletasuna azpimarratu dituzte antolatzaileek.

Mikel Larreak eta Andoni Rodriguezek osatutako bikoteak eskuratu zuen domeka arratsaldean txapela, eta Beñardo Kortabarria alkatearen eskutik

jaso zuten garaikurra. Orain, Euskal Herriko txapelketan du bikote antzuolarrak burua. Izan ere, herriz herriko kanporaketak otsailaren 20an jokatuko dira; final handia martxoaren 5ean Urdaibaiaren egingo dute.

Jon Madariaga eta Kepa Etxaniz bikote gazteak eskuratu zuen bigarren postua. Hirugarrenak, berriz, Ibon Zabalo eta Kepa Irizar izan ziren.



Irabazleak Jesus Kortabarriarekin eta alkatearekin. | MIKEL LIZARAZU

Erretiratuen eskutik umorea nagusi

Martitzen arratsaldean Torresora aretora herritar ugari joan zen Oñatiko Ikusi Makusi antzerki taldearen antzezlan berria ikustera. Landatxoep antolatuta, 80 bat erretiratuk *Hospital o manicomio?* lanarekin gozatu zuten. Barre algarak izan ziren nagusi publikoaren artean.



JOSU BILBAO

Parte-hartzeari buruzko saio irekia egingo du Sortuk bihar, zapatua

"Antzuolarrondako parte-hartzea zer den eta nola parte hartu genezakeen hausnartuko dugu", azaldu du Sortuk. Saio irekia bihar, urtarrilak 30, goizeko hamarretan Olanan etxean egingo dute. "Aurrera eramaten gabiltzan saio hauen bitartez herrigintzan eragin nahi dugu. Elkarre zein norbanakoei baliabideak eta hausnarketarako guneak zabalduz".

Gaztelugain elkartearen bazkide berriak hartuko dituzte

Antzuolako Gaztelugain elkartearen bazkide izateko aukera dute herritarrek. Hala, interesa duten antzuolarrak Gaztelugain elkartearen bazkide kideren batekin harremanetan jarri beharko dute eta bazkide izatearen gaineko xehetasunak adostu. Telefono zenbaki honetara deitu dezakete informazio bila: 605 74 37 76.

Herrera de la Manchako kartzelara martxa otsailean

Ezker abertzaleak antolatuta, espetxetara martxak egingo dira otsailaren 20an. Hala, antzuolarrak Herrera de la Manchako kartzelara joango dira *Eltzikorta* herriko presoaren gaitasuna eta beste 12 presoaren gaitasuna. "Herritarrek parte hartzea animatu gura ditugu; joan ezin duenak bidaia gastuak ordaintzen lagundu dezake".

Arrolaren 'Natura eta mendia' argazki lehiaketa abian da

Mendia eta natura ardatz dituen argazki lehiaketa martxan dago. Zuri-beltzeko zein kolorezko argazkiak onartuko dira eta laborategiko edozein teknika erabil daiteke. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki bidali ahal izango ditu arrolamt@gmail.com helbidera. Otsailaren 11 baino lehen bidali behar dira.

Udal Gobernuak lan ildo berri emateko batzarra egingo du

Antzuolako EH Bilduk batzar irekia antolatu du otsailaren 3rako, Olanaren, 18:30ean. Bertan, hauteskunde balorazioa egin eta Kongresuan hartu beharreko erabakien gainean eztabaidatuko dute. Udal Gobernuak lan ildo nagusien berri ere emango du. "Proiektuarekin bat egiten duen oro dago batzarrerara gonbidatua".

Eztarriak sano dituztela erakutsiko dute bihar

Plazan elkartuko dira; eta ondoren, bi taldetan banatuta ibiliko dira herriko auzoetan abesten

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Bihar, zapatua, Santa Agedaren omenez kantuan irtengo dira aramaioarrak. Santa eske herrikoa egingo dute 10:00etan hasita. Plazan izango dute hitzordua. Bi taldetan banatuta ibiliko dira kantuan herriko auzoetan.

Talde batek Eguzkierripa aldeara egingo du eta besteak, Zalgotik Arraga aldera. Kantuan ibili ostean, Iturrieta sagardotegian elkartuko dira denak bazkaltzeko. Arratsalde partean kalean ibiliko dira.

Bertsokak eta trikitia

Lau talde ibili dira antolakuntza lanetan: bertsolariak, trikitilariak eta Bizente Goikoetxea eta Pappargorri abesbatzak. Hala, gurean ezagunak diren Santa Ageda abestiez gain, bertsolariek bat-batean abestuko dute, eta trikitilariak musika jarriko dute.

Iluntzean erretiratuen elkarrean egingo dute afaria, egunean zehar jasotako jeneroarekin.



Santa eskean irteteko egin zuten lehenengo entsegua. | XABI IGOLA



Beñat Hach Embarek umeei azalpenak ematen. | IMANOL SORIANO

'Smara' liburuak Sahara hobeto ezagutzeko aukera eman die

MAITE TXINTXURRETA | ARAMAIO

Duela bi urte hasi ziren San Martin eskolan *Ir a kurrin kurrin* egitasmoa lantzen, eta egubakoitzekoa laugarren saioa izan zuten, orain arteko jendetsuena: "Txundituta gaude, eta pixka bat gaudituta ere bai", azaldu du Mari Karmen Garrido irakasleak. Hirurogeita hamar lagun bildu ziren joan zen asteko ekitaldian.

Lehenik, kuskusa jan zuten, eta, ondoren, Beñat Hach Embarek euskaldun sahararra bere herriaren bizimoduari buruz mintzatu zitzaion, parte hartzaileek aurrez irakurri zuten *Smara* liburu ardatz hartuta.

Ideiak elkarbanatu

Irakurle bakoitzak liburuko pasarte bat aukeratu behar zuen, eta taldekideekin elkarbanatu: "Ideia da denok zerbait ekartzea taldera, irakurri dugun liburua hobeto ulertzeko".

Eskolako irakaslearen esanetan, *Ir a kurrin kurrin* "ikasleei liburuak dibertigarriak direla" erakusteko modu bat da. Urtero bi saio egiteko asmoa daukate San Martin eskolan. Saioak oporren ostean egiten saiatzen dira, opor garaian ikasleek liburua irakurtzeko astia izan dezaten. Hurrengo, beraz, Aste Santuaren ostean, maiatzean, egin nahi dutela dio Mari Karmen Garridok.

Datozen lau urteetan auzo-alkate izango direnen zerrenda

Joan zen domekan bozketa bidez aukeratu zuten Ibarra A guneko ordezkaria izango dena

A.E. | ARAMAIO

Udalak osatu du datozen lau urteetan auzo-alkate izango direnen zerrenda.

"Auzo alkateak garrantzitsuak dira herritarren eta Udalaren arteko harreman zuzena eta hobea lortzeko", dio alkateak. Auzo bakoitzak bere modua du auzo-alkatea erabakitzeko. Ibarra, esaterako, bozketa bidez aukeratzen dituzte bi auzo-alkateak.

Bigarren bozketa

Joan zen domekan, urtarrilaren 24an, egin zuten auzo-alkatea aukeratzeko bozketa Ibarra Ibarra, Aita Gabirelen, Bizente Goikoetxea plazan eta Iturzurin. Lehenengo aldian, zonakoa ez zen pertsona bat irten zen bozkatuena, baina, bere gunea ez zenez, uko egin zion.

Auzo-alkateen funtzioen gaineko hausnarketa egin nahi du Udalak, eta figura horiekin duten hartu-eman sakondu.

AUZO ALKATEAK

Altzaga: Benito Kortabarria.

Arexola: Miguel Loiti.

Arraga: Iker Olaziregi.

Arriola: Jon Ortueta

Azkoaga: Juanito Saizar.

Barajuen: Gorka Astondoa.

Eguzkierripa: Ander Flores.

Etzaguen: Etor Goikoetxea.

Gantzaga: Amaia Irizar.

Matxain: Alaitz Elexpuru.

Untzilla: Jesus Agirre.

Uribarri: Alazne Ibabe.

Zalgo: Xabier Herboso.

Ibarra A: Pepe Carretero.

Ibarra B: Fernando Perez.

Inoiz baino familia gehiago behar dira Saharako umeak etxean hartzeko

A.E. | ARAMAIO

Sahara Eutsi elkarteak *Oporrak bakean 2016* programa martxan jarri du. Helburua da uztailean eta abuztuan 10 eta 12 urte bitarteko haurrak errefuxiatu kanpamentuetatik ateratzea. Hala, bi hilabete horietan desertuan izaten dituzten tenperatura altuetatik ihes egingo dute.

Uholdeen eragina

Urriaren izan zituzten uholdeen eraginez, aurten inoiz baino familia gehiago behar dira, milaka haurrek handik ateratzeko beharra dute eta. Interesatuek, idatzi saharaeutsi_elkarrea@hotmail.com helbidera edo deitu 679 828 784 eta 647 318 565 telefono zenbakietara.

OHARRAK

FUTBOLA

Aramaioko futbol taldeak saski eder bat zozkatzen du urtero egutegiarekin batera. Aurtengo zerbaki saritua 310 da. Oraindik ez da zerbaki saritua due-nik agertu.

KZGUNEA OTSAILEAN

KZgunean dinamizatzailea otsailaren 3an eta 17an egongo da. Ordutegia izango da 11:00etatik 13:00etara. Egun horietan dinamizatzaileak hainbat azalpen eskainiko ditu.

BASOGINTZA ZERBITZUA

Arabako Basogintza Elkarteak jendaurreko zerbitzua eskainiko die baso-jabeei Aramaio Udalean urte osoan zehar, hilean behin. Hurrengo hilean, otsai-

laren 18an eskainiko dute jendaurreko zerbitzua, 9:15etik 15:00etara. Argibide gehiago gura izanez gero, deitu 686 13 18 00 telefono zenbakira.

GORBEIALDEA

Nerabeei zuzendutako ginkana egingo dute Gorbeialdean. Proba samur eta dibertigarrien bitartez sare sozialetan eta Interneten euskara erabiltzeko aukerak ezagutaraztea da helburua. Otsailaren 12ra arte izango dute izena emateko aukera. Horretarako, mezu bat bidali behar da go.ginkana@gmail.com helbidera ondorengo datuekin: izen-abizenak, taldean aurkeztuz gero taldearen izena, adina, kontaktua eta ikastetxearen izena.

San Martin eskolan matrikula egiteko epea zabalik dago

2016-2017 ikasturterako matrikulazio epea zabalik dago. Datorren otsailaren 5era arte egongo da horretarako aukera. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrei zuzenduta dago -2 eta 12 urte bitarteko haurrei, hain zuzen-. Matrikula egiteko edo informazio gehiago jasotzeko eskolara bertara jo daiteke 9:00etatik 16:30era bitartean; 945 44 50 04 telefono zenbakira deitu daiteke; edo idatzi aramaioeskola@aramaioeskola.eus helbidera.

Patxi Salaberrik Arabako herri guztien izenak batu ditu

Araba / Álava. Los nombres de nuestros pueblos liburua argitaratu berri du Patxi Salaberri euskaltzainak. Lanak Arabako toponimia nagusia aztertzen du eta Euskaltzaindiaren *Izenak* bildumaren barruan argitaratu dute, Arabako Foru Aldundiaren babesarekin. Izen horien inguruko azalpen guztiak eskaintzen ditu: herriaren izen arautua, dokumentazio aldaerak, euskal mikrotoponimiako lekukotasunak eta etimologia biltzen ditu, gehienetan.

ELGETA

Epeleko hondakindegia kezka iturri Elgetako Udalean ere

Informazio guztia partekatzeko eskatu dio EH Bilduk Mankomunitateari

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Martitzenean egin zuen udalbatzak urtarrileko osoko bilkura. Gipuzkoako errefusa Epeleko hondakindegira eroatearen inguruan zabaldu den aukerarekin lotuta, Elgetako EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen eskatuz hondakindegia gaur egun ematen duen zerbitzua ematen jarraitzea eta "eskumena duten organoetan gaia sakon lantzea eta eztabaidatzea". Horrekin batera, Debagoieneko Mankomunitateari eskatu diote Epeleko Hondakindegia inguruan duen "informazio guztia partekatzeko". EH Bilduko zinegotzien babesarekin onartu zen mozioa. Gu Geu Elgetako ordezkariak abstenitu egin ziren. "Informazio gehiegirik ere ez daukagu (...) gauzak zertan diren jakiteko. Gainera, ez da oraindik Mankomunitateak proposamen zehatzik egin eta gauzak aurrerapen



Udalbatza, martitzenean egindako osoko bilkuran | L.Z.

moduan eztabaidatzen ari garela uste dugu", esan zuten.

Udalbatzak hartutako beste-lako erabakien artean daude errekreazioa egiteko erabiltzen diren armen kudeaketa Izarra enpresari ematea, Gureak taldearekin Udalak duen hitzarmena berritzea eta zabaltzea, eta Iñigo

Ibaibarriaga bake-epaile izendatzea. Udalbatzak erabaki zuen Eudelek negoziazio kolektiboarekin lotuta egindako proposamenari ez atxikitzea, argudiatuz dokumentu horretan Eudelek egiten dituen hiru proposamenak aplikatzea erabakita dagoela dagoeneko Elgetan.

Mozorroren festa dugu astebete barru!

L.Z. | ELGETA

Herri Eskolako neska-mutikoen moztorro kalejirarekin abiatuko dira Inauteriak, otsailaren 5ean. Eskolatik irtengo dira, 15:00etan,

eta, eguraldiaren arabera, plazan edo frontoian dantza jaialdia egingo dute. Txokolatea eskainiko du guraso elkarteak 16:30ean, eta 17:00etan umeendako jokoak

egingo dituzte. Udalak antolatuta, 18:30ean disko-festa izango da Espaloian Mariskal Dejairekin.

Gaztetxean herri afaria egingo dute. Prezioa hamar euro da eta interesatuek Haizea tabernan eman behar dute izena otsailaren 3a aurretik.

Aurreko eguneko ospakizunak

Otsailaren 3an San Blas opilak egingo dituzte eskolan 5 urteko gelatik gorako umeek. Eta otsailaren 4an Santa Ageda bezperako koplak abestera irtengo dira Lehen Hezkuntzako neska-mutikoak, 15:00etan. Plazan elkartuko dira Haur Hezkuntzakoekin batera azken koplak abesteko, 15:45ean.



Herri Eskolako neska-mutikoen moztorro kalejira, iaz. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

2015ean baino bost lagun gutxiago daude erroldan

127 gizon eta 109 emakume daude gaur egun

U.M. | LEINTZ GATZAGA

Jaitsi egin da bizilagun kopurua udalerrian, urte hasierako erroldaren arabera. 241 bizilagun izan ditu Leintz Gatzagak 2015ean, eta urtea 236 bizilagunekin hasi du -127 gizon eta 109 emakumezko-. Beraz, bost lagun gutxiago daude erroldatuta 2016ko hasieran.

Mugimendu migratzailea

Edozein modutan, jaitsiera ez da udalerrian gertatutako jaiotza-heriotzen ondorioa bakarrik; mugimendu migratzaileak ere izaten du eragina kopuru horretan.

Bestela esanda, udalerrian urtean izaten duen bizilagunen joan-etorria da, oro har, erroldaren gorabeherak eragiten dituena. Kasu horretan, 15 lagun joan ziren herriatik eta 11 etorri. Eta, hori bai, joan-etorri horren barruan kontuan hartuta daude jaiotza-heriotzak.

Jaiotza gehiago

Hain justu ere, azken puntu horri dagokionez, hiru jaiotza izan dira Leintz Gatzagan - bi mutiko eta neskatila bat-. Eta bi dira, berriz, iaz hildako bizilagunak.

LEINTZ GATZAGA

1a 453.000 euroko aurrekontua izango du udalerriak 2016rako

U.M. | LEINTZ GATZAGA

452.779,98 euro. Diru kopuru hori izango du Leintz Gatzagako Udalak 2016an erabiltzeko. Hala onartu zuen atzo -eguna- osoko bilkurak.

Iazko aurrekontuarekin alderatuta, %3 txikiagoa da kopuru osoa. Eta horren arrazoiak da udalerrian duen ondaretik eratorritako diru-sarrera gutxiago aurreikusitako dutela 2016rako.

Hain justu ere, eta Eneka Zankada alkateak esplikatu duenez, aurten 55.000 euro pasa gutxiago eskuratuko ditu Udalak zentzu horretan, iaz pinudi bat bota izanari esker lortu zuten-eta diru sarrera.

Aparkalekua bukatu

Gainontzean, inbertsioei dagoeneko, alkateak esplikatu du zeregin horretara bideratuko duten 22.500 euroetatik kopururik handiena erdigunerako egokitzen diharduten aparkalekuko obrak bukatzeko izango dela. Izan ere, Udalaren lehentasunetako bat turismoa bultzatzea izanda, Gatz Museora doazen bisitariendako -autobusendako, batez ere- azpiegitura egokiak behar dira. Eta aparkalekuaren orubean joan den astean izandako lur-jausiari dagokionez, egoeraren azterketari dagokion txostenaren zain segitzen dutela adierazi du Zankadak.



Marraski lehiaketako sarituak

Nora Etxabe, Amair Guridi eta Izar Irazabal dira Elgetako udal liburutegiak abenduan egindako marraski lehiaketako irabazleak. Martitzenean jaso zituzten sariak baita ere ekitaldira joandako senitartekoen eta lagun txaloak. Marrazkiekin, besteak beste, irakurpuntuak egingo ditu liburutegiko arduradunak.

Domekan, 19:00etan, gidatutako dantzaldia musika eta dantza tradizional ludikoekin osatua

Sokan, bikoteka, soltean, korruan, taldeka... denetarik. Helburua da animatzen diren herritarrek dantzan elkarrekin ondo pasatzea. Dantza gidaria: Patxi Montero. Laguntzailea: Elgetako Udala. Sarrera doan eta parte hartzea libre. Espaloia kafe antzokian.



Bost taldek hartuko dute parte bihar hastekoa den herri mailako areto futbol txapelketan

Azken orduko aldaketarik ezean bihar, zapatua, jokatuko dituzte txapelketako lehenengo bi partidak frontoian. Bost taldek eman dute izena eta bihar, 17:00etan, aurrez aurre izango dira Kokotxa eta Nahaste Borraste taldeak. Bigarren partida 19:00etan jokatuko dute Jaitxo eta Tzibaz United taldeek.

OHARRAK

AZKEN BARIKUA

Gaur, 20:00etan, presoen esku-bideen aldeko bilkura isila herriko plazan.

BISITA LUBAKIETARA

Domekan, 10:00etan, Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrotik abiatuta. Iraupena: hiru ordu eta erdi inguru.

Beharrezkoa da aurrez izena ematea: 943 79 64 63 edo 943 71 89 11.

BATZARRA EH BILDU

Elgetako EH Bilduk deituta, batzar irekia domekan, 19:00etan, udaletxean. Gaiak: udal jardunaren balorazioa eta aurrera begirako plangintza.

LEINTZ GATZAGA

'Gatza' erretratu liburua Labidean eros daiteke

Lau urtean Leintz Gatzagako bizilagunei ateratako argazkiekin osatutako liburua da *Gatza*. Udalerriko 72 familiaren argazkiak jasotzen dira bertan. Joan den maiatzean aurkeztu zuen Jose Felix Diaz de Tuesta argazkizaleak, liburuen egileak. Eta, harrezkero, 90 bat ale saldu dira.

Edozein modutan, oraindik bada liburua erosteko aukera, Labidea saltokian dago-eta salgai, 20 eurotan. Era berean, aukera dago liburu berean oinarritutako argazki-erakusketako argazkien kopiak eskuratzeko: 40 eurotan tamaina txikia eta 80 eurotan, berriz, handia.

| Amillena taldeko parapente pilotuak

"Hegaldi bakoitza ezberdina da, eta inguruan paraje ederrak ditugu"

- ▶ Hogeita bat bazkide ditu Amillena taldeak
- ▶ Kurtzebarrin eta Aloñan ibiltzen dira gehien

XABIER URZELAI | ARRASATE

Hegaztien moduan hegan egitea; askoren ametsa da hori, eta gutxi batzuek amets hori betetzeko pausoa ematen dute. Debagoienean ere badira parapenteaz baliatuta baso, mendi, tontor eta

herriguneak airetik behatzen dituztenak. Inguruan, Amillena parapente taldean batzen dira gehienak, eta kanpora joateaz batera etxean ere ibiltzen dira, inguruan hegan egiteko paraje ederrak daude eta.

Nondik sortu zitzaizuen parapentean ibiltzeko zaletasuna?

Jon Iriarte: Mendingian ibili izan gara gaztetatik, oinez, eskalatzeko, elurretan... eta betidanik izan dut hegan egiteko gogo. Hala, uda batean lagun batekin batera parapente eskola batera joan eta hegaldi bat egin genuen. Eta orduan hasi zen dena.

Haritz Oianguren: Bada, hain zuzen, duela urte batzuk GOIENAN irakurritako erreportaje batekin sartu zitzaidan harra. Elkarrizketatuak esaten zuen ez zela apartekorik behar parapentean ibili ahal izateko, eta probatzeko gogo sartu zitzaidan. Hasi nintzen Interneten informazioa batzen, bideoak ikusten, eta erabat obsesionatu nintzen. Gogoan dut azarora zela eta martxora arte ez zituztela parapente eskolak irekitzen. Ze luzeak egin zitzaizkidan hila-bete haiek...

Pisu galanta eramaten duzue bizkar gainean...

Iriarte: Hasierako urteetan daukazu motibazioaz konturatu ere ez zara egiten bizkarrean zer daramazun, edo ez zaizu horrenbeste axola. Baina orain, geroago eta garrantzi handiagoa ematen diot horri, konturatu naizelako bizkar gainean pisutzarra eramateak askotan ez duela konpentsatzen. Nire parapentea, esaterako, nahiko astuna da, eta mendi tontoretara igotzeko jada todoterrenoarekin ibiltzen gara [Barre].

Oianguren: Nire parapenteak 16 kilo inguru pisatuko du, eta pisu aldetik erdibidean dago. Badira arinagoak, 9 kiloren bultan dabilzanak, eta baita 22-25 kiloko parapenteak ere.

Eta hegaldi bat egin ahal izateko, parapenteaz batera, beste gauza asko eraman behar izaten dituzue aldean, edo?



Jon Iriarte eta Haritz Oianguren Harmailatik saioan izan ziren astelehenean. | XABIER URZELAI



Hegan, zurututako tontorren gainean. | HARITZ OIANGUREN



Hegaldia hasteko unean. | HARITZ OIANGUREN

Oianguren: Hegan egiteko ezinbestekoak dira parapentea bera eta jarlekua. Hortik aurrera, oso gomendagarria da larrialdietako paraxuta ere aldean eramatea, kaskoa, neguan arropa gehiago hartzea, mendiko botak, GPSa, irratia, ura, nahi bada argazki kamera... Baina poliki-poliki bagoaz pisua hartzen.

Horrenbestez, mendi bakoitzak igotzeko ematen dituen erraztasunak ere kontuan izaten dituzue. Hau da, gutxitan igotzen zarete Udaltxera, esaterako.

Iriarte: Badira mendingian gora parapentearekin gustura ibiltzen direnak, sasoiak daudelako eta ekipazio arina daukatelako. Udaltxeraren esaterako, hegaldia hasteko ez dago goraino igo beharrik, Elorrio aldeetik hasten ditugu hegaldiak, meatzetatik. Eta han malda gogorak daude, baina eroso da igotzeko.

Urrun joan barik, inguruan badira parapentearekin hegan egiteko leku proposak: Aloña, Kurtzebarri...

Iriarte: Kurtzebarri, adibidez, hegan egiteko oso leku ona da. Batetik, hegaldia hasteko leku oso aproposa daukalako, eta aukera ematen duelako leku berean lur hartzeko. Egun aproposa denean, oso baldintza onak egoten dira han hegan egiteko, eta hegaldia bera norabide askotan egin daiteke: Aloña aldera, Araba aldera... Daukan *handicap*-a da todoterrenoa behar dela, edo, bestela, izerdi apur bat egiteko gogo.

Hegan egitearen sentsazioak sekulakoa izan behar du; zelako bakea sentitu behar den han goian; baldin eta hegaldia lasaia bada...

Oianguren: Hegaldi bakoitza ezberdina da, eta denetarik egoten da. Batzuetan, ia loak hartzeko moduko hegaldiak izaten dira, eta erabateko lasaitasuna sentitzen da hala koetan. Eta beste batzuetan, haizea zakarrago badabil, bada, parapenteari hobeto eutsi behar zaio.

Lur hartzerakoan, esaterako, aparteko baimenak behar izaten dituzue?

Iriarte: Kostaldean, esaterako, bainu denboraldian ez dago baimenduta hondartzan lur hartzea. Ez dakit halakorik eginez gero zer gertatuko litzatekeen, isunen bat, salaketa... Baina neguan ez da arazorik egoten.

Oianguren: Gogoan dut, esaterako, Donostiako Gros hondartzan lur hartu genueneko hegaldia. Udaberria zen, eta beste inon zen hegan egin, oso kondizio bereziak zeudelako, eta sare soziale-tatik zabaldu zen jendea Donostia inguruan ibiliko zela. Bada, Orion hasi genuen hegaldia, Kukuarrin, eta hegaldi ederra izan zen, ia 100 pilotu batu ginen; Errioxatik, Burgostik eta Zaragozatik etorri zen jendea. Horrenbeste parapente zeruan batera ikustea... irudi hua ondo gogoan dut.

Batera eta bestera ibiltzen zarete?

Iriarte: Bai, baina, normalean, ezagutzen ditugun lekuetan egiten dugu hegan. Edo bestela, leku bat aproposa baldin bada, beti egoten da leku hori ondo ezagutzen duenik, eta hark ematen dituen aholkuei kasu egitea garrantzitsua izaten da: haizeak nondik eta zelan jotzen duen, ze ordutan komeni

"Garrantzitsua da lehenengo pausok parapente eskola batean ematea"

"Hasieran ez dago arazorik bizkarrean pisua eramateko; motibatuta zaude"



Amillena hainbat kide igo ziren.

Debagoienean Amillena izeneko parapente taldea daukazu.

Iriarte: Amillena izena nahiko berria da. Izan ere, talde hori 1987an sortu zuten, baina beste izen batekin; Ikarus zen orduan. Eta sasoi hartan, parapenteak baino gehiago, delta hegalek erabiltzen zituen jendeak. Poliki-poliki, baina, parapenteak garatzen joan ziren eta gaur egun kirol hori gehiago zabaldu da. Eta taldean, egun, 21 bazkide gaude. Ez dut esango ekimen mordo antolatzen dugunik, baina talde barrurako lehiaketak eta halakoak antolatzen ditugu. Esaterako, urtean ordu gehien hegan egiten duenak urte amaieran saria izaten du. Elkarren artean harremana mantentzeko erabiltzen dugu taldea.

Zeharkaldiak ere egiten dituzue, Kurtzebarrin hasi eta ahalik eta urrunen iristeko asmoarekin, esaterako.

Iriarte: Bai; hori ez dugu Amillena koon artean bakarrik egiten, Open barruan dago eta kanpoko edonor ere anima daiteke parte hartzera. Duela lau bat urte Fite-roraino iritsi zen lagun bat –Tutera ondoan, Nafarroan–, eta meritu handiko hegaldia da, 116 kilometroko distantzia betetzea ez da eta batere erraza.

Ondo dago hori, baina gero nor joaten da norbera jasotzera?

Oianguren: Asko maite zaituen bati deitu behar [Barre].

Iriarte: Hori da zeharkaldiek duten txarrena, gero etxera itzuli behar dela. Baina hori ere abenturaren parte da, autobusa hartu, auto-stop egin...

Parapentean hasi gura duenari zer gomendatuko zenioke?

Oianguren: Hasteko, parapente eskola batean emateko; besteok ere horrela hasi ginen. Nora jo erabakitze gomendoren bat behar badu, jar dadila gurekin harremanetan, eta edozertan lagunduko diogu. Eta gogoz dabilena animatu dadila, kirol honek ez du eta bereizketarik egiten. Fisikoki ez da aparteko ezer behar eta edonork egiteko moduko kirol jardura da. Gomendatuko nioke buruaz ibiltzeko, zuhur jokatzeko eta lehen aipatutakoa, lehenengo pausoak parapente eskola batean emateko.

Iriarte: Taldean badugu helbide elektronikoa bat: amillenahegan@gmail.com. Eta Facebook bidez ere jar daitezke gurekin harremanetan [Taldearen webgunea: www.amillenahegan.com].

Ez da kirol arriskutsua, baldin eta gauzak behar den moduan egiten badira.

Oianguren: Horregatik diot buruaz ibiltzearena. Eskola batean hasi eta aurrerapausoak poliki eman, parapente egokia aukeratu –denak ez dira berdinak–, hegan egiteko kondizio onak dauden edo ez interpretatzen ikasi... Eta norberaren muga non dagoen jakin. Horiek beteta, ez dago zertan arazorik egon.

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Azkoitian lehiatuko den taldeetako bat: gazte mailako arrasatearrak. | DRAGOI

GIMNASIA ERRITMIKOA

Debagoieneko gimnastak denboraldia hasteko gertu daude

Osasuntsu daude bailarako taldeak; Aloña Mendi, urteurreneko ospakizunetan murgilduta

XABIER URZELAI | ARRASATE

Ikasturtea hasi zutenetik gogor entrenatzen ibili ostean, Bergarako Ariznoa, Oñatiko Aloña Mendi eta Arrasateko Dragoi taldeetako gimnastak lehiatzen hasteko irrikan daude: "Osasuntsu dago taldea; gimnasta kopuru aldetik, esaterako, ez dauka gukexatzerik", adierazi du Ariznoako ordezkari Nagore Jimenez.

Arrasaten ere oso pozik daude daukaten gimnasta kopururakin: "Azken bost urteotan asko

hazi da kluba, 125 gimnasta ditugu aurten, eta oso datu pozgarria da hori. Txarrena da gehieneko muga jarri behar izan dugula, eta neskak ditugula itxaron zerrendan. Pena da horrela egon behar izatea, baina muga jarri behar izan dugu, gainezka egin aurretik", adierazi dio GOIENARI Dragoi taldeko Edurne Elkorok. Eta adierazi du gimnastek ondo entrenatu ahal izateko leku falta izaten dutela.

ATLETISMOA

Uribarrenek gertu ditu hamasei metroak eta Carrascal errekorrak birrintzen dabil

Arrasateko bi atletak protagonista izan ziren joan den zapatuan Anoetan

X.U. | ARRASATE

Joan den zapatua egun borobila izan zen Iñigo Uribarrenendako eta Eneko Carrascalendako. Kolpe bakarrean salto hirukoitzeko espezialista arrasatearrak erreferente bilakatu ziren, euren kategorietan –Espainia mailan– egindako markak gorritz markatzekoak izan ziren eta. Adibide bat jarzearren, duela 33 urte Iñaki Gonzalezek ezarritako Euskadiko errekorra (14,64) ondu zuen Carrascalek gazte mailan.

Parte-hartze libreko proban

Zapatuan gutxieneko markak lortzeko saioa izan zuten Anoetan. Eta batu ziren atleten artean Arrasateko hainbat ordezkari zeuden. Hala, Iñigo Uribarrenek eta Eneko carrascalek hegan egin zuten salto hirukoitzean. Uribarrenek "sentsazio ikusgarriekin" jardun zuen, eta lehenagotik pista estalian zuen marka ondu zuen (15,87). Poliki-poliki, geroago eta gertuago du 16 metroko marka. Eta Euskadiko



Iñigo Uribarren. | GOIENA



Eneko Carrascal. | GOIENA

erreferente izatetik Espainia mailan ere aurrealdean egotera pasa da. Hain zuzen, abenduan erakutsi zuen Uribarrenek sasoi onean zegoela, luzera-saltoan marka ederra eginda (7,18).

Carrascal, Europara

Baina gazte mailan Eneko Carrascal ez zen atzean geratu. Izan ere, 1983a ezkerko zeukan Iñaki

Asteburuan lehenengoa

Arrasatekoek asteburuan hasiko dute denboraldia, Azkoitian egingo duten amateur mailako eskola arteko txapelketan –zapatuan eta domekan–, eta Bergarakoek eta Oñatikoeak aurrerago hasiko dituzte txapelketak, otsailaren 20an egingo duten Gipuzkoako B mailako txapelketan. Hain zuzen, Ariznoaren ardura izango da txapelketa hori Bergaran antolatzea.

Zalantza barik, Oñatiko taldekoendako urte berezia izango da, klubak 25 urte betetzen dituelako eta urtea ospakizunetan murgilduta emango dutelako [Ikus *Puntua* aldizkarian Almudena Cid gimnasta ohiari egindako elkarrizketa]. Martxoan, esaterako, erakustaldi berezi bat egingo dute, leku ezohikoan, Santa Ana aretoan.

Ondo pasatzeko helburua

Hori da, hain zuzen, talde guztiek duten helburua: "Umeez kirola modu osasuntsuan egitea da gura duguna, eta gustura ibil daitezela", dio Jimenezek. Esaterako, Dragoiko aerobik taldeko neskak Espainiako Txapelketan –Bilbon– podiumera igo ziren iaz [*Harmailatik* saioan izango dira astelehenean, 22:00etan]. Lorpen handia izan zen; txapelketetan txukun jarduteko lan egiten dute, baina ibarreko taldeak ez dira emaitzeekin obsesionatzen: "Egon daitezela ahalik eta urte gehien gimnasia erritmikoa egiten, horrek poztzen gaitu. Erakusten duelako gustura daudela kirol jardura hau egiten", adierazi du Elkorok.

"Kurtzebarri oso leku ona da hegan egiteko, motibo askorengatik"

"Leku berri batera joatean komeni da bertakoen aholkuak jarraitzea"

Gaztetxoak izar distiratsu Kantarin

GOIENA | ARETXABALETA

Asteburuan egin dituzte Kantari karaoke ikuskizunaren lehen grabazioak Aretxabaletan, eta sekulako arrakasta izan dute. Arkupe kultura etxea parte-hartzaileen guraso, anai-arreba, aiton-amon eta lagunez bete zen

grabatu ziren hamar saioetan, eta gaztetxoek pozik eta ilusioz abestu eta dantzatu zituzten euskal abestiak. Askotariko jantziak eta ile-orrakkerak ikusi ahal izan ziren, ondo baino hobeto landutako dantzak egin zituzten eta ozen abestu zuten.

Gurasoak ere zoratzen

Bertaratu zirenen aurpegietan ere irribarre zabalak izan ziren nagusi. Mugikorreko kamerekin une guztiak hartu nahi izan zituzten eta txalo zaparradak etengabeak izan ziren. Kantari festa hasi besterik ez da egin!



Neskatoa gogotsu kantuan.



Realeko kamisetak aldean.



Suhiltzaileak kaskoak jasota kantuan.



Luma dotoreak lepotik behera.



Ondo entseatutako koreografiekin dantzan.



Kantuan eta dantzan egiteko itxura aldatuta.



Aretxabaletako neska-mutiko kuadrilla oholza gaanean.



Aitor Agiriano neska kuadrillarekin. | ARGAZKIAK: I. SORIANO ETA O. AGIRRE

Amala Txintxurreta
Kantariko aurkezlea.

5. ALDIA
Kantari

Oñatiko partaideok, eman azken errepassoa abestiari eta koreografiari!
Entseguak Oñatin
 Urtarrilaren 30ean eta 31n Gaztelekuan
Ikuskizunak Oñatin
 Otsailaren 13an eta 14an Gaztelekuan

Instagram* argazki lehiaketa:
 Oñatiko ikuskizuneko argazkiak bidali #goiena eta #kantari etiketak erabilita.
Saria: Tableta bat.
*Instagramek gomendatzen du bere aplikazioa 13 urtetik gorako umeek erabiltzea, Adingabeak Babesteko Pribatutasun Legearen arabera.

Informazio gehiago: 943 25 05 05
<http://blogak.goiena.eus/kantari/>

goiena

'Argiaren hotsa': zentzumen guztiekin gozatzeko moduko espektakulua

Olerkia, argia eta musika uztartuko dituen ikuskizuna dakar Ganbarak

MAITE TXINTXURRETA | OÑATI

Oñatiko Ganbara abesbatzak beste ikuskizun bat eskainiko du domekan, urtarrilak 31, arratsaldeko zazpietan hasita, Oñatiko Mikel Goiaingueruaren parrokiari. Emanaldiari *Argiaren hotsa* izena jarri diote, eta bertan, Ganbara eta Ganbara Txiki abesbatzetako kideak eta Andoni Salamerok olerkaria arituko dira elkarlanean.

Diziplina anitzeko ikuskizuna izango da domekakoa, olerkia, argia eta musika uztartuko dituen Aitor Biainen zuzendaritzapean. Izar baten papera hartuko du Salamerok eta izar horren bidaia kontatzea izango da haren egitekoa, antzezpen eta guzti.

Salamerok plazaratuko dituen olerkien testua ikuskizun hone-

tarako propio sortu dute, musika ez bezala. Hau da, aurrez sortutako musika "gidoira egokitu" dute, Aitor Biainen esanetan. Nabarmendu du olerki guztiak euskaraz direla, eta, beraz, espektakulua "ia bere osotasunean euskaraz" izango dela.

Olerkiez gain, gaueko argiak izango dira protagonista ikuskizunean: "Ilunabarretik egunsentiraino argia elementuz elementu nola pasatzen den ikusiko dugu", dio zuzendariak, eta, nola ez, Ganbara eta Ganbara Txiki-koen ahotsak.

Sarrerak


Sarrerak hamar eurotan daude salgai Txokolatexan eta www.ganbara.sacatuentrada.es webgunean.



Ganbara txikikoak entseguan, domekan. | IMANOL SORIANO

ANDONI SALAMERO
OLERKARIA

"Kontatuko dut izar baten bidaia"



Zumarragako Andoni Salamerok idazleak egin du ikuskizuneko testua.

Nolako testua egin duzu?

Prosa poetikoan idatzia, gidoi baten antzera. Zazpi zatitan izar baten bidaia kontatzen du. Errexitatu egingo dut, eta zati bakoitzean argigune batean kokatu eta pasarte bat kontatuko dut.

Nolako izan da sortze lana?

Oinarria idatzia izan da, eta Ganbarakoek musikaz elikatu dute istorioa.

Ez da Ganbarakoekin elkarlanean aritu zaren lehen aldia.

Ez. Gustatzen zait haiekin lan egitea. Arriskatu egiten dute; hori oso garrantzitsua da.

Debagoieneko piano jole gazteak Amaia antzokian

Ibarreko hainbat musika eskolako 56 ikaslek kontzertua eskainiko dute eguaztenean

M.T. | ARRASATE

Arrasate Musikalek antolatuta, Debagoieneko hainbat musika eskolako piano ikasleek kontzertua eskainiko dute datorren eguaztenean, otsailak 3, Arrasateko Amaia antzokian. 18:30ean hasiko da, eta sarrera doan izango da. Ordu eta laurden inguru iraungo du.

Oñatiko, Bergarako, Eskoriatzako, Aretxabaletako, Elgetako eta Arrasateko musika eskolako ikasleak izango dira; 56 neska-mutiko, guztira. Hala ere, Arrasate Musikaleko Edorta Aiastuik azaldu duenez, horiek "ez dira Debagoieneko piano ikasle guztiak. Arrasaten, esate baterako, berrogei neska-mutiko inguruk dihardute piano ikasten". Eguazteneko emanaldian parte hartuko duten ikasleak hamar eta hamazortzi urte bitartekoak dira.

Araceli Guridi, Ainhoa Galdos, Lorea Larrañaga, Amaia

Urdangarin, Eli Mendirarantz, Mentxu Pierrugues, Rakel Hernandez, Paul San Martin, Isabella Blezien eta Rakel Hernandez dira pianista gazte horien irakasle eta arduradunak.

Herrien arteko topaketa

Orain arte urtero egin ohi izan dute antzeko kontzertu bat otsail inguruan, baina horren helburua, nagusiki, Andoainean egiten den Piano Jaialdirako prestatzea izaten zen.

Oraingoan, baina, emanaldiaren helburua "desberdina" da, Edorta Aiastuik azaldu duenez. Debagoieneko sei musika eskolako neska-mutikoek euren arteko harremana sendotzea eta elkarlana bultzatzea da lehentasun nagusia. Modu horretan, gainera, "ikasleak jendaurrean aritzera ohitzeko" ere baliagarria izango da, baita "ikasten ari direna erakusteko" ere.

Juan Antonio Muñoz Aretxabaletako Arkupe aretoan izango da gaur, jendea barrez leherrarazteko asmoz

Telebistako Cruz y Raya izeneko umorezko komediante bikote ospetsua izan zenaren erdia, Juan Antonio Muñoz, izango da gaur iluntzean Aretxabaletako Arkupe kultur etxeko Zaraia aretoan. Muñozek umorezko bakarrizketa eskainiko du. Emanaldia 20:00etan hasiko da, eta sarrerak lau eurotan izango dira salgai. Komediante, aktore eta *showman* bartzelonarra bakarkako ibilbidean murgilduta dabil orain, bakarrizketak egiten.

Irlandako doinuak, rocka, reggaea eta rapa batu ditu otsaileko Kooltur-ek

Atzo, Bilboko Sonic Trash-en kontzertua izan zen Arrasateko Gaztetxean

M.T. | ARRASATE

Eguen gauak bereziak izaten dira astero-astero Arrasateko eta inguruko musikazale eta kulturazale askorentzat, eta atzo ere hala izan zen. Bilboko Sonic Trash taldea igo zen Arrasateko gaztetxe agertokira Kooltur ekimeneko programazioaren baitan antolatutako kontzertuan. Post rock eta garage doinuekin eta giro ona sortuz itxi zuten, beraz, urtarrilerako prestatutako egitaraua, otsaileko eguenetako hitzorduei bidea emanda.

Datozen hitzorduek

Denetariko musika estiloak batu ditu otsaileko Kooltur ekintzaren egitarauak. Beti bezala, gaueko hamarretan puntuan hasiko dira emanaldi guztiak, eta horiek ikusteko sarreraren salneurria bost euro izango da.

McOnak bizkaitarrak arduratuko dira hileko kontzertu zikloa irekitzeaz. Irlandar estiloko folk-rocka egiten du boskoteak; *Zer-bezien komandua* eta mota horretako parranda giroko abestiak ez dira falta haien erreperorioan. Euren bigarren diskoa atera berri dute, eta, Kooltur-eko Iker Barandiaranek azaldu duenez, "matiz asko" dituen musika egiten dute. Kontzertuak "jende dezente" batuko duela uste du Barandiaranek.

Bigarren astean, otsailaren 11n, Italiatik etorriko da talde gonbidatua. Small Jackets izango dira, hard rock eta rock-and-roll estiloak jorratzen dituen laukotea,



McOnak taldea izango da datorren astean. | MCONAK

"glam kutsuarekin" eta "New York Dolls eta antzekoen tankean", azaldu du antolatzaileak.

OTSAILEKO EGITARAUJA

Otsailak 4: McOnak, folk-rock errebeldea Lekeitiotik

Otsailak 11: Small Jackets, Hard rocka Italiatik.

Otsailak 18: Akatz, reggae doinuak Bilbotik

Otsailak 25: La Furia, rapa Donostiatik.

Orain European barrena bira batean murgilduta daude.

Otsailaren 18an, karibe aldeko ska eta reggae doinuak ekarriko dituzte Akatz bilbotarrek. "Nik esango nuke Euskal Herrian dagoen reggae talderik esanguratsuen delat", dio Barandiaranek: "Reggae zaleendako eta gainontzeko kuriosuendako oso kontzertu aproposa".

Bukatzeke, otsailaren 25ean, La Furia donostiarraren rap gordinaren txanda izango da. "Oso letra landu eta kritikoak egiten ditu, eta bere burua feminismoaren barruan kokatzen du; mezu feministak plazaratzen ditu".



Mikel Arregi | Txirrindularia

Mikel Arregi antzuolara arratsaldeko entrenamendua hasi aurretik

IRATI ELORTONDO

"Zarautz eta Ondarroa ingurura joatea gustatzen zait; kostako bideak oso politak dira"

IRATI ELORTONDO | ARRASATE

Mikel Arregik (Antzuola, 1998) 17 urte ditu eta Batxilergoko bigarren maila ikasten ari da. Zaleztasuna familiatik dator kio eta Bergarako kadete taldean hasi zen lehiatzen duela hiru urte. Bergarako txirrindularitza taldean egon eta gero, Oñatira joateko erabakia hartu du. Pozik dago bertan, Oñatiko taldekideekin harreman ona izan baitu hasieratik.

Zergatik eta noiz aukeratu zenuen txirrindularitza?

Txikitatik zaleztasuna familiatik jaso izan dut, aita ere bizikleta-zalea da. Beti ibili izan naiz bizikleta gainean, baina ez nuen lehiatzeko aukerarik izan orain dela hiru urte arte. Kadeteetan taldean sartzeko aukera izan

nuen eta hartatik hasi nintzen lasterketetan, orain arte.

Bergarako taldean egon zara orain arte eta orain Oñatin zaude. Nola-koa izan da aldaketa?

Alde batetik, pena handia sentitu nuen, hiru urte geroago Bergarako taldea utzi nuelako. Ikasi dudana guztia han ikasi dut. Baina batzuk mailaz igo ziren, beste batzuek taldea utzi zuten, eta, bi bakarrik geratu ginenez, Oñatira joan behar izan nuen. Taldeko jendea ezagutzen nuen lehendik, eta ondo moldatzen gara. Jubeniletako azken urtea da eta disfrutatzea espero dut.

Abenduan Euskadiko ziklo-kros txapelketan egon zinen.

Bai, baina aurreko urtean operatu egin nindutenez ez dut lehiatzeko aukerarik izan. Guztira,

lau lasterketatan parte hartu dut, baina ez naiz lehiatu. Baina horretaz aparte, gustura egon naiz.

Zer sentitzen duzu bizikletara igotzen zaren bakoitzean?

Egun bakoitza desberdina da, batzuetan gustura igotzen naiz eta beste batzuetan ez. Oso gustura sentitzen naiz, haizea hartzeko eta denbora pasatzeko atsegina da.

Eta lasterketa amaitzean?

Bueltaren arabera, batzuetan bizikleta ez ikusteko gogoarekin gelditzen naiz astebetez, baina hori ere ez da oso ohikoa izaten. Normalean, pozik jaisten naiz bizikletatik.

Ze txapelketatan gurako zenuke parte hartu?

Gazte mailan Gipuzkoako txapelketetan parte hartzeko aukera

izan ohi dugu, eta nahikoa izaten da. Beste aukeraren bat suertatuko balitz, baina, gustura joango nintzateke.

Burututako lasterketetatik zein da zure preziatuena?

Lasterketa asko ditut gogoko; Gipuzkoako atseginak izaten dira, baina kanpoan izaten ditugunak ere disfrutatzen ditut. Aurreko urteko Nafarroako Itzuliko lasterketa oso polita izan zen. Bergarako taldean nengoen eta Oñatiko taldea ere etorri zen. Ez genuen bidea ezagutzen, baina oso dibertigarria izan zen. Denon artean oso ondo konpondu ginin.

Bizikletan asko ibiltzen zaren ibilbiderik ba al duzu gogoan? Gogokoren bat?

Normalean, bailaran ibiltzen naiz, lekua hobeto ezagutzen dudalako. Baina Zarautzera eta Ondarroara joatea asko gustatzen zait, kostako bideak oso politak dira. Bistaz disfrutatzea gustatzen zait.

Non ikusten duzu zure burua hementik 10 urtera?

Momentuan momentukoa, orain ondo gabilta eta ikusiko dugu, orain esatea alferrik da. Orain ahal duguna egingo dugu, bizitzaz disfrutatuta. Zerbait ona etortzen bada, ongi torria izango da.

Eta txirrindularitzaren etorkizunaz?

Berdin pentsatzen dut, orain oraingoa ikusi behar dugu. Izango dugu denbora etorkizunaz pentsatzeko.

Zer esango zenieke txirrindularitzan hasi berri direnei?

Gogoz jarraitzeko esango nieke. Beste kirol batzuekin alderatuz txirrindularitza taldeak ez dira hain handiak izaten, baina inguruko taldeekin lehiatzera joateko aukera izaten dugu. Gipuzkoa osoko txirrindulari ugari ezagutzeko aukera izan ohi dugu. Haiekin elkartzeko esango nieke, inguruko beste talde batzuetako jendea ezagutzea pozgarria izan daiteke eta haiantzat.

PERTSONALA

Bizikletan ibiltzeko leku bat: Kosta.

Telesail bat: *La que se avecina.*

Lasterketa bat: Paris-Roubaix.

Janari bat: Arroza.

Txirrindulari bat: Amets Txurruka.

Bizitzeko leku bat: Antzuola.

Bizikleta marka bat: Cannondale.

Txokorik gogokoena: Baserria

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Garazi Prieto Goñi
Otsailaren 4an, 9 urte.
Zorionak, Garazi! Familia osoaren partetik belarri tirakada asko eta ondo-ondo pasatu zure egunean!



BERGARA
Irati Mujika Domenech
Otsailaren 4an, 8 urte.
Zorionak eta urte askotarako Osintxuko Irati Mujikari. Segi orain arte bezalako alai eta irribarretsu. Muxu pila bat: familia eta lagun danen partetik.



OÑATI
Ainhize Mendibe Garai
Otsailak 3an, 5 urte.
Zorionak, printzesa, etxeko danen partetik.



ARRASATE
Javi Sandoval Garcia
Otsailaren 1ean, 45 urte.
Zorionak, aita! Alazneren, Eiderren eta amaren partetik. Denok elkarrekin ospatuko dugu zure eguna. Primeran pasatuko dugu. Maite zaitugu.



ARRASATE
Piedad Cordero
Otsailaren 1ean, 72 urte.
Zorionak, amama! Alazneren eta Eiderren partetik. Ondo pasatu zure eguna. Musu eta besarkada handi bat zuretzat. Maite zaitugu.



ARRASATE
Nahia Garro Arana
Urtarrilaren 31n, 8 urte.
Zorionak eta muxu handi bat, etxekoan partetik.



BERGARA
Irati Barrigon Gauna
Urtarrilaren 31n, 4 urte.
Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure laugarren urtebetetzea, familia osoaren eta, bereziki, Sararen partetik. Muxu potolo bat.



ARETXABALETA
Unax Zuazo Oianguren
Urtarrilaren 31n, 4 urte.
Zorionak, pittin! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta txokolatzeko muxu pilo bat aitatxoren, amatxoren eta Izaren partetik!



BERGARA
Irati Larrea Perez
Urtarrilaren 31n, urtebete.
Zorionak familiako txikienari bereziki Noraren, Eriken, Eleneren, Jurgiren eta Aneren partetik. Patxo bat eta segi beti bezain alai!



URRETXU
Itziar Zabaleta Artolazabal
Urtarrilaren 31n, 10 urte.
Zorionak eta 10 tirakada goxo. Ondo pasatu eguna familia eta lagunekin. Muxu potolo bat tioren, tiaren, Edurneren eta Markelen partetik.



OÑATI
Eki Palacin Aldea
Urtarrilaren 31n, 4 urte.
Zorionak, txapeldun! Oso ondo ospatu zure eguna. Lau patxo potolo, danon partetik.



ARRASATE
Hodei Garitaonandia Uriarte
Urtarrilaren 30ean, 8 urte.
Zorionak, txapeldun! Mila zorion maite zaitugun denon partetik. Gozatu topera! Hartz-besarkadak eta txokolatzeko muxuak.



ESKORITATZA
Aratz Aldai Armendariz
Urtarrilaren 30ean, 11 urte.
Zorionak, Aratz. Hamaika urte bete dituzu dagoeneko. Muxuak etxekoan aldetik. Maite zaitugu.



ARRASATE
Oihane Rodriguez
Urtarrilaren 30ean, 7 urte.
Zorionak, *bitxito de luz!* Ondo-ondo pasatu zure egunean eta patxo handi bat, familia osoaren partetik!



OÑATI
Unax Zubia
Urtarrilaren 29an, 5 urte.
Zorionak, Unax! Ondo ibili zure egunean!



ARRASATE
Iargi Martin Arias
Urtarrilaren 29an, 6 urte.
Zorionak, Iargi, etxekoan partetik. Muxu handi bat, bereziki, Jokinen partetik.



ARRASATE
Isabel Sagasta Arana
Urtarrilaren 29an, 55 urte.
Zorionak, harribitxi maitxia! Disfrutatu eta goxatu gaur eta beti. Etxekoan partetik! Mua!



ARETXABALETA
Garazi Estebez Guede
Urtarrilaren 29an, 14 urte.
Zorionak, txapelduna. Ondo pasatu zure familiaren partetik.



ESKORITATZA
Iker Jimenez Segovia
Urtarrilaren 28an, 7 urte.
Aupa, rockero! Zelako handia zaren jada, 7 urterekin! Zorionak eta oso ondo pasatu eguna. Muxu handi bat zure lehengusu-lehengusinen eta familiaren partetik!



ARETXABALETA
Anje Arriola Serrato
Urtarrilaren 28an, 8 urte.
Zorionak, txapeldun! Etxeko danon partetik, ondo-ondo pasatu egun berezi hau. Patxo handi bat!



ARETXABALETA
Ganix Gomez Iturbe
Urtarrilaren 28an, 3 urte.
Gure etxeko txikiak hiru urte handi bete ditu! Zelako bizkor pasatu diren... Jarraitu bazterrak nahasten eta alaitzen! Muxuak etxeko danon eta, Andoiten partetik!



BERGARA
Eneko Gantxegi
Urtarrilaren 27an, 5 urte.
Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik!



ARRASATE
Maby Rodriguez
Urtarrilaren 27an, 36 urte.
Zorionak eta urte askotarako! Ondo-ondo pasatu zure egunean eta denok batera ospatuko dugu. Familia osoaren partetik.



ARRASATE
Aimar Agirre Lete
Urtarrilaren 26an, 10 urte.
Zorionak, Aimar! 10 urte dagoeneko! Egun ederra eduki daizula eta zorionak, familiaren partetik!



OÑATI
Aiur Moreno Zubia
Urtarrilaren 26an, 5 urte.
Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Bost muxu potolo, etxeko guztien eta, bereziki, Naroaren partetik.



ARRASATE
Eider Prieto Goñi
Urtarrilaren 26an, 13 urte.
Zorionak, Eider! Ondo pasatu zure eguna eta ederto ospatu! Familia osoaren partetik.



ARETXABALETA
Alberto Sandoval
Urtarrilaren 25ean, 81 urte.
Zorionak, aita! Zure iloben partetik. Ondo pasatu zure eguna. Maite zaitugu.



BERGARA
Sara Barrigon Gauna
Urtarrilaren 24an, urtebete.
Zorionak, maitxia! Ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzea, familia osoaren eta, bereziki, Iratiren partetik. Muxu potolo bat.



OÑATI
Naroa Letamendi Narraspe
Urtarrilaren 23an, 7 urte.
Zorionak, *prexiola!* Ondo pasatu zure urtebetetze eta muxu handi bat etxekoan partetik.



BERGARA
Maider Bilbao Iñarra
Urtarrilaren 23an, 11 urte.
Zorionak, Maider! Oso ondo pasatu dugu zure urtebetetze egunean. Eskerrik asko familia guztiaren partetik. Jarraitu irribarre polit horrekin.



ARRASATE
Nora eta Danel Ruiz
Norak urtarrilaren 23an, 6 urte eta Danelek 27an, 10 urte.
Zorionak, bio! Ondo pasatu zuen urtebetetze egunean. Mila muxu. Asko maite zaituztegu. Aitaxo eta amatxo.



OÑATI
Ander Iciar Garcia
Urtarrilaren 22an, 5 urte.
Zorionak, Ander! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu potolo bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Hodei Ramos Trenado
Urtarrilaren 22an, 3 urte.
Zorionak, *potxolo!* Hiru urtetxo! Ze handi egin zaren! Oso ondo ospatu zure eguna. Muxu handi bat familiaren partetik!



ARRASATE
Iraia Nieto Gorosabel
Urtarrilaren 21ean, 12 urte.
Zorionak, polit hori! Orain dela hamabi urte jaio zinen eta irribarre polit hori ez da zure aurpegitik inoiz ezabatu! Horrek egiten zaitu hain berezi!



ANTZUOLA
Arantzazu Gezalaga eta Irati Artolazabal
Zorionak, bikote! Arantzazuk urtarrilaren 27an eta Iratik otsailaren 2an. Ondo igaro zuen seigarren urtebetetze eguna etxekoez eta lagunez inguratutik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

OROIGARRIA

**Juan Jose Foronda Ezkurra**

2016ko urtarrilaren 25ean hil zen.

Xabierren lagunak.

Arrasaten, 2016ko urtarrilaren 29an.

OROIGARRIA

Juan Jose Foronda Ezkurra*Eskerrik asko zure ekarpenengatik eta egindako lanagatik.*Ferrerias kaleko komisiñua.
Arrasaten, 2016ko urtarrilaren 29an.

OROIGARRIA

Juan Jose Foronda Ezkurra*Eskerrik asko guregatik egin duzun lan guztiagatik.*Arrasateko Trikitixa Eskola.
Arrasaten, 2016ko urtarrilaren 29an.

OROIGARRIA

Asun Gaviria Mendoza*Nahiz eta gure artetik joan, beti gagoan izango zaitugu.*Auzo Lagun Koop. Elk.
Arrasaten, 2016ko urtarrilaren 29an.

URTEURRENA

**Pedro Ayastuy Lizarralde**

2015eko urtarrilaren 26an hil zen, 73 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da,
urtarrilaren 30ean, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2016ko urtarrilaren 29an.

URTEURRENA


Lorenza Martinez Alvarez

Juan Arrietaren alarguna

2015eko urtarrilaren 31n hil zen, 87 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
urtarrilaren 31n, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2016ko urtarrilaren 29an.

ESKER ONA

**Maria Salegi Unzueta**

(Beistegi baserrikoa)

Prudencio Belategiren alarguna

2016ko urtarrilaren 22an hil zen, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali
zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.*Txanbaxgarri batek bezela,
kantatu nahi genizuke
gora-goxo eskatu gabe
eman dizkiguzun muxu eta barre.**Gavez egongo den izarra
beti guri begira
zu izango zera bena
beti diz-diz eginaoz.*

Bergaran, 2016ko urtarrilaren 29an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire
lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean
maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-
guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55
BERGARA

HILDAKOAK

Maria Bizenta Jausoro Aperribai. Aretxabaletan, urtarrilaren 18an. 94 urte.
Eulalia Sagastizabal Zuluaga. Aretxabaletan, urtarrilaren 20an. 95 urte.
Eladia Azkoitia Goitia. Oñatin, urtarrilaren 21ean. 90 urte.
Felix Lonbide Elortza. Bergaran, urtarrilaren 21ean. 84 urte.
Karmelo Mendibil Maiztegi. Bergaran, urtarrilaren 21ean. 84 urte.
Martin Arregi Usaola. Bergaran, urtarrilaren 21ean. 91 urte.
Maria Salegi Untzueta. Bergaran, urtarrilaren 22an. 91 urte.
Andina Arrazola Zulueta. Oñatin, urtarrilaren 23an. 88 urte.
Eladio Azkargorta Errasti. Arrasaten, urtarrilaren 24an. 90 urte.
Luis Espinosa San Martin. Arrasaten, urtarrilaren 24an. 92 urte.
Camilo Fernandez Vidal. Arrasaten, urtarrilaren 25ean. 85 urte.
Julio Gallastegi Uribe. Arrasaten, urtarrilaren 25ean. 90 urte.
Juan Jose Foronda Ezkurra. Arrasaten, urtarrilaren 25ean. 67 urte.
Asun Gabiria Mendoza. Aretxabaletan, urtarrilaren 27an. 55 urte.
Luis Maria Lonbide Gisasola. Bergaran, urtarrilaren 27an. 84 urte.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo eskelak@goiena.eus► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean
eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko
bazkideendako 125 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otarola Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



OÑATI 'Argiaren hotsak'

Ganbara eta Ganbara Txiki abesbatzekin batera, Andoni Salamero euskal filologoa arduratu da testuaz. Izar baten papera hartuko du Salamero eta izar horren bidaia kontatzea izango da haren egitekoa. Musika, ahotsa, argia, irudia eta poesia batuko dituzte. Parrokia modu berezian argiztatuko dute.

Etzi, domeka, parrokian, 19:00etan.



GANBARA



MUSIKAZUZENEAN

BERGARA Mursegoren emanaldia

Gaztetzeko Haur eta Guraso Asanbladaren eskutik, emanaldi berezia egingo du Mursegok. Neska-mutikoendako saio didaktikoa egingo du bakarlariak eta egiten duen musika bitxira hurbilduko ditu umeak.

Bihar, zapatua, gaztetzean, 17:30ean.

NON-ZER

URTARRILA 29
OTSAILA 4

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguzteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

tetako sari banaketa ekitaldia egingo dute. Azken ekitaldia AviTxi DJaren emanaldia izango da.
Bihar, zapatua, Herriko Plazan, 12:00etan.

OSPAKIZUNAK

ESKORIATZA Kintaden Eguna
Adin ezberdineko kintadak batu-ko dira lagun artean poteoa egin eta bazkaltzeko edo afaltzeko.
Bihar, zapatua, Eskoriatzan, 12:00etan.

ARETXABALETA San Blas eguna
Mezaren ostean (10:30) jakiak bedekuntatu dituzte Apotzagae-txebarri auzoko Salluente ermitan.
Otsailaren 3an, Apotzagaetxebarri auzoan, 10:30ean.

OÑATI Santa Ageda kantuan
Pake Lekuko Aloña Abesbatza Santa Ageda kantuan irtingo da.
Otsailaren 4an, herriko kaleetan.

TURISMOA

ELGETA Bisita gidatua lubakietara
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan hasi eta Intxortan bukatuko dute bisita gidatua. Aurrez izena eman behar da 943-79 64 63 edo 943-71 89 11 telefonoetan.
Etzi, domeka, Espaloian, 10:00etan.

GAZTELEKUAK

ANTZUOLA Txapelketak
Ping-pong, dardo, mahai-futbol eta billar txapelketak jokatu dituzte. Zapatuan kanporaketak eta domekan finalak.
Aste bukaeran, gazte txokoan, 17:00etan.

ARRASATE Karrozak egiten
Aratusteetarako karrozak egiteko aukera izango dute gazteek.
Aste bukaeran, erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

ARRASATE Gazte bazkaria
Aratusteetako gazteen bazkari-rako txartelak salgai hiru euro-tan.
Aste bukaeran, erdiguneko gaztegunean.

IRTEERAK

ARRASATE Mendi irteera eta sagardotegian bazkaria
Santiago bidearen lehen etapa - Hondarribia-Donostia-egin ostean, sagardotegian bazkalduko dute.
Etzi, domeka, Garibain.

OÑATI Eski zeharkaldia
Candanchu eta Astun inguru-etan egingo dute gidari profesionalekin, martxoaren 5-6ko aste bukaeran. Eraman beharreko materiala: eskiak, kutxillak, larruak, botak, bastoiak, pioleta, kranpoiak, ARVA, pala eta zunda. Izena emateko azken eguna otsailaren 22an, Aloñaren egoitzan.
Etzi, domeka, Espaloian, 10:00etan.

ARRASATE Eski irteera erraketekin
Candanchu eta Astun inguru-etan egingo dute, otsailaren 6-7ko aste bukaeran. Izena emateko azken eguna otsailaren 1a izango da, Besaideren egoitzan, 19:30etik 20:30era.
Izen-ematea, aipatutako egunean eta orduan.

ARRASATE Eski irteera
Eski alpino irteera Formigalera egingo dute otsailaren 13-14ko aste bukaeran. Izena emateko egunak astelehenak, martitzenak eta eguaztenak dira, Besaideren egoitzan, 18:30etik 19:30era.
Izen-ematea, aipatutako egunean eta orduan.

ARRASATE Santiago Bidea
Bigarren etapa -Donostia-Zarautz- egingo dute otsailaren 28an. Martitzenetan eta eguaztenetan eman daiteke izena Besaideren bulegoan, 19:30etik 20:30era.
Izen-ematea, aipatutako egunean eta orduan.

IKASTAROAK

ARRASATE Mandalak nola margotu
Harrietan mandalak margotzen eta marrazten ikasteko aukera otsailaren 13an eta 20an, 8 urte-tik gorakoendako. Informazio: 943-04 84 46 edo 628 67 35 50 telefonoetan edo olgeta@olgeta.eus-en.
Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

ARRASATE Biodantza ikastaroa
Mentxu Arjonillak emango du ikastaroa martitzenetan, 18:30ean. Izena emateko: 626 66 12 92.
Izen-ematea, aipatutako telefonoan.

OÑATI Elurrari buruzko ikastaroa
Nivologia delakoaren bi orduko ikastaroa egingo dute Aloña Mendiko mendi sailaren eskutik, otsailaren 5ean eta 6an. Gainera, Gabarditon saio praktikoa egingo dute. Izen-ematea eta informazioa Aloñaren egoitzan.
Izen-ematea, aipatutako lekuan.

DEIA

BERGARA Kilometroak 2016
Bergarako jaiko koordinatzaile Ekaitz Aranberri eta Mikel Egibar gazteekin batzartuko dira, Kilometroak 2016 jaiaren bueltan antolatuko diren ekintzetan parte hartzera gonbidatzen.
Bihar, zapatua, Aranzadin, 11:00etan.

BERGARA 'Demasa' kantua
Aranzadi Ikastolako Santa Ageda eskean Kilometroak 2016ko kantua abestuko dute. Kantu paperak banatu dituzte. Entsegua otsailaren 2an egingo dute Aranzadi ikastolan, 18:30ean. Deialdia irekia da.
Otsailaren 4an, San Martin plazan, Otsailaren 2a,

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko urtarreleko zozketetako irabazleak



TABLETA
Aitor Madinabeitia Goñi (Arrasate)

MUJIKA GOZOTEGIAN TARTA
Maitane Loyola Zubia (Bergara)

DUKIENA JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Eider Garitano Arregi (Bergara)

KIKE AMONARRIZEN LIBURUA
Nerea Perez Idigoras (Arrasate)
Pilar Etxaniz Kortabarria (Antzuola)
Izaskun Arana Zubizarreta (Arrasate)

ARRIKRUTZ KOBETARAKO BINA SARRERA
Aitor Belastegi Aranzabal (Antzuola)
Joseba Ezpeleta Irizar (Arrasate)
Gabino Iarza (Arrasate)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Saioa Belategi Unzueta (Arrasate)

LABORAL KUTXA - CSKA PARTIDURAKO BINA SARRERA
Xabier Zabala Urriategi (Bergara)
Arrosane Galfarsoro Lardizabal (Osintxu)
Koldo Etxebarria (Arrasate)
Arantzaz Fdez. de Ganboa Landa (Arrasate)

GOIKO BENTA JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Amaia Billar Inza (Oñati)

JABIER MUGURUZAREN KONTZERTURAKO BINA SARRERA
Angel Elkoro Aranberri (Bergara)
Karmele Ilarduia Garitano (Aretxabaleta)
Arantzazu Uribe-Etxebarria Maiztegi (Aretxabaleta)

TONY BRIGHT MENTALISTAREN SAIORAKO BI SARRERA
Mikel Lopez de Arkaute Guridi (Arrasate)

SORAN JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Miren Arregi Zuazubiskar (Arrasate)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzte Arrikrutzeko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe mugatu izango dute. **ARRIKRUTZ** KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI, 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko) **Harreman dendako otarrak** Otarra jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Beste sariak** (Otorduak eta sarrerak izan ezik). Zatoz, GOIENAREN egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA Otarora Lizenziaduna, Arrasate. 943 25 05 05. Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzean: 08:00 - 14:00.

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntua. Hartu parte eta... on egin!

Uxarte jatetxeko orburu naturalak urdaiazpikoarekin salteatua.



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2016-01-29

BUKATZEKO

Bertikal, Alemaniako jostailu azokan

- ▶ Otsailaren 1a bitartean Nurenberg hirian elkartuko dira munduko jostailu egilerik garrantzitsuenak
- ▶ Aretxabaletan 2013an sortu zuten zilindro formako labirintoa ere erakutsiko dute han

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Alemanian egiten den mundu mailako jostailu azokarik garrantzitsuenak da Nurenberg hirikoa, eta eguaztenetik otsailaren 1era arte ditu ateak zabalik. Han elkartuko dira 70.000 bisitaritik gora sei egunetan, eta ia 70 herrialdeetatik joandako 2.800 erakusmahai baino gehiago jarri dituzte; horietako batean Aretxabaletako Bertikal etxeokoa daude.

Erakutsi eta saldu

Zilindro formako labirintoa da Bertikal, barruan bolatxo bat du eta alde batetik besteraino pasatzea da kontua. "Jostailua erakustera etorri gara, eta beste herrialde batzuetan saltzeko harremanak egitera. Pauso bat aurrera eman gura izan dugu, gure mugetatik kanpo saltzen hasteko gai garela uste dugu-eta", dio Lara Gonzalezek, Bertikal jostailuaren ordezkarierako batek.

Aurretik ere egon izan dira beste azoka batzuetan; Kordoba-koan eta Bartzelonako Ibertoyan, esaterako: "Arrakasta izan zuen gure jostailuak azken horretan, eta sektoreko batek baino gehiagok harrituta esan zigun nolatan ez duen saririk jaso oraindik, hain berritzailea izanda".



Bertikaleko ordezkariek Nurenbergeko jostailu azokan, eguaztenean. | BERTIKAL

Itsaso Pagoaga ere bai

Arrasaten denda duen Olgeta jolaserako baliabide zerbitzuko ugazaba Itsaso Pagoaga ere Nurenbergen dago. "Mundu mailako azokarik garrantzitsuenak da. Sartzerakoan izutzeko modukoa izan arren, oso ondo antolatuta dago jostailu moten edo ekoizteko moduen arabera", dio aretxabaletarrak. Hainbat gune ditu azokak: "Batean, azken nobedadeak aurkezten dituzte; beste batean,

urteko jostailuak saritzen dituzte; eta hitzaldiak eta mahai-inguruak egoten diren gunea ere badago. Hor aztertzen dituzte jostailua egiten denetik umearen eskuetara iritsi bitarteko prozesu guztiak", argitu du. Txinak pabiloi oso bat dauka beretako, "indar handiarekin" sartu da-eta merkatuan. Eta artisauek ere badute lekua, beste pabiloi bat egurrezko jostailuen ekoizleendako delako: "Niri, baina, zientzia



Itsaso Pagoaga. | IMANOL BELOKI

lantzeko jostailuek eman izan didate atentzioa, energia berriztagarriekin zerikusia dutenak, robotikarekin... Gurean oso zaila delako halakoak topatzea".

Iaz egon zen lehenengoz Pagoaga, eta orduan ez zuen euskal ekoizlerik ikusi; aurten, baina, herrikideekin egingo du topo. Eta argi dauka zertara joan den Alemaniarraino: "Batetik, iazko hornitzaileekin harremanak sendotu gura ditut, eta horien nobedadeak aurrez aurre ezagutu; eta bestetik, Olgetarako interesgarriak izan daitezkeen jostailuak ikusiko ditut: egurrezkoak, material berriekin egindakoak...".

AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



Elkartasuna eta segurtasuna

Aspaldian darabil buruan gai bat: gero eta gehiago entzuten dugu jendartea indibidualizatzen ari dela, bakoitzak berea baino ez duela ikusten, ez dagoela boluntario-lanik egiteko jenderik... Zalantzak ditut baieztapen horiekin.

Ez naiz guztiz ukatzera ausartzen, baina nik jende dezente ezagutzen dut boluntario ari dena han eta hemen. Uste dudana da boluntario lanak egiteko moduak aldatu direla, jendartea bera ere aldatu delako.

Halako burutazioekin nobilela etorri zitzaizkidan berria. Bergaran, gazte talde bat elkartuta eta ihesean datozen eta Europa Ekialdeko kanpamenduetara iristen diren errefuxiatuei arropa helarazteko lanean hasi da. Gaiak kezkatu, elkartu, antolatu eta lanean jartzea erabaki duten bergararrak dira.

Beraz, ez nabilen hain oker.

Jendea prest dago boluntario-lanik egiteko eta besteenganako elkartasunez mugitzeko. Bejondeizuela Bergarako Hotz taldeko kideei. "Elkartasuna da herrien arteko samurtasuna", entzun dugu behin baino gehiagotan. Bada, Bergaran badago elkartasuna eta samurtasuna.



NISSAN CROSSOVER
GAMA BERRIA

YOU+NISSAN
GURE KONPROMISOA. ZURE ESPERENTZIA.

Ezagutu zehaztasunaz Bozereen Promesa Cliente programa hemen: nissan.es/promesacliente edo kontzesionarioen gure sare ofizialean.

ARABAUTO

Gamarrako Atea, 46 A-B, 01013, Vitoria-Gasteiz, Araba - 945 262 501 - <http://red.nissan.es/arabauto>

Kontsumo mistoa: 3,8-7,3 l/100 km. CO2 emisioak: 99-172 g/km.